

# KULTURA 2028

## PLAN ESTRATEGIKOA

KULTURA PLAN ESTRATEGIKOA KULTURA PLAN ESTRATEGIKOA  
2022 \_ 2028 AOKIGELATRISE NATIA 2022 \_ 2028 AOKIGELATRISE NATIA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

**KULTURA PLAN ESTRATEGIKO A KULTURA PLAN ESTRATEGIKO A KULTURA PLAN ESTRATEGIKO A KULTURA PLAN ESTRATEGIKO A KULTURA PLAN ESTRATEGIKO A**  
2022 \_\_ 2028 **VO KIGIATV RISE N V T P D** 2022 \_\_ 2028 **VO KIGIATV RISE N V T P D** 2022 \_\_ 2028 **VO KIGIATV RISE N V T P D** 2022 \_\_ 2028 **VO KIGIATV RISE N V T P D** 2022 \_\_ 2028 **VO KIGIATV RISE N V T P D**

- 
- 1.1. Kulturaren garrantzia
  - 1.2. Planaren zergatia
  - 1.3. Kultura erdigunera
  - 1.4. Misioa eta ikuspegia
  - 1.5. Marko programatikoa
  - 1.6. Europako markoa

- 2.1. Testuinguru sozial eta kultural orokorra
- 2.2. Kulturaren egoera
- 2.3. 2019-2022 Kultura Planaren balantzea
- 2.4. Covid-19aren disrupzioa

- 3.1. Planaren printzipioak
- 3.2. Planaren ezaugarriak
- 3.3. Ardatzak eta zeharkako konpromisoak

- 4.1. Helburu estrategikoak, jardun lerroak eta ekintzak
- 4.2. 2022-2028 mugarriak

- 6.1. Eusko Jaurlaritzako barne harremanak eta koordinazioa
- 6.2. Kulturaren Euskal Kontseilua (KEK)
- 6.3. Kulturaren esparru publikoa
- 6.4. Kulturgileekin eta sektoreekin harreman zuzena eta jarraitua
- 6.5. Kulturaren Euskal Behatokia

- 7.1. Planaren eraikuntza
- 7.2. Jarraipena, ebaluazioa eta adierazle sistema

0.

**HITZAURREA**

Kultura 2028 Plan Estrategikoa aurkezten dugu hemen. Gure konpromisoen berri ematen du, gizartearen aurrean. Eusko Jaurlaritzak, bere osotasunean, Kultura eta Hizkuntza Politika sailak aurkeztu dion Plan Estrategikoa bere egitearekin, kulturaren garapena Gobernuaren konpromiso bihurtzen da. Lehendik ere, kultura txertatua dago, nola ez, Gobernuaren "Euskadi Martxan 2020-2024" Gobernu Programan edota beste hainbat dokumentu estrategikotan, besteak beste Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Plana-Euskadi 2030 (ZTBP 2030) dokumentuan, edota Euskadiko Ekonomia eta Enplegua Suspertzeko Berpiztu Programa 2020-2024-an. Halaber, Euskadik bere egin duen Garapen Jasangarrirako 2030 Agendan ere, kulturak eta euskarak leku eta garapen propioa izatea da Eusko Jaurlaritzaren helburua. Orain, baina Plan honen onarpenarekin, Kultura Gobernuaren konpromiso estrategikoen artean kokatua geratzen da.

Kultura, Gobernuan bezala, gizartean ere harrotasun eta ardura nagusietako bat izatea garrantzizkoa da oso. Euskal Herriaren definizioaren muinean daudelako euskara eta euskal kultura. Munduari, mundu gero eta globalizatuagoari, bizitzari, bizitza gero eta mudakorragoari euskararen herritik erantzuteko gaitasunak egiten gaitu munduaren solaskide. Horrek egiten gaitu etorkizun zuzenago, jasangarriago eta orekatuagoaren aldeko lankide.

Kulturak ematen die forma gizabanakoen eta gizartearen bizipen, asmo, beldur eta ametsei. Kultura da daukagunari forma ematen diona, eta datorkigunari aurre egiteko lanabesak eskaintzen dizkiguna. Jende gehienarentzat, kultura bere aisialdian gozaten, egiten, jasotzen den jarduna da. Baina ez da, hala ere, denbora-pasa hutsa. Ez da gizarte baten aisialdirako entretenimendu soila. Ez hori bakarrik. Kulturak egiten gaitu pertsona, ikuskera, pentsamendu, pertzepzioak lantzen dituzenez. Kulturak egiten gaitu herri, fenomeno kultural oinarritzkoenetik hasita – hizkuntza–. Kulturak ematen dio forma gure nortasunari, pertsona bezala eta herri bezala. Forma itxi eta zigilatua izan daiteke, edota forma aldagarria, etengabe bizi-berritzen dena. Bizia, alegia. Kulturaren ikuspegi dinamiko eta ireki hori dago gure jardunaren eta plan honen muinean. Jende gehienarentzat kulturarekiko harremana aisialdian gertatzen bada ere, lana da kulturagintzan diharduten pertsona, talde, enpresa

eta antolamenduentzako, beren bokazioa eta beren ogibidea baita ere. Kultura lanbidea dela, jarduera profesional berezia dela defendatu izan dugu beti. Baina Covid-19aren pandemiak gogorarazi digu, eta larritasunez gainera, sorkuntzan, ekoizpenean eta kudeaketan diharduten askoren ehun profesionala oso hauskorra dela.

Ez da ehun hori hautsi pandemiaren eta geroko zurrunbiloen ondorioz. Ez da hautsiko, gerora ere. Ez behintzat sortzaileen bikaintasunak, herri erakundeen konpromisoak eta herritarren atxikimenduak sendo dirauten bitartean. Horretara bideratua dago hemen aurkezten dugun Plana.

Ezin izango dugu bakarrik egin. Gobernuko beste sailen lankidetzak beharko dugu – Hezkuntza, Ekonomiaren garapena, Lana eta enplegua, Ogasuna, Gizarte politikak edo Turismoa eta merkataritza–; gainerako herri erakundeekin koordinatzen jarraitu beharko dugu, Foru Aldundiekin eta udalekin, HAKOBA Kultura indartzuz; kulturagintzako eragileekiko elkarlana ezinbestekoa izango zaigu, haien zerbitzura egon behar baitute kultur politikek; fundazio eta enpresa pribatuen babesa beharko dugu, kulturari hauspoa ematen jarrai dezaten; eta, batez ere, euskal gizartearen konplizitatea lortu beharko dugu, kultura benetan izan dadin herri ekimen eta herri helburu.

Lankidetzak zabal eta konplexu horri begira ere idatzita dago Plan hau. Erdigunean egoteak beste guztiekin batera egotea eskatzen du eta, beraz, besteekin parteka daitekeen kontakizuna lantzea. Horixe da dokumentu honen xedea: zer egiten dugun eta zergatik, zer egin nahi dugun eta zergatik esplikatzeko gain, gure arteko gogoeta ordenaturako oinarri bat jartzea. Hemen aurkeztera gatozen txostena ez da beraz dokumentu itxia, erakundeen, eragileen eta kulturagintzaren ekarpenekin etengabe ondoko dena baizik. Ez da dialogo baten burutzapena, dialogorako proposamena baizik.

Auzolanak bakarrik egin gaitzakeelako etorkizunari herri bezala erantzuteko gai.

*Bingen Zupiria Gorostidi  
Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua*

1.

**SARRERA**



## 1.1.

### KULTURAREN GARRANTZIA

---

Herri batek, gizarte batek, kultura behar du bere eraketarako eta kohesiorako. Kulturak egiten gaitu gizaki; kulturak egiten gaitu herri. Kulturak funtsezko eginkizuna du norbanakoen, gizataldeen eta herrien nortasunaren etengabeko garapenean, moldaketan eta transmisioan. Kulturak ematen die forma sentipenei, balioei, sinesmenei eta bizikizunei.

Kulturak zentralitatea behar du, herritasunaren ardatz nagusietako bat delako: norberaren eta gizartearen askatasunari eragiten dio. Gizarte berdinzaleago eta kohesioanatuagoaren eraikuntzari, hezkuntzari, berrikuntzari, ekonomiari, osasun fisiko zein mentalari, kanpo harremanei eta diplomaziarari ere eragiten die kulturak. Eragin horiek aitortzea, neurtzea eta baloratzea garrantzizkoa da oso. Kultura herri erronka da, norbanakoaren autonomia eta ahalmen kritikoa, komunitate kultural eta politikoaren sendotasuna, gure hizkuntzaren bizitasuna, emakumeen eta gizonen berdintasuna eta pertsonen arteko aniztasuna lantzen dituen heinean.

Kultura alor ekonomiko bat da, baita ere. Kultura industriek gero eta garrantzi handiagoa dute ekonomian, enpleguan eta berrikuntzan. Eragin hori askoz nabarmenagoa da kultura industriek eta sormen industriek bateraturik osatzen duten alor zabala, KSlak –Kultura eta Sormen Industrien eremua– hartzen badira kontuan. Kulturgintza sektore profesional berezia da, estrategikoa baina zaugarria, Covid-19aren pandemiak gordin agerrarazi duen bezala.

## 1.2.

### PLANAREN ZERGATIA

---

Ukaezina da kulturaren goraldia Euskadin azken hamarkadetan, bai bizitasunez, bai konplexutasunez, baita erakarmenean ere. Kulturaren dinamismoak hiru oinarri ditu: lehenik, sortzaileen eta kulturgileen talentua eta euren lanaren bikaintasuna; bigarrenik, herritarren kulturarekiko atxikimendua, alegia, euskal gizarteak euskal kultura ezagutu, dastatu eta erabiltzea, eta enpresa nahiz fundazio pribatuek kultura sustatzea, programazioaz eta finantzaketaz; eta hirugarrenik, herri erakundeen eta kulturaren sektore publikoaren konpromisoa. Hiru oinarri horiek sendotu behar dira euskal kulturaren goraldiari jarraitutasuna emateko eta haren geroa ziurtatzeko. Hori du xedea, hain zuzen, Kultura 2028 Plan Estrategikoak.

2028rainoko epeak Legealdi hau eta hurrengoa hartzen ditu, Eusko Jaurларitzan eta gainerako euskal erakundeetan. Luzera begirako plana da, oinarrian, hemen aurkezten duguna. Kultur politiken jarraitutasuna aldarrikatzen du, beraz. Kulturgintzarekiko konpromisoan, egile eta eragileekiko gertutasunean eta eremu publiko guztiaren lankidetzan oinarriturik, politika publikoek ulergarriak eta iraunkorrak izan behar dutela sinisturik, jarraitutasunerako bidea egin nahi du Plan Estrategiko honek.

Ildo eta helburu nagusiek jarraitutasuna behar dute; ekintza zehatzak berriz, batzuk Legealdi honetan burutzekoak dira, eta beste askok jarraipena eskatzen dute, etengabe ebaluatuz eta adosturik, jakina. Aurrekontuen aurreikuspena ere Legealdi honen epemugan egiten da, eta 2025ean eguneratu eta osatu egingo da 2026-2028rako aurreikuspen ekonomikoa eginez.

Plan honek kulturaren sistema bere osotasunean ulertzen du, kontuan harturik, beraz, hura osatzen duten hiru azpisisistemak: kulturaren sorkuntza eta ekoizpena, kultura eskaintza, eta kulturaren memoria bizia. Ez dira esparru itxiak, harreman

etengabean daude, elkarri eraginez beti. Garrantzizkoa da haien arteko oreka begiratzea, kulturaren sistema osasuntsua, dinamikoa eta emankorra izan dadin ziurtatzeko.

Hiru azpisisitemen dinamismorako, ezinbestezkoa da, halaber, harreman publiko-pribatuan sakontzea. Jardun pribatua kultura panoramaren ezaugarri funtsezkoa da: sortzaile, ekoizle, enpresa, kultura industriek alor pribatuan dihardute; enpresa eta fundazio pribatuek ekarpen erabakigarria egiten dute kultura sorkuntzaren eta eskaintzaren alorretan. Politika publikoek eta antolamendu publikoek jardun pribatua sustatzea eta ahalbidetzea dute helburu, eragileei dagokienez, eta alor pribatuarekiko lankidetasuna sendotzea, enpresa eta fundazioei dagokienez.

Eusko Jaurlaritzak proposatzen du Plan Estrategiko hau, eta Eusko Jaurlaritzaren jardun eremura mugatuko dira bertan definitzen diren lan ildo eta ekintzak. Ezin dira ordea isolatu. Ekintza eta lan ildo horietako asko ezin izango dira burutu erakundeen arteko adostasunik ez bada. Eta ekintza zehatzez gain, sakonean, erakundeen arteko lankidetzaren eta osagarritasuna ezinbestekoak dira kulturgintzaren sendotasunerako, bizitasunerako eta emankortasunerako. Osagarritasuna eskatzen du, halaber, indarrean dugun marko juridikoak–1979ko Gernikako Estatutuak, 1983ko Lurralde Historikoen Legeak eta 2016ko Euskadiko Toki Erakundeen legeak–, kultura Euskadiren eskumen eskusiboa dela erabakitzeaz batera, eskumen horiek Eusko Jaurlaritzaren, Foru Aldundien eta Udalen artean banatzen baititu. Ardura banatzeak arduradunen osagarritasunean eta kooperazioan sakontzea dakar. Ardura partekatutako gobernantza partekatua eskatzen du.

Horregatik, Plan Estrategiko honek, Gobernuaren hurrengo urteetarako jardunerako gida eta konpromisoa izateaz gain, erakundeon adostasunerako oinarria izan nahi du baita ere: euskal erakundeen onespina daukan Jaurlaritzaren dokumentua izateko anbizioaz sortua da.

## 1.3. KULTURA ERDIGUNERA

---

Kulturak nortasunaren lanketa, ezagutza, ikerketa, eta gogoeta mobilizatzen ditu. Norbanakoen, gizataldeen eta herrien garapenerako faktore ezinbestezkoa denez, funtsezkoa da kulturak gizarte osoan duen garrantziaren aitortzea.

Alor zehatz eta definitu bat izanik ere, kulturak beste alor askotan eragiten du, eta giltzarri da horietako batzuetan, hala nola hezkuntzan. Begi bistakoa da kulturak hezkuntzarekin duen lotura eta hezkuntzak kulturaren duen balio erabakigarria. Garapen ekonomikorako ere, gero eta garrantzitsuagoak dira trebetasun kulturalak eta sormenerako gaitasuna. Kultura lagungarria da eritasunean eta zahartzaro osasuntsua izateko; kultura funtsezkoa da emakumeen eta gizonen berdintasuna, gizarte aniztasuna eta gizarte kohesioa sustatzeko. Ukaezina da kulturaren garrantzia herri baten kanpo irudian eta herri baten erakarmenean. Kultura eskaintza kalitatezko turismoaren osagai funtsezkoa da. Alor horietan guztietan kultura eragile gisa kontsideratzea eta dakarren onura baloratzea ezinbestezkoak dira kulturaren garapenerako. Kultura politika espezifikoak bezain beharrezkoa da gainerako politiketan kulturaren ekarpena eta berezitasunak baloratzea eta sustatzea.

Plan honetan behin eta berriz adierazten da lankidetzan sakontzeko eta zentralitate bilatzeko konpromisoa. Eginkizun zehatzen bidez estutuko dira Sailaren baitako lankidetzaren –kultura, euskara eta kirola– eta Gobernuko beste sailekiko kooperazioa –Hezkuntza; Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena; Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa; Lana eta Enplegua; Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak, Ogasuna, Osasuna, Kanpo Harremanak...–.

Plan Estrategiko hau burutzeak berak zentralitatea bilatzen du. 2019-2022 *Kultura Plana* ez bezala, dokumentu hau plan estrategiko bat da. Ez da, soilik, Kultura eta Hizkuntza Politika



Sailaren plana. Gobernu osoarena da. 2020ko abenduaren 15ean, Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak XII. Legealdirako aurreikusita dauzkan eta Eusko Jaurlaritzak euskal gizartearen aurrean hartutako konpromisoen muina osatzen duten 16 Plan Estrategikoak aurkeztu zituen. Horien artean dago Kultura 2028 Plan Estrategikoa.

Gobernu Programak ere, pertsonaren aldeko konpromisoan, kultura politiken beharra aldarrikatzen du, pertsonen garapenerako eta, beraz, gizartearen onerako duen garrantzia aitortuz: *“Pertsonak dira gobernuaren ekintzaren konpromiso politikoaren funtsezko elementua. Pertsonak dira benetan garrantzitsuak, hau da, politika publiko guztien azken xedea. Konpromisoa da osasun eta hezkuntza zerbitzu publikoak finkatzea eta indartzea eta euskal gizartearen giza garapenean laguntzen duten kultura politika guztiak bermatzea, bizikidetzak finkatzeko, justizia eta segurtasuna defendatzeko eta Giza Eskubideak eta horien gauzatze eraginkorra defendatzeko, egoera eta herrialde guztietan.”*

Era berean, kulturak berrikuntzarekin eta garapenarekin duen lotura aitortzen du Kultura eta Sormen Industriak Zientzia eta Berrikuntzaren Euskadiko Plan Estrategikoaren baitan integratu izanak.

Bestalde, Nazio Batuen Batzar Nagusiak 2015eko irailean onartu zuen “Gure mundua eraldatzea: Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda” dokumentua. Agenda horrek 17 helburu (GIH) eta 169 helmuga zehazten ditu, gizateriarentzat garrantzi kritikoa duten bost eremu identifikatzeaz gainera: Pertsonak, Planeta, Oparotasuna, Bakea eta Itunak. Munduko herrialde guztietako politika publikoak modu positiboan lerrotzea eta aitzineratzea da konpromiso programa honen xedea. Euskadik ere bat egin zuen 2030 Agendarekin; eta XII. Legealdiari dagokionez zehazki, “2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programa” izeneko dokumentua da Eusko Jaurlaritzak arlo honetarako duen 2020-2024 jardura plana. Eusko Jaurlaritzak kulturari eman nahi dion garrantzia eta zentralitatea ere jaso eta islatuko da bertan. Izan ere, kulturari eta hizkuntzari lotutako GIH berri bat gehituko dio Euskadik 2030 Agendaren garapenari. Herritarren eta herritasunaren garapenean

kultura ere giltzarri dela aldarrikatuko du, 18. helburua txertatuz horrela bere bide orrian.

Kulturaren Plan Estrategiko honek, halaber, bere egiten ditu Mondiacult 2022an onartutako Kulturaren aldeko Adierazpena, kultura munduko ondasun publikoa dela azpimarratzen duena, eta Kulturarako Europako Agenda Berria (COM/2018/267), zeinaren helburua den kulturaren potentziala erabat aprobetxatzea Europar Batasun integratzaileagoa eta bidezkoagoa eraikitzen laguntzeko, berrikuntza, sormena eta hazkunde eta enplegu jasangarriak sustatuz.



## 1.4.

### MISIOA ETA IKUSPEGIA

---

#### > Misioa

Kultura 2028 Plan Estrategikoaren xedea kulturaren sistema indarberritzea da, krisiaren ondoko susperraldia ahalbidetzea eta gizartearen aldakuntzak dakartzan aukera berriak baliatzea, euskara eta emakumeen eta gizonen berdintasuna bereziki sustatuz, ehun sortzailearekin, kultura industriekin, eragile pribatuekin eta herri erakunde guztiarekin auzolanean, kulturaren sistema bere osotasunean harturik: sorkuntza, ekoizpena, kulturaren eskaintza eta kultura ondarearen transmisioa.

#### > Ikuspegia

2028an Euskadi bere herri garapenean kultura leku zentralean txertatu duen herri bezala ezagutua izango da Europan, sorkuntzarako eta talentua garatzeko eskaintzen dituen aukerengatik, kultura eskaintza oparogatik, ondareari eta hura partekatzeari ematen dion arretagatik, kultura zaleen eta herritarren atxikimenduagatik, erakundeen arteko kooperazioan eta sektorearekiko lankidetzan garatutako politikengatik, kolaborazio publiko-pribatuagatik, kultura, garapena eta berrikuntza uztartzeko strategiengatik, kulturaren jardun guztietan emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatzeko eta bazterkeria egoera oro deusezteko konpromisoagatik, bere hizkuntzari eman dion bizitasuna eta indarrarengatik eta herritasuna eta mundutasuna uztartzen asmatzeagatik.

## 1.5.

### MARKO PROGRAMATIKOA

---

Dokumentu hau lehenagoko zenbait dokumentu estrategikotan oinarritzen da, eta koherentea da dokumentu horietan Eusko Jaurlaritzak eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak adierazi izan dituzten helburu eta bitartekoekin. Konpromiso hauek Bi dokumentutan ageri dira nagusiki: Sailak landu eta aurkeztu zuen “Kultura Plana 2019-2022” dokumentuan eta Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Programan.

2019ko uztailan Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluan aurkeztu zen “Kultura Plana 2019-2022” dokumentua. Eusko Jaurlaritzaren urte horietarako kultura politiken norabidea finkatzen du. Covid-19aren pandemiak, ordea, erabat baldintzatu ditu planaren garapena eta exekuzioa. Osasun larrialdiak eragindako krisiari erantzutea bihurtu zen, nahitaez, xede nagusia.

Aurreko plana ez da, beraz, aurreikusitako bezala burutu bere osotasunean, baina baliagarria izan zen Kultura Sailaren politikak ordenatzeko eta sektorearekin adostutako bideak sendotzeko. Pandemiak lehentasunak berriro definitu beharra ekarri du eta, beraz, plan berri bat lantzeko premia. Plan berri hau, aurrekoan oinarrituta dago baina egoerari egokiturik, susperraldiari eta aldakuntzari erantzun egokiak emateko xedez. Errealitate, arazo eta aukera berriei herri bezala erantzuna emateko Eusko Jaurlaritzaren ekarpena zehazten du Plan Estrategiko honek. Legealdi honetarako plana da, baina hurrengoetarako oinarriak sendotu nahi ditu; Sailaren eta Eusko Jaurlaritzaren konpromisoak biltzen ditu, baina gainerako euskal erakundeekin lantzeko bide orria ere izan nahi luke; plan berri bat da, baina urteotako politikekiko koherentzia eta jarraitutasuna bermatzen ditu.

Bestetik, 2020ko irailean Eusko Legebiltzarreko XII. Legealdiari hasiera eman zitzaion, eta Eusko Jaurlaritzak "Euskadi Martxan" 2020-2024 aldirako Gobernu Programa onartu zuen 2020ko urriaren 13an, eta horixe da datozen lau urteetarako Eusko Jaurlaritzaren jardunerako bide orria. Bertan, Kulturari dagokionez bost konpromiso (eta horiek garatzeko 26 ekinbide) ezarri dira (112-116 konpromisoak):

- 112. Euskadin sorkuntza eta produkzio kulturalak sustatzea, kulturaren arloko euskal sortzaileak, artistak eta profesionalak babestuz, horien lan-baldintzen hobekuntzan eta profesionalizazioan sakonduz.
- 113. Euskadiko eskaintza kulturala indartzea eta konektatzea, euskal gizartearentzat eta nazioarteko publikoarentzat gero eta erakargarriagoa bihurtuz.
- 114. Euskadiko ondare kulturala babestea eta hori nabarmentzea bultzatzea.
- 115. Berrikuntza eta digitalizazioa sustatzea kulturaren.
- 116. Euskararen eta euskal kulturaren nazioarteko presentzia indartzea.

Gobernu Programan finkatutako lau ardatzen artean, II. ardatzaren baitan kokatzen dira kulturari dagozkion konpromiso eta ekinbideak, zeina pertsonen garrantzi zentralari buruzkoa baita:

#### II. Ardatza: Pertsonak.

Osasuna, hezkuntza, zerbitzu publikoak, berdintasuna, gizarte-eta kultura politikak, bizikidetzak eta giza eskubideak.

Pertsonak dira gobernuaren ekintzaren konpromiso politikoaren funtsezko elementua. Pertsonak dira benetan garrantzitsuak, hau da, politika publiko guztien azken xedea. Konpromisoa da osasun- eta hezkuntza zerbitzu publikoak finkatzea eta indartzea eta euskal gizartearen giza garapenean laguntzen duten gizarteetan kultura-politika guztiak bermatzea, bizikidetzak finkatzeko, justizia eta segurtasuna defendatzeko eta Giza Eskubideak eta horien gauzatze eraginkorra defendatzeko, egoera eta herrialde guztietan.

Honez gain, kulturak bere ekarpena egingo dio Gobernu Programaren lehenengo ardatzari ere, zeina susperraldi ekonomikoari baitagokio:

#### I. Ardatza: Oparotasuna.

Enplegua eta susperraldi ekonomikoa.

Premiazkoa da susperraldi ekonomikoaren, enplegua berreskuratzearen eta horren kalitatea hobetzearen alde egiten duen estrategia bat garatzea, COVID-19aren pandemiaren ondorio negatiboak gainditzeko. Industria aurreratuan, inbertsioan, berrikuntzan eta nazioartekotzean oinarritutako susperraldi ekonomikorako eta enplegurako estrategia bat.

Izan ere, ardatz honetako zenbait arlotara zabaltzen da Kultura 2028 Plan Estrategiko honen eragina eta ambizioa. Hala nola, enplegu eta ekonomia alorrera; izan ere, neurri jakinak aurreikusten dira kultura sektorearen profesionalizazioa sustatzeko, kultura arloko profesionalen lan egoera hobetzeko eta haien jardunean lehiakortasuna areagotzeko. Sektorearen profesionaltasuna, kultura industrien enpresa sendotasuna, merkatuaren suspertzea, berrikuntzarako aukerak, kulturak berrikuntzari egin diezaizkiokkeen ekarpenak bereziki garrantzitsuak bilakatu dira egungo egoeran, eta bidelagun dira enpleguaren berreskurapenerako eta susperraldi ekonomikorako ahalegin orokorrean.

Halaber, Gobernu Programan zehatz azaltzen dira sailen, alorren eta erakundeen arteko lankidetzan burutu beharreko konpromisoak:

19. konpromisoa. Espezializazio adimenduna eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Plan Estrategiko berria 2030eko horizontearekin.

3. ekinbidea. Dibertsifikazio ekonomikoa eta teknologikoa planteatzea, Euskadik suspertzen ari diren gaitasunak dituen lau abagune-arlo hauek indartuz: elikadura osasungarria; ekoberrikuntza; hiri jasangarriak eta kultura eta sormen industriak.

40. konpromisoa. Turismo Jasangarrirako Euskal Estrategia berria onestea

1. ekinbidea. "2030 Turismo Jasangarrirako Euskal Estrategia" berria onestea; horrek epe laburrerako agertokia jasoko du, COVID-19aren pandemiak eragindako krisi-egoerari erantzuteko eta enplegua

zein jarduera mantentzeko. Epe ertainerako zein luzerako agertokian, estrategiak COVID-19aren osteko egoera aurreikusi behar du, begirada sektorearen erronka eta joera nagusietan jarrita.

Euskadiko turismoaren jasangarritasunaren aldeko apustua egin behar du eta, gainera, balio behar du interes-talde guztiak sentsibilizatzeko eta kontzientziazteko mugikortasun jasangarriaren eta ondare kulturalaren zein ingurune naturalaren babesaren garrantziaz. Aldi berean, jasangarritasun ekonomikoa eta soziala sustatuko da, tokiko biztanleriak turismoaren onurak baliatzeko.

42. konpromisoa. Euskadi - Basque Country bikaintasuneko norako turistikoa.

5. ekinbidea. Eskaintza turistikoen bikaintasuna sustatzea, hori norakoen dibertsifikazioarekin eta bere berezitasunarekin lotuz eta bestelako eskaintzekin uztartuz: gastronomikoa, enologikoa, kirolekoa eta kulturala. Aurrekoaz gain, familia-, erosketa-, ongizate- eta negozio-turismoarekin uztartuko da. Helburua da bidaiariak eta horien segurtasuna jartzea estrategiaren erdigunean.

67. konpromisoa. Unibertsitatea+Enpresa Estrategia, unibertsitateko prestakuntza duala eta LH+unibertsitatea prestakuntza indartzea.

3. ekinbidea. Unibertsitate-kluster berri bat abiaraztea Kultura eta Sormen Industrien eremuan.

87. konpromisoa. Migrazio-egitatearen aurreko harrera-, integrazio- eta erantzunkidetasun-kultura zibikoa sustatzea eta hedatzea.

5. ekinbidea. Kultura eta Hizkuntza Politika Sailarekin elkarlanean, migratzaileentzako harrera kulturalako planak garatzea, Euskadiko Liburutegi Publikoen Sarearen bidez, zehazki, migratzaileen kolektiborik handienei berezko eduki kulturalak eskainiz.

137. konpromisoa. Euskadiren parte-hartze aktiboa sustatzea proiektu europarrean.

3. ekinbidea. Aktiboki lan egitea euskal parte-hartzea maximizatzeko Europako programa eta proiektuetan, bereziki, Next Generation EU programan eta honekin lotutako programetan: energiaren eta ingurumenaren arloko eraldaketak, eraldaketa teknologiko-digitala eta eraldaketa soziosanitarioa; ikerketaren eremua; ekosistema industrialak; kultura eta prestakuntza, bai unibertsitatekoa, bai lanbide-heziketa.

zehatzez gain, Kultura 2028 Plan Estrategikoak Gobernu mailako beste zenbait plan estrategiko eta sektorialekiko lankidetzak bilatu eta landu du: arestian aipatutako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana (ZTBP) 2030; Euskararen Agenda Estrategikoa 2021-2024; Hezkuntzaren Plan Estrategikoa; Euskadi-Basque Country Estrategia 2025; Turismoaren eta Merkataritzaren Plan Estrategikoa, eta Euskadiko Ekonomia eta Enplegua Suspertzeko Berpiztu Programa 2020-2024 dira nabarmenenak.

Beren-beregi aipatu behar da atal honetan "Euskararen Agenda Estrategikoa 2021-2024", Gobernu Kontseiluak onartua 2021eko azaroaren 2an. Batetik, sail bereko sailburuordetza batek –Hizkuntza Politikarako sailburuordetzak– gidatuko duen plan estrategiko bat izanik, bi sailburuordetzen arteko lankidetzak eta koordinazio estuagatik, eta bestetik, eta bereziki, kulturak eta euskararen normalizazioak elkarren premia dutelako, eta elkarri laguntzen diotelako.

Horregatik, Euskararen Agenda Estrategikoa 2021-2024 dokumentuan ezinbestean aipatzen da kultura, honako puntuetan (konpromisoen atala):

1. konpromisoa. Euskararen ezagutza areagotzea eta, batez ere, euskararen erabilera eragitea gizarte- eta kultura-eremuetan, eremu ekonomikoetan, digitaletan eta sektore publikoan.

1.8. ekimena. Hizkuntza Teknologia Plana onestea eta garatzea eta euskararen presentzia, euskarazko edukien sorkuntza eta horien ingurune digitaleko erabilera sustatzea. (ESZ / HIKZ) <sup>1</sup>

1.8.1. azpi-ekimena. Hizkuntza Teknologien Ekin-tza Plana 2021-2024 garatu eta gizarteratu, bereziki Lehendakaritzarekin (Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana gogoan), Gobernantza Publikoa eta Autogobernua Sailarekin, Teknologiko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Sailburuordetzarekin, Hezkuntza Sailburuordetzarekin, Justizia Sailburu-ordetzarekin eta Kultura Sailburuordetzarekin lankidetzan.

1.8.2. azpi-ekimena. EABko Ingurune Digitala Batzorde-atal Bereziak ingurune digitalerako emandako gomendioak garatu eta gizarteratu, bereziki Gobernantza Publikoa eta Autogobernua Sailarekin, Teknologiko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Sailburuordetzarekin, Hezkuntza Sailburu-

Ildo horretatik, Euskadi Martxan 2020-2024 Gobernu Programako konpromiso eta ekinbide

ordetzarekin, Kultura Sailburuordetzarekin eta EITBekin lankidetzan.

1.10. ekimena. Adostasunetik abiatuta, herritarrei euskara bizitzaren eremu guztietan erabiltzea ahalbidetzen dieten diskurtso positiboak eta gizarte-aktibazioa lantzea. Horretarako, euskararen zeharkakotasuna azpimarratuko da eta Gobernuaren sail eta arlo guztien, sektore publikoaren eta, orokorrean, gizartearen inplikazioan sakonduko da (industria, berdintasuna, lanbide-heziketa, unibertsitatea, merkataritza, turismoa...). Erakunde arteko lankidetzatik lan egingo da. (ESZ / HIKZ)

1.10.4. azpi-ekimena. Gainerako politiketik loturak eta interesguneak identifikatu, lankidetzan aritzeko: Euskadi-Basque Country Estrategia (Lehendakaritza), Gobernantzako eta Berrikuntza Publikoko Plan Estrategikoa (Gobernantza eta Autogobernu Saila), Euskadi 2025 Eraldaketa Digitalerako Estrategia (Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumen Saila), Gazteria Plana (Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila), EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana (Emakunde), Kultura Plan Estrategikoa (Kultura eta Hizkuntza Politika Saila)...

<sup>1</sup> Euskara Sustatzeko Zuzendaritza eta Hizkuntza Ikerketa eta Koordinazioarako Zuzendaritza.

Azkenik, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna Gobernu osoaren eta Plan honen zeharkako helburua den heinean, Plan honek berdintasunaren arloan aintzat hartu dituen erreferentzia markoa, konpromisoak eta dokumentu programatikoak azpimarratu behar dira:

Alde batetik, 2020-2024 Gobernu Programako emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko konpromiso espezifikoak:

93. konpromisoa. Indarkeria matxista desagerraraztea eta emakumezkoen indarkeriarik gabeko gizarte berdinzale bat eraikitzea.

94. konpromisoa. Soldata-arrailaren aurkako txoke-planaren aplikazioa sustatzea.

95. konpromisoa. Balio-aldaketa eta emakume eta nesken ahalduntzea ahalbidetzea.

96. konpromisoa. Sexu-orientazioaren ondoriozko diskriminazioaren aurkako politikak sustatzea.

Bestetik, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko ekimen zehatzak, 2020-2024 Gobernu

Programako kultura politikei dagozkien konpromisoetan:

112. konpromisoa.

7. ekinbidea. Emakumeen ahalduntzea erraztea kultur sorkuntzan eta produkzioan eta imaginario kolektiboaren eraikuntzan egiten duten ekarpenaren garrantzia ikusaraztea, Emakunderekin eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailarekin elkarlanean.

114. konpromisoa.

2. ekinbidea. Ondare ukiezinaren babeseta nabarmentzea artikulatzea, Ondare Kulturalaren Legea garatuz, arretea berezia jarritz emakumeen legatua ikusaraztean eta nabarmentzean.

Hirugarrenik, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana (eta egiten ari diren VIII. Plana), Euskadiko soldata arrakala murrizteko Estrategia eta Ekintza Plan Operatiboa eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana (2022-2024).

Eta, azkenik, bereziki aipatu behar da Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna lortzeko eta Emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko 4/2005 Legea, 2022an aldatu eta eguneratu zena. Lege horrek, gainera, berariaz aipatzen du kultura eremua 25. artikuluan, eta, besteak beste, honako alderdi hauek aipatzen ditu:

Kultura jardueretan sexuagatiko diskriminazioa saihesteko neurriak hartzea; espazio publikoetan emakumeen berdintasunezko parte hartzea oztokatzen edo debekatzen duten kultura jardueren antolakuntza debekatzea; kultura jarduera diskriminatzaileei edo emakumeenganako gorrotoa sustatzen dutenei laguntza publikoak ematea debekatzea; emakumeen eta gizonen berdintasuna eta estereotipoak gainditzea bilatzen duten jardueretan parte hartzea sustatzea; gizarte memoria genero ikuspegitik landu eta berreraikitzea; emakumeek ondareari eta kulturari egiten dioten ekarpena ikusaraztea; arte eta kultura erakusketetan eta ekoizpenetan emakumeek parte har dezaten sustatzeko neurriak hartzea; eta genero ikuspegia integratzea funts publikoen bidez finantzaturako museoetan eta arte zentroetan (hezkuntza programetan, obren erakusketetan eta eskuratzeetan, erakusketetan, erabakiak hartzeko egituren osakeran, etab.).



## 1.6.

### EUROPAKO MARKOA

---

Funtsezko markoa da Europa Euskadirako, Eusko Jaurlaritzaren politiketarako eta, beraz, baita kultura politiketarako ere. Era askotara gauzatzen da Europar Batasunarekin daukagun lotura eta europartasunarekiko konpromisoa, eta ez bakarrik Eusko Jaurlaritzatik eta erakundeetako kultura politiketatik: kulturaren sistema publikoan dauden eragileek ere Europaren aldeko apustua eginga dute, eta europar –edo mundu mailako– elkarrekin partaide dira, hala nola Filmategia, Eresbil (musikaren euskal gordailua), zinemaldiak, museoak, Artxibo Historikoa, etab.

Euskal ikus-entzunezkoen garapena Europako markoan lantzen da. Europa MEDIA, ikus-entzunezkoen sustapenerako Bruselak ondu zuen estrategiarekin bat egin zuen Euskadik hasieratik, eta MEDIA bulego propioa dauka, eragile garrantzitsua izan dena azken hamarkadan euskal profesionalen trebakuntzarako eta egitasmoen garapenerako. Europar Batasunak Creative Europe izeneko egitasmo estrategikoan txertatu zuen gero Europa MEDIA, ikus-entzunezko industriak kultura eta sormen industriaren alor zabalagoan kokatuz.

Kultura eta Sormen Industriak, hau da, beren helburu kulturalerako jardun ekonomikoa behar dutenak eta bere helburu ekonomikorako jardun sortzailea behar dutenak, sektore bakarrean bateratzea estrategikotzat jotzen du Europar Batasunak, berrikuntzarako eta garapenerako ezinbestekoa dela aldarrikatuz, eta eskualdeen garapenean txertatzeko gomendioa egiten du Bruselak, haren sustapenaren ardurak lekuan lekuko Kultura Sailekin batera Garapen Ekonomikorako Sailek har dezatela eskatuz. Hala egin du Euskadik: KSlen alorra Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren (ZTBP) barruan dago, RIS3ren alorretako bat da, eta Kulturak, SPRIk eta Innobasquek elkarlanean garatu dituzte tresna berriak, Europako gomendioekin eta eskakizunekin koherentzian.

Europar markoan dihardu, baita ere, Etxepare Institutuak, eta EUNIC (European Union National Institutes for Culture) elkarteko kide bilakatu da. Europar eredu hartu du oinarri, halaber, prozeduretan eta protokoloetan Euskarianak, euskal kulturaren biltegi digital nagusia Europako liburutegi digitalaren partaide izan dadin, eta harekin –Europeanarekin– lotura egiteko gune nagusia.

Europar politikekiko bateratasuna areagotu egingo da hurrengo urteetan. Covid-19 pandemiaren ondoko biziberritzeari eta indarberritzeari begira Europar Batasunak proposatu dituen neurri estrategikoek kulturaren garrantzia azpimarratu dute. Beren-beregi aldarrikatu dute, Europar presidentziatik bertatik, Next Generation EU egitasmoa ez dela soilik ingurumenari eta ekonomiari lotua, kulturarako ere egitasmo berria eta berritzailea ere izan behar duela. Hortik sortu da New Bauhaus egitasmoa, artearen, kulturaren, gizarte inklusioaren, zientziaren eta teknologiaren gurutzaketaz etorkizuneko bizimoduak diseinatzeko markoa. Bereziki hartzen ditu kontuan dimentsio materialaz haragoko esperientzia aberasgarriak, sormena, artea eta kultura iturburu dutenak. Euskadik parte hartuko du New Bauhaus abian jartzeko prozesuan.

Ezin aipatu gabe utzi Eusko Jaurlaritzaren Bruselako bulegoaren lan bikaina Euskadi europar dinamiketan txertatzeko ahalegin etengabea. Bruselako bulegoaren laguntza erabakigarria izan bada orain arte, areago izango da hurrengo urteetan, nazioartekotasuna eta europartasuna indartzea eskatzen duten garaiotan.







2.

**EGOERAREN  
DIAGNOSIA**

## 2.1.

### TESTUINGURU SOZIAL ETA KULTURAL OROKORRA

Bizitzaren alderdi guztietan gertatzen ari diren aldakuntza sakonak bost alorretan laburbil genitzake: mundializazioa, eraldaketa digitala, kulturaren balio sozio-ekonomikoa, klima larrialdia eta feminismoaren aurrerapena.

Bost-bostek jartzen dituzte zalantzan orain arteko bizimoldeak, eta fenomeno horien garapen gero eta bizkorragoak bete-betean sartu gaitu ingurune aldakor batean, non ziurgabetasuna kudeatzeak eta etengabe egokitzeko gai izateak erabateko garrantzia hartu duten.

Kultura tresna funtsezkoa da aldakuntza gero eta bizkorragoen eta sakonagoen garaiotan, norbanakoek, gizataldeek eta herriek bere burua birkokatzeke eta etengabe egokitzeko. Kultura ezinbesteko lanabesa da bizitzari zentzua emateko, egoera berriei kritikoki aurre egiteko, norberaren autonomia eraikitzeke, justiziaren eta berdintasunaren balioetan sakontzeke, aldaketak ulertzeke eta haien aurreko jarrerak lantzeke.

Kultura edukiek balioak, edukiak eta zentzua bideratzen dituzte, eragiten dute norberaren eta gizataldeen iruditerian, eta identitate gero eta konplexuagoen osaketan. Kultura praktikek harreman sozialak eta gizarte kohesioa sustatzen dituzte.

Kultura lanbide eta jardun ekonomikoa da gainera, eta gero eta lotuagoa dago garapenarekin eta berrikuntzarekin. Harreman berezia du kulturak turismoarekin, kultura osagai garrantzitsua da kalitatezko turismoan. Baina gero eta garrantzi handiagoko sektore ekonomikoa izateaz gain, kultura herri erronka bat da, komunitate politiko eta kultural baten etorkizunerako eta jarraitutasunerako erabakigarria.

## > Mundializazioa

Mundializazioak maila guztietako eskala aldaketa dakar. Planeta osoaren interkonexioak, nagusiki teknologia informatikoez bideratua, interdependentzia ekarri du berarekin. Ekonomia eta geopolitika planetaren mailan erabakitzen dira, eragile berriek astindu egin dute Mendebalde zuriaren hegemonia. Errusiak Ukraina inbadituz piztu duen gerrak eta energia alorrean horrek ekarri duen krisiak ere mundu mailako interdependentzia nabarmendu dute. Eta aldi berean, Europar Batasunarekiko konpromisoaren beharra azpimarratu dute.

Globalizazioak, forma ekonomiko eta merkataria hartu badu ere, planeta bereko eta mundu bereko izatearen kontzientzia aldatu du, mundu mailako ardura eta erantzukizuna ageriko egin ditu, ingurugiroaren zaintzak eta XXI. mendea eraldatzen ari den migrazio masiboen fenomenoak nabarmentzen dutenez.

Mundializazioa aukera bat da, gogoeta kritikorako alor berriak, sorkuntzarako eremu eta premia berriak, eta kulturen arteko harreman eta elkarrizketa berriak ahalbidetzen dituen neurrian. Eta itzulezinezko prozesua da, gainera, Covid-19ak, erantzun globalak eskatu dituen pandemia globalak, batetik, eta planetaren hondamendiaren ebidentziak, bestetik, argi erakusten dutenez.

Mundializazioak dakarren eskala aldaketak gurea bezalako herri eta nazio txikien etorkizuna birpentsatu beharra dakar, estrategia berriak bideratu beharra, herri bezala, komunitate kultural eta politiko bezala, jarraitutasuna bermatu ahal izateko. Eskala aldaketak are gehiago eragiten die, gurea bezala, hizkuntza berezia duten nazioei, globala bilakatu den harremanean hizkuntza globalen boterea sendotu egin baita, hizkuntza aniztasuna sustatzeko eta bermatzeko ahalegina indarberritzea eskatuz.

Nazio txikiak argiago dutelako batera jardun beharra, aniztasuna eta giza garapena aldarrikatzeko eremua eskaintzen dutelako, guk munduan joko dezakegun papera Europaren etorkizunari dago ezinbestean lotua, gainerako alorretan bezala, kulturen. Europa da munduan egoteko gure oinarriker sendoena.

Munduan egoteak munduan eragitea esan nahi du, nazioarteko dialogoan aktore izatea, eta ez ikusle soil: kultura sortzen duen herri bat izatea, bere historiatik, bere kulturatik eta bizimoldeetatik abiatuta, eta ez, hutsik, produktu globalen kontsumitzailea. Norberarenetik abiatuta unibertsa izateko gaitasuna lantzea da erronka. Bide horretan aurrera egiteko, ezinbestekoak dira herri borondatea, herritarren kulturarekiko atxikimendua eta komunitate kultural sendoa, munduari irekia baina aldi berean errotua.

## > Eraldaketa digitala

Eraldaketa digitala errotik aldatzen ari da bizimoduak eta ohiturak, pertsonen arteko harremanak, ondasunen produkzio eta banakuntza moldeak, aisialdia, heziketara eta informaziora heltzeko bideak.

Lankidetzak eta harreman sareak ehuntzeko eta zabaltzeko aukerak dakartza mundu digitalak, eskala globalean eta eskala lokalean, eta molde berri bateko erabiltzaileak sortu ditu: produktua baino gehiago sarbidea erosten duten kontsumitzaileak, eta kontsumitzaile huts izatetik harago, edukien sortzaile bilakatzen direnak. Prozesu bizkor eta indartsua da, adimen artifizialaren eta makina adimendunen garapenarekin batera, gizakion eta gizartearen bizitza sakonki aldatzen ari dena. Eraldaketa digitalak, erronka gisa eta aukera gisa, ezinbestean behar du zentrala izan politika publikoetan.

Aro digitalak sakon astindu ditu informaziora eta ezagutzara heltzeko moldeak, kultura edukien ekoizpenerako eta hedapenerako prozesuak eta, batez ere, kultura produktuen kontsumitzeko, gozatzeko eta erabiltzeko moduak. Hartzailea sortzaile ere bilakatu da, kulturaren alor guztiak nahasian daude eskura, kultura adierazpen berriak –edo hibridoak– ugaltzen dira. Ez dituzte jada ezagutzaren eta kulturaren erakundeek edota inguru espezializatuek kultura emaitzak balioesten eta gomendatzen, ez haien gaineko erabakiak hartzen, korporazio global pribatuek baizik, haiek kontrolatzen baitute informazioaren eta ondasun kulturalen zabalkundea.

Tokian tokiko komunitate kultural eta politikoei beren kultura emaitzak nazioarteko sare globalean txertatzen ahalegindu behar dute, baina erabakigarria zera da: komunitate horiek ahalmen propioak indartzea beren kultura adierazpenak balioesteko, balioztatzeko, zabaltzeko, gomendatzeko eta ikusgai egiteko.

Kultura ondareari ere zuzenean eragiten dio eraldaketa digitalak. Ezinbestekoa da kulturaren datuak eta edukiak digitalizatzea eta eskuragarri jartzea, liburutegi, agiritegi, eraikin, leku, museoetan. Logika digitalak landu behar dira, lankidetzak, partekatzea eta elkarlanean egindako sorkuntza ardatz hartuta. Teknologia digitalak garatu behar dira, ahalegin berezia eginaz hizkuntza teknologietan. Teknologia digitalek, gainera, ondarea ezagutzeko eta ondarearen esperientzia birtualak moldatzeko aukera ematen dute.

Era berean, teknologia digitalek zerbitzuen erabiltzaileen edo kontsumitzaileen ezagutza sakon eta berehalakoa ahalbidetzen dute. Datuak egoki erabiltzea eta ikuspegi publikoak kudeatzea erronka saihestezina izango da, hurrengo urteotan, erakundeontzat.

## > Kulturaren balio sozio-ekonomikoa

Kultura produktu eta zerbitzuak merkatu balioa duten ondasunak dira, eta haien sorkuntzak, ekoizpenak eta hedapenak gorantz datorren sektore ekonomikoa osatzen dute. Kultura industrien sendotasuna, lehiakortasuna eta merkatuetara heltzeko gaitasuna etengabe landu beharra dago, kontsumitzaileen ohitura aldaketei erantzun egokiak emanaz. Nazioarteko merkatuetan lehiatu beharra dago, kultura industrien eta sortzaileen biziraupenerako ezinbestekoa baita. Baina barne kontsumoa da muina, euskal kulturarekiko atxikimendua eta interesa sendotzea eskatzen duena, euskal kultura produkzioaren ikusgaitasuna areagotuz aurrenik.

Jardun profesionalen oinarritzen da sektore ekonomikoa hori, eta beraz, lanbide bat ere bada,

askotarikoa, aberatsa baina zaugarria, talentua eta ekimena exijitzen dituena. Talentu sortzailea sustatzea eta hari bide ematea da kultura politiken xede nagusietako bat. Giltzarri da, baita ere, kultura indusriantzat, talentu sortzailea baitute kultura indusriek lehengai. Sormen gaitasunak daude, baita ere, sormen indusrien jardunaren muinean (diseinua, arkitektura, publizitatea, moda, gastronomia, teknologia...). Kultura eta sormen indusriak oso gertuko alorrek dira, xedearan arabera bereizi daitezkeenak: kultura indusriek onura ekonomikoa behar dute kultura asmoei eusteko; sormen indusriek sorkuntza gaitasunak behar dituzte onura ekonomikoa lortzeko. Kultura indusriak eta sormen indusriak sektore bakar batean biltzeak indar metaketa dakar, ageriagoko egiten ditu sektorearen pisu ekonomiko nahiz laborala eta berrikuntzan duen eragina, eragileen artean barne gurutzaketak sustatzen ditu, gainerako sektoreekin egitasmo eta praktika gurutzatuak erraztuz. Munduan oro har, eta Europar zehazki, KSlen inguruko politika espezifikoa eta partekatua –kultura eta garapen ekonomikorako politiketatik kudeatua– bultzatzen dira.

KSlen sektoreaz harago, sormena, berritasuna eta komunikazioa balio oinarritzaileak ari dira gertatzen indusriaren eta jardun ekonomikoaren alor guztietan. Oraintsu arte kultura balioak zirenak, irudimena, sormena, komunikazioa, ziurgabetasunari aurre egiteko gaitasuna, beharrezkoak dira indusria eta zerbitzu gero eta gehiagotan, ekonomia kreatiboa edo sortzailea esaten zaion horretan. Sormen eta komunikazio ahalmenak lantzea beharrezkoa du ekonomian ere aurreratua izan nahi duen gizarteak.

Sektore ekonomiko zehatza izanik ere, merkatu izanik ere, sorkuntza eta kulturgintza ezin dira bere balio merkantil hutsez neurtu. Euskadiko –eta Europako– kultura politiken ardatz dira sorkuntza libre eta askotarikoa ahalbidetzea, kultura eskaintza oparo eta anitza ahalbidetzea, komunitatearen ondarea zaintzea, partekatzea eta transmititzea. Baina berezko balio kulturalak gainera, kulturaren ondasunak eta kulturaren lanabesak gizarte guztia eskuz jartzea berdintasun eta kohesio sozialaren aldeko apustua da. Kapital kulturala bereganatzeko eta baliatzeko ahalmenaren desorekak estuki lotuak daude desoreka sozialekin. Bizitzarako eta, gero eta gehiago, lanerako ezinbesteko diren oinarritzaile lanabes kulturalen eta trebetasun

digitalen gabeziak markatuko du bazterketa soziala.

Merkatu ere izanik, merkatuaz harago doa kultura, aldi berean lanbide, jardun pribatu eta ondasun publiko.

## > Klima larrialdia

Ingurumena lehen mailako kezka bihurtu da, baliabide naturalen neurritz gainera ustiatutaren ondorioz ingurumenaren hondamendia ukazina bilakatu den heinean. Iraunkortasunarekiko arduraren larriagotzeak ekoizpen sistemak auzitan jartzea ekarri du, lehengai berrien ikerketa bultzatzea, kalte ekologikoa apaltzeko edo neutralizatzeko, ohitura sozialak eta kontsumo moldeak aldatzea, gizartearen garapenari iraunkortasunaren, birziklatzearen eta berrera-bilpenaren paradigmatik erantzuteko premia. Atzera ezineko erroka da ingurumenaren zaintza, gizartearen alor guztietatik eta baliabide publiko guztietatik erantzun behar zaiona.

Ingurumenari buruzko kezkaren larritzeak orain arte nagusi izan diren produkzio eta kontsumo moldeak kritikoki aztertzea dakar, bizitza parametro jasangarrietan irudikatzea, iruditeria berria sortzea. Kontzientziak suspertzeko eta astintzeko zereginean, balioak eta ikuspegiak lantzeko ahaleginean, kultura eta kultura produktuak erabakigarriak dira.

Baina, edukietan bezainbat, jardunean txertatu behar dituzte kulturaren arlo guztiek, balio kate guztian, naturarekiko errespetua eta jasangarritasuna. Kulturaren ekoizpenek eta kultura antolamenduek –museo, jaialdi, orkestra, agiritegi, biltegiak...– konpromisoa hartu behar dute bere jarduna garbiagoa eta naturarekiko egokiagoa izan dadin.

## > Emakumeen eta gizonen berdintasuna

Feminismoa XX. mendearen azken erdiko eta XXI. mende osoko iraultzarik sakonenetakoa da. Bere lorpenak pixkanaka hedatzen joan dira, ez bakarrik maila sozialean, baita erakundeetan ere, legeak onartuz eta emakumeen eskubideak babesten dituzten eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak sustatzen dituzten egiturak sortuz. Panorama politiko, sozial eta instituzional berri horrek aldaketa sozial sakonak dakartza arlo guztietan: hezkuntzan, lanean, osasunean, ekonomian, eta, nola ez, baita kulturaren ere.

Emakumeen eta gizonen berdintasunean aitzineratzeak munduaren ikuspegia aldatzea eskatzen du, mentalitateak eta balioak aldatzea. Praktika kulturelez mintzo gara, beraz, emakumeen ahotsa balio berriak eraikitzen eta eztabaidatzen ari dela esaten dugunean, kontzeptu, irudi eta kontakizun berriak sortzen ari dela, auzitan jarri balio, hizkera, errepresentazio eta iruditeria zaharrak.

Emakumeak behar dira sorkuntzan eta balio kate osoaren ardura postuetan, lan aukeren eta lan baldintzen aldetik genero berdintasuna bermatuz. Eskubidea dutelako, eta emakumeen ikuspuntua ezinbestekoa duelako gizarteak. Ingurune globalean emakumeentzako atzerapauso dramatikoak gertatzen ari diren honetan, ozen aldarrikatu behar da gizarteak, munduak, behar-beharrezko dituela emakumeen begia, emakumeek sortutako iruditeria eta imaginarioa.





## 2.2.

### KULTURAREN EGOERA

Kultura sektorea gogor astindu duten bi krisiren arteko epea izan da hamarkada hau. 2010eko finantza krisiak eta 2020ko osasun krisiak kulturaren ekosistema osatzen duten elementu guztiak astindu dituzte –museo, liburutegi, jaialdi, kultura antolamendu, agertokiak, etab.–, baina kalterik handiena sortzaileek jasan dute, artistek, kulturako profesionalek eta enpresek.


Nolanahi ere, segidan ikusiko denez, argi-ilunekin bada ere, kultura ekosistema bizia eta indartsua dugu Euskadin, sortzaileen eta ekoizleen ekimenari eta talentuari, herritarren atxikimenduari, ekimen pribatuak –enpresa, elkarte zein fundazioak– kulturari eskaintzen dion laguntzari eta, jakina, erakunde publikoen konpromisoari esker.

#### > Kultura eredu mistoa: arlo publikoaren eta pribatuaren osagarritasuna

Eremu pribatuaren eta publikoaren lankidetzan eta osagarritasunean oinarritua dago Euskadin daukagun eta ondo zaindu behar genukeen eredu. Alor pribatua eta merkatuaren lehian dihardute autonomoek, enpresek, kultura industriek. Alor pribatukoak dira, baita ere, enpresa, elkarte eta fundazioak, kultura ahalbidetzen laguntzen dutenak. Beste euskarria eremu publikoa da: herri erakundeak alde batetik, Gobernuak, Foru Aldundiak eta Udalak, eta kultura antolamenduen eremu publikoa bestetik, museo, antzoki, liburutegi, jaialdi eta abar.

Nabaria da datuetan bi eremu horien arteko oreka. Eragile pribatuak gehiago dira, enplegua ere gehiago sortzen dute, gastu eta sarreratan parean daude ia.

#### Diru sarrerak, gastuak, guztizko langileak eta agenteak, titulartasunaren arabera



Taula honetatik kanpo geratzen da jardun nagusia kultura ez duten enpresek eta fundazioek kulturari ematen dioten babesa, ezinbestezkoa dena erakustokiek, kontzertuek, museoek, jaialdiek edota agiritegiek bizirik jarrai dezaten. Finantzaketa pribatuaren ekarpenak daukan garrantziagatik garatu behar dira politika fiskal supertzaileak.

#### > Sektore publikoaren garrantzia

Esparru publikoak kulturaren duen pisua funtsezko datua da kulturaren sistema ulertzeko. Kultura ondasun publikotzat duela adierazten du kulturaren eremu publiko sendoa duen herriak. Kulturaren ekimen publikoa, herri erakundeetatik ez ezik, eremu publikoko antolamenduetatik egiten da, bertako profesionalen lankidetzaz. Erakunde politikoaren eta erakunde kulturalen arteko gertutasuna eta osagarritasuna giltzarri dira, beraz, kultura politika eraginkor baterako.

Harreman publiko-pribatua modu berezian gauzatzen da azpisistema bakoitzean. Sorkuntzan eta ekoizpenean ahalegin pribatua da nagusi, eta politika publikoak horren osagarri eta bideratzaile dira. Eskaintzaren azpisisteman, bien arteko oreka ematen da: eremu publikoak garrantzi handia dauka azpiegiturei eta agente programatzaileei dagokienez, baina eragile pribatuen ekarpena funtsezkoa da promozioan, ekoizpenean eta kultura eskaintzan, batez ere

artearen, musikaren eta zinemaren alorretan. Azpiegitura publikoen eskaintza ahalbidetzeko, gainera, ezinbestekoa da finantzaketa pribatuaren lankidetzak. Memoriaren azpisistema eremu publikoan oinarritzen da gehienbat, baina ondarearen zaintzak nahitaezkoa du jabetza pribatuaren ardura partekatua.

Pandemiak nabarmenago egin du eremu publikoaren premia. Sostengu publikorik gabeko herrialdeetan pandemiaren eraginak izugarriak izan dira, museo, antzoki, eta agente kulturalen biziraupena zalantza larrian jartzera. Kulturaren eremu publiko sendoa berriz, antolamenduen jarraitutasuna bermatzeaz gain, tresna paregabea gertatu da, krisiaren unerik gogorrenetan, jardun pribatuaren, eta batez ere sortzaileen biziraupena sustatzeko eta laguntzeko, lan enkarguak eginez, bertako sortzaileen programazioa indartuz, publikoak zainduz.

Alorrez alor ikus daiteke esparru publikoaren eragina:

Ikus-entzunezkoen alorrean EITB, euskal irrati telebista publikoa, euskal ekoizpenaren euskarri eta sustatzaile nagusia da, eta hala izango da aurrerantzean ere. Eremu publikoak erantzuten dio baita ere alor honetako hezkuntzari, unibertsitateetan, eta profesionalen etengabeko trebakuntzari, berriz, zerbitzu espezializatuen bidez (Europa MEDIA, Zineuskadi, etab.). Udalen ardurapekoak dira filmaketak erakartzeko eta ahalbidetzeko Film Commission izeneko antolamenduak. Eremu publikotik kudeatzen da, baita ere, film laburrak atzerrian zabaltzeko Kimuak programa arrakastatsua. Donostiako Nazioarteko Zinemaldiak (SSIFF) eta nazioarteko zinemaldi espezializatuek (Zinebi, Mendifilm, etab.) finantzaketa mistoa dute: ahalegin publikoan oinarritzen dira, baina ezinbestekoa dute ekarpen pribatua. Eremu publikotik dinamizatzen dira gainerako zinemaldi espezializatuak, hala nola Giza Eskubideen, Beldurrezko Zinemaren edo animazioaren ingurukoak. Euskal Ikus-entzunezkoaren memoria Euskadiko Filmategiak eta EITBk gordetzen dute, biak ere esparru publikokoak.

Liburutegi publikoak hirurehunetik gora dira EAEn, eta funtsezko erramintak dira kultura gizarteratzeko eta guztien eskura jartzeko ahaleginean. Liburutegi guztien % 83 dira publikoak. Besteak erakunde pribatuen eta

norbanako pribatuen jabetza dira. 286 liburutegi daude Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean, funtsean udalen ardurapekoak. Bazkide karnetak, katalogazio lanak eta liburutegien arteko mailegua partekatzen dituzte. Guztien artean, 2021. urtean 6,7 milioi titulu eskaintzen zituzten, eta 920.149 erabiltzaileri ematen zioten zerbitzua. Liburuak sortzeko, banatzeko eta saltzeko sistema, aldiz, pribatua da. Liburutegien sisteman, jauzi digitala abian da azken urteotan, liburutegi publiko digitalak eraiki baititu Eusko Jaurlaritzak. eLiburutegia, irakurketa publikorako liburutegi digitala, liburutegi sarearekin lankidetzan eraiki da eta, beraz, Euskadiko udalen adostasunez. Erabakigarria izan da liburutegiaren sarea osatzeko –Euskadiko udal liburutegi guztiak daude orain sarean– eta zabaltzeko (Aldundietako liburutegiak, etab.). Euskariana ere, liburutegi nazional digitala, liburutegi, agiritegi eta gordailu guztiekin lankidetzan eraikitzen ari da. Liburutegi publikoen sarea euskal produkzioaren erosle garrantzitsua da eta tresna erabakigarria da irakurleengana hurbiltzeko orduan, preskripzioaren, liburu aurkezpenen, irakurle taldeen eta literatura jaialdien bidez.

Eszenako arteetan, nabaria da antzokien publikotasuna, % 85,3 publikoa baita. Udalen jabetzakoak izan ohi dira. Eusko Jaurlaritzari dagokio haien arteko elkarlana eta koordinazioa sustatzea, Sarea izeneko antolamenduaren bidez. Goi-mailako arte dramatiko eta dantza ikasketak Dantzertin egin daitezke, hezkuntza sistema publikoaren baitan dagoen zentroa. Programazioaren bidez, hau da, obrak taularatzeko aukerak emanez, sustatzen dute sorkuntza antzoki publikoek, Euskadiko Antzoki Sarean koordinaturik. Obraren ekoizpena ontzeko baliabideak eskaintzen dira Harrobia eta Sarobe antolamenduetan, eta Gipuzkoako Dantza Etxeak eragin oso positiboa izan du dantzaren alorrean. Antzerkigile gazteen eta proposamen berritzaileen lehen urratsak Pabellón 6k ahalbidetzen ditu. Antzoki nagusiek bakarrik ekoitz ditzakete obra berriak, eta horien artean Bilboko Arriaga antzokia da aitzindari. Hiru hiriburu-tako antzoki publikoek elkarlana bultzatzen ari dira orain herri erakundeak, sare publikoak sorkuntza berriari egiten dion ekarpena areagotzeko asmoz.

Musikaren alorrean, eta musika “klasikoa” esaten zaion eremuan bereziki, eremu publikoak bermatzen ditu hezkuntza, trebakuntza, jardun profesionala, eskaintza eta transmisioa. Hezkun-

tza eta trebakuntzarako, egitura publiko oso bat dago, oinarritzko ikasketetatik hasi eta goi mailako jardun profesionaleraino doana. Eskaintzaren alorrean, goi mailako jardun profesionala duten orkestra publikoak dira erreferenteak: Euskadiko Orkestra (EO), Euskal Herri guztian programatzen duena, eta Bilboko Orkestra Sinfonikoa (BOS), jadanik mendeurrena ospatu duena, gure herrian orkestra musikalak duen tradizioaren adierazle garbia, Bizkaian eragin handia duena. Jaialdiak ere garrantzitsuak dira, musikaren eskaintzan duten eraginagatik eta garapen profesionalerako aukerak eskaintzen dituztelako bertako sortzaileentzat: Musika Hamabostaldia, Musika-Música zikloa, Musikaste, edo ABAOren opera denboraldia (pribatua da izatez, baina finantzaketa eredu mistoa du). Memoriari eta transmisioari dagokionez, Eresbil da eragile nagusia, euskal musikaren memoria jaso, gorde, aztertu eta gizarteratzen baitu; herri erakundearen ardurapekoa da Eresbil ere.

Bestelako musiketan –herri musika, musika herrikoiak, jaza, bertsolaritza, etab.– ekimen pribatua da nagusi. Alor honetan ere sortzaileek jardun ekonomiko pribatua dute, merkatuari lotua, eta haien lanaren hedapena egiten duten promotore eta aretoak ere pribatuak dira gehienbat. Hala ere, programatzaile publikoak erabakigarriak dira, udal aretoetan, jaialdietan eta herrietako jaietan ematen delako jardunaren alderdi oso garrantzitsua.

Arte bisualen alorrean, ikasketarako gune nagusia unibertsitate publikoa da –Euskal Herriko Unibertsitatea–, Arte Ederren eta Arte Historiaren Fakultateak, batikbat. Etengabekotrebakuntzarako eta karrera profesionala garatzeko aukerak eskaintzeaz ere arduratzen da eremu publikoa, sorkuntzarako zentroen ahaleginaren bitartez, batez ere (Tabakalera, Bilbo Arte, baita Azkuna Zentroa ere,...). Museoetan, jabetza publikoko eta pribatukoak orekatu egiten dira ia. Erabat publikoak direnak, beren finantzazio guztia edo gehiena erakunde publikoei dagokielako (Artium Museoa, San Telmo Museoa, Arabako Arte Eder Museoa...), %41a dira. Erabat pribatuak direnak (Chillida-Leku, Aquarium, etab.) eta ekarpen pribatuak duen garrantziagatik nortasun juridiko pribatua dutenak, baina oinarrian ekarpen publikoa dutenak, egoitzak nola bildumak jabetza publikokoak direlarik (Guggenheim Bilbao, Bilboko Arte Eder Museoa...), guztira, %48 dira. Juridikoki izaera mistoa dutenak %11. Erakusketa areto garrantzitsu batzuk fundazio

pribatuaren ardurapekoak dira (BBK; Kutxa; Vital, etab.), eta beste batzuk publikoak, udalen edo Foru Aldundien ardurapekoak (Rekalde, KM, Montehermoso, etab.). Arte galeriak pribatuak dira, berez. Artearen alorrean nabarmena da, beraz, lankidetzaren publiko-pribatua. Publikoaren eta pribatuaren harreman estuari esker eratzen joan den panorama horretan urrats garrantzitsuak da sistema bezala funtzionatzea, elkarrekiko berezitasuna eta osagarritasuna eta guztien koordinazio eta kolaborazioa bilatuz.

Pisu handiagoa du eremu publikoak memoria biziaren edo kultura ondarearen alorrean. Ondarearen zaintza ondo egituratuta dago, herri erakunde bakoitzaren eskumenak eta eginkizunak argi dauden neurrian. Ondare higikorren gordailuak ere erakundearen ardurak dira, eredu berritzaileak ere eremu publikotik ari dira lantzen, Gipuzkoako Gordailua, adibidez. Agiritegiei dagokionez, Eusko Jaurlaritzak arduratzen da Euskadiko Artxibo Historikoz, baina Foru Aldundiek eta udalek nork bere agiritegia kudeatzen du. Horien arteko interkonektibitatea lantzen ari dira orain erakundeak. Horrez gain, Elizaren artxiboak aipatu behar dira, errolda zibilak indarrean jarri arteko informazio iturri ezinbestekoak baitira, eta oro har eremu pribatuko artxiboak, norbanakoenak, bildumagileenak edo elkargo eta enpresenak.

Ondare lekuak babestea eta gizaritari zabaltzea, ondare diren neurrian, herri erakundearen ardurapeko jardunak dira, eta, hortaz, esparru publikoak zaintzen ditu (Añanako Gatzagak, Gasteizko Santa Maria katedrala, Iruña-Veleia, Gaztelugatxe...).

Ekimen publikoak kulturari ematen dion sostengu hori, neurri handi batean, urtez urteko aurrekontu eta inbertsioen bitartez egiten da, erakunde guztien ekarpen ekonomikoekin. Hasieran esan den bezala, Lurralde Historikoen Legeak hala aginduta, kulturaren eskumena banatuta dago euskal erakundearen artean. Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek eta Udalek daukate kultura politiken ardurak –hiriburuek bereziki–, baita haiei dagokien inbertsio ekonomikoarena ere. Komeni da, beraz, kulturaren egiten den inbertsio publikoaren irudi osoa ematea. 2020ko datuen arabera, hau da erakundearen arteko banaketa, kulturari zuzendutako aurrekontuei dagokionez:

**JATORRIAN KONTSOLIDATUTAKO KULTURA-GASTUA,  
ADMINISTRAZIO MAILEN ARABERA (eurotan). 2020**

<b>Eusko Jaurlaritza</b>	<b>82.713.633</b>	<b>%21,7</b>
<b>Foru Aldundiak</b>	<b>79.588.156</b>	<b>%20,9</b>
<b>Udalak</b>	<b>219.022.399</b>	<b>%57,4</b>
<b>EAE guztira</b>	<b>381.324.187</b> <small>(173,4€/biztanleko)</small>	<b>%100</b>

Finantzaketaren banaketa honek agerian uzten du kultura politikak partekatuak direla gobernantzan eta finantzaketari dagokionez, eta beharrezkoa dela guztien ekarpena egungo Euskadiko kultura ekosistema sostengatzeko eta elikatzen jarraitzeko.

Eusko Jaurlaritzari dagokionez, Kultura Sailburuordetzak kudeatzen du kultura politiketara zuzentzen denaren zatirik handiena, sailburuordetza honi baitagokio kultura politiken lidergoa eta sustapena Eusko Jaurlaritzaren baitan. Horrela, honako hau izan da azken urteetan Kultura Sailburuordetzaren aurrekontu likidatuaren bilakaera:

	<b>2017</b>	<b>2018</b>	<b>2019</b>	<b>2020</b>	<b>2021</b>
<b>Kultura Sailburuordetza</b>	<b>52.237.693</b>	<b>55.409.154</b>	<b>56.176.024</b>	<b>60.717.455</b>	<b>68.035.572</b>

Agerikoa izan da azken bost urteetan Kultura Sailburuordetzaren aurrekontuen gorakada, eta nabarmentzekoa da, halaber, 2020 eta 2021 urteetako hazkundera Covid-19aren pandemiak eragindako krisi bete-betean. Kultura Sailburuordetzaren aurrekontuaren hazkunde horrekin eman zaie erantzuna Covid-19ak sektorean eragindako kalteei, eta finkatzen hasi ahal izan dira kultura arloko susperraldirako oinarriak ere.

Alor pribatuaren eta publikoaren artean, bada zenbait erakunde berezi, historikoki, eremu publikoaren eginkizunak bete dituenak. Ekarpen izugarria egin diote eta egiten diote herri kulturaren ezagutzari, euskal gizartearen inguruko gogoeta kritikoari, historiaren eta historiaurrearen azterketari, euskal kultura lantzeari, eta zientzia eta kultura uztartzeari. Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak, Eusko Ikaskuntza, Aranzadi edo Jakiunde gure kultura panoramaren osagai garrantzitsuak eta bereziak dira, pribatuak baina aldi berean herri helburuak lantzen dituztenak, egitura profesional urrikoak, baina auzolana eratzeko eta borondatezko lankide bikain ugari biltzeko gai direnak.

## > Ekimen pribatuaren garrantzia

Sortzaileen ehun bizia eta kultura industria sendoa nahitaezkoak ditu kultura sistema osasuntsu batek. Profesionalen bikaintasuna eta enpresen sendotasuna kulturaren alderdi guztietan dira beharrezkoak, sorkuntzan eta ekoizpenean, kultura eskaintzan eta memoriaren transmisioan. Alor horietan guztietan ekimen pribatua sustatzea eta ahalbidetzea kultura politiken eginkizun bazterrezina da.

## Eragileak eta enpresak

2010. urtean, 7.568 enpresa zeuden kulturaren alorrean, eta 8.452 sormen industrietan. Guztira, kultura eta sormen industrien alorrean 16.020 enpresa zeuden 2010ean, eta 16.886 daude 2020an. Hamarkada baten buruan % 5,4 igo da, beraz, enpresen kopurua.

Euskadiko enpresen kopuru osoarekiko, kultura industrien pisua % 4,6 da, eta % 8,7 sormen industriena. Kultura eta Sormen Industrien alorra enpresen kopuru osoaren % 11,0 da. 100.000 biztanleko 325 enpresa dago kulturaren alorrean, eta 442,6 sormen industrietan; guztira, 767,6koa da ratio hau Euskadin.

Zuzeneko kulturak duen pisua kontuan hartuta, hobeto ulertzen da osasun larrialdiak gure kultura sisteman izan duen eragin negatiboaren dimentsioa. Nahiz eta kultura berregingarriak pisu handiagoa duen kultura industrien fakturazioan (278 milioi euro 2019an), zuzeneko kulturaren fakturazioak (171,2 milioi) hazkunde nabarmena izan zuen 2015tik 2019ra, % 20,85 igo baitzen; aldi berean, % 3,23 igo zen kultura berregingarriaren fakturazioa. Covid-19ak eten zuen hazkunde hori.

Krisiak berak, eta berarekin ekarri duen eraldaketa teknologiko eta sozialen azelerazioak panorama berri bat marrazten dute kultura-erentzat, sortzaileentzat nahiz enpresentzat.

Egoerari aurre egiteko eta aukera berriez baliatzeko gai izan beharko du Euskadiko kultura industriak. Enpresa bezala sendotzen eta horretarako berrikuntzaz baliarazten lagundu behar dute kultura politikek. Kultura politiko-etatik, sistemaren eragile funtsezkoak direnez, eta politika ekonomikoetatik, sektore produktibo eta berritzaile bezala indartu dadin.

Kultura industriak industria gisa sendotzeko xedea dute KSletarako politikek. Enpresari eta berrikuntzari lotutako zerbitzuak emateko diseinatu dira. Kulturaren, ekonomiaren eta berrikuntzaren ikuspegiak bateratuz diseinatu dira KSI politikak, eta sektore berri bat identifikatzen dute, kultura industriekin batera

	Enpresa kop. (2010)	Enpresa kop. (2015)	Enpresa kop. (2020.01.01)	Aldak vs. 2015 (%)	Aldak vs. 2010 (%)	EAEko enpresa guztien gaineko %-a (2021.01.01)	Enpresa kop./EAEko 100.000 bizt.	EAEko enpresen batez besteko tamaina
<b>1. KULTURA</b>	<b>7.568</b>	<b>6.711</b>	<b>7.149</b>	<b>6,5</b>	<b>-5,5</b>	<b>4,6</b>	<b>325,0</b>	<b>2,87</b>
1. - Propioa	4.918	4.263	4.569	7,2	-7,1	3,0	207,7	2,67
2. - Osagarria	2.650	2.448	2.580	5,4	-2,6	1,7	117,3	3,24
<b>2. SORMENA</b>	<b>8.452</b>	<b>8.842</b>	<b>9.737</b>	<b>10,1</b>	<b>15,2</b>	<b>6,3</b>	<b>442,6</b>	<b>1,38</b>
1. - Propioa	8.437	8.803	9.697	10,2	14,9	6,3	440,8	1,36
2. - Osagarria	15	39	40	2,6	166,7	0,0	1,8	4,90
<b>Guztira, orokorrean</b>	<b>16.020</b>	<b>15.553</b>	<b>16.886</b>	<b>8,6</b>	<b>5,4</b>	<b>11,0</b>	<b>767,6</b>	<b>2,01</b>



sormen industriek osatua, indartsuagoa eta lehiakorragoa, Europako estrategiekin lerrotua (Creative Europe).

Kultura eta Sormen industriak gainerako enpresek eta industria alorrek dituzten baliabideetara heltzea laguntzea bilatzen dute KSI politikek. 2017an KSI Berritzaile programa abian jarri zenetik gaurdaino, 336 enpresak parte hartu dute berrikuntzarako programetan. Enpresa horietako askok aurrenekoz izan dute teknologia zentroekin lan egiteko aukera. Horrez gainera, programan konprometitu diren berrikuntza zentroi interes handia sortu die orain arte arrotz zitzaizen jardun esparru horrek.

## Kulturaren lanbidea

2020ko datuen arabera, kulturaren alorrekoa da, 31.500 enplegurekin, Euskadiko enplegu osoaren % 3,4. Estatuaren batez bestekoaren parekoa da (% 3,4), baina seigarrena da autonomia erkidegoen artean, Madril (% 4,9) eta Kataluniaren (% 4,5) atzetik.

**Kultur arloko enplegua. Biztanleria Aktiboaren Inkestaren Ustiapena (EJSN 2009 eta CNO 2011) (2011ko errolda). Urteko batez bestekoak eta enplegu osoarekiko portzentaiak**

	2021		2020		2019	
	Milakotan	%	Milakotan	%	Milakotan	%
<b>Guztira</b>	<b>690,8</b>	<b>3,5</b>	<b>668,1</b>	<b>3,5</b>	<b>710,2</b>	<b>3,6</b>
Andaluzia	83,6	2,7	79,4	2,6	96,3	3,1
Aragoi	16,1	2,8	14,2	2,5	15,2	2,6
Asturias	8,1	2,1	9,4	2,5	10,2	2,6
Balearr Irlak	24,4	4,4	23,8	4,5	24,3	4,3
Kanariar Irlak	24,8	2,9	21,0	2,5	31,6	3,5
Gaztela eta Leon	23,1	2,4	20,7	2,1	23,1	2,3
Gaztela-Mantxa	17,7	2,1	19,8	2,5	20,6	2,5
Katalunia	170,5	5,0	153,6	4,6	156,5	4,5
Valentziako Erkidegoa	58,9	2,9	65,4	3,2	63,1	3,0
Galizia	34,7	3,2	34,8	3,2	34,1	3,1
Madrilgo Erkidegoa	152,4	4,9	155,2	5,1	163,6	5,3
Murtzia	11,9	1,8	13,5	2,2	15,0	2,4
Nafarroako Foru Erkidegoa	11,5	4,1	8,7	3,1	8,9	3,1
Euskal Autonomia Erkidegoa	35,0	3,8	31,5	3,4	29,4	3,1
Kantabria, Extremadura, Errioxa, Ceuta eta Melilla	18,3	2,2	17,4	2,1	18,4	2,2

Kultura eta sormen industrietan, % 84 dira gehienez bi lanpostuko enpresak, eta enpresa handiak, berriz, % 0,6 dira. Enpresa txiki-txikiak dira, beraz, nagusi, eta kontratuak, oro har, denbora laburrekoak dira. 2019an erregistratutako kontratu guztien % 95,65 aldi batekoak ziren, eta horietatik % 84,4 astebete baino laburragoak. Are gehiago, % 70,9 ordukako kontratuak dira, egun bat baino gutxiagokoak.

	2011						2019					
	Mugagabea	%mug	Aldi baterako	%Aldibat	Guztira	%Guzt	Mugagabea	%mug	Aldi baterako	%Aldibat	Guztira	%Guzt
KSlak Guztira	2.150	3,54	58.550	96,46	60.700	100	2.992	4,35	65.806	95,65	68.798	100
Kultura Arloa Guztira	881	1,65	52.549	98,35	53.430	100	1.509	2,46	59.732	97,54	61.241	100
Sormen Arloa Guztira	1.269	17,45	6.001	82,54	7.270	100	1.483	19,62	6.074	80,38	7.557	100

Kulturaren alorrean oso zabaldua dago langile autonomoaren figura. Euskadin, langile autonomoak dira kulturaren alorreko enpleguaren % 60,2, eta sormen industrietan % 74. Hala ere, argitu beharra dago errola horiek kulturaren errealitatera egokitu beharra dagoela, ugari baitira klasifikazio desegokietan edo kulturatik kanpoko klasifikaziotan izena emanda dauden profesionalak.

Izan ere, askok jardun sortzaileari denboraren zati bat eskaintzen diote, bestelako lanekin partekatu beharragatik; maiz jardun etena izaten dute; kontratu finkorik gabe lan egiten dute gehienek. Horrek zailtasun handiak dakartza kultura jarduna lanbide gisa identifikatzeko. Ondorioz, sortzaile horiei ez zaizkie aitortzen gainerako langile eta profesionalen eskubide sozial eta laboralak. Hori da, hain zuzen, hurrengo urteetan konpontzen saiatu beharko den auzia.

Ez da Euskadin bakarrik gertatzen. Unescok eta Europar Parlamentuak berretsi dute ehun sortzailea funtsezkoa dela gizartearentzat, eta sorkuntza, bokazioa izateaz gain, lanbidea ere badela. 2021ean Europar Parlamentuak Europar Batasuneko kideei eskatu zien indarrean jartzeko jardun sortzailearen berezitasunari erantzungo dioten arauak, bai lan eskubideei, bai neurri fiskalei eta babes sozialari dagokienez. Dokumentu horretan Europar Parlamentuak azpimarratzen du helburua ez dela artistei

abantailak ematea. Lanbidearen berezitasunari egokitutako arau bereziak dituzten gainerako lanbideekiko parekotasuna eskatzen da.

Egokitzapen horiek araudietan egin ahal izateko, artisten eta sortzaileen erroldak eta jardun kulturalaren inguruko datuak jasotzeko metodologia eta irizpide bateratuen beharra aldarrikatu dute, baita ere, nazioarteko erakundeok, zenbaitetan. Jardun sortzailea neurtzeko eta kultura sektorearen jarraipena datuen bidez egiteko zailtasunak orokorrak dira. Bai eta datu horien premia ere.


Gure kasuan, aipatutako Kulturaren Euskal Behatokia da eginkizun horretarako Euskadik –eta Eusko Jaurlaritzak– daukaten lanabes nagusia.

## > Emakumeen eta gizonen berdintasuna

Generoari dagokionez, 2019ko datuen arabera, aipatzekoa da kultura industriaren guztizko enpleguan % 47,3 direla emakumeak. Liburugintzan eta ikusizko arteetan, 10 langiletik 6 dira emakumeak; eremu publikoan, emakumeak langile guztien erdia baino gehixeago dira (% 55,6).

### Urteko lanaldi osoko langile baliokideak, sexuaren eta sektoreen arabera

Emakumeen ehunekoa 2017-2019



Datu hauek positiboak direla dirudi, baina panorama ilundu egiten da xehetasunetan sartu orduko: enpresetako eginkizunetan, emakumeak kudeaketa eta administrazioaz arduratzen dira batez ere; zuzendaritza postuak eta ardura handieneko lanpostuak gizonen esku daude oraindik nabarmenki. Adibide gisa, ikus-entzunezko industrian, % 43,2 dira emakumeak, baina horietatik % 73,1ek enpresaren administrazio lanetan dihardute eta zuzendaritzako eginkizunetan % 25,6k.

Baina sorkuntzaren alorrean gertatzen da arrakala nagusia, emakumea sortzaile gisa onartzeko, aitortzeko eta gizarteratzeko oztopoak agerian uzten dituena. Kulturaren publikoetan emakumeak nagusi badira ere, oso tantaka dira emakumeak kultura produktuen egile eta kultura emankizunen protagonista. Kultura programazioak eskaini dituen ekitaldi guztietatik,

laurdena ere ez dira emakumeek sortutakoak (% 24), % 11 mistoak dira, eta gizonen sortutakoak % 65. Sorkuntzari alorrez alor begiraturik, autoretza % 28tan da emakumeena, % 14tan mistoa eta % 58tan gizonenena. Datuak alorrez alor aztertuz gero, emakume sortzaileak, edo sorkuntzaren arduradunak ez dira heren batera iristen. Musika diskoetan (% 9) eta ikus-entzunezkoetan (% 13 zuzendaritzan eta % 11 gidoigintzan) ematen da emakumeen presentziarik urriena.

2017ko datuak dira horiek. Hobetzen doan egoera da, azken urteetan, emakumeen bultzadari esker, antolakunde publiko eta pribatuak ahalegin handia egiten ari baitira emakumeen obrak ekoizteko eta programatzeko, baina handiegia da oraindik desoreka. Egoera hori aldatzeko asko dago oraindik egiteko, eta presazkoa da. Horregatik da plan estrategiko honen konpromisoetako bat, zeharkakoa, ardatz eta helburu guztiei dagokiena, gizarteraren agindu bat ere baita, Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna lortzeko eta Emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko 4/2005 Legean, eta zehazki, kultura jardueri buruzko lege honen 25. artikuluan islatzen dena.

## > Trebakuntzaren garrantzia

Sortzaileek eremu pribatuan dihardute, merkatu gero eta zailago batean, globalizatua eta saturatua baitago. Funtsezkoa da sortzaileei, eta haien lana bideratzen duten enpresei, erramintak eskaintzea, beren egitasmoak landu eta beren garapen profesionalean aurrera egin dezaten.

Profesional gazteen heziketa Unibertsitateen eta, bereziki, EHU unibertsitate publikoaren ardurapekoa da. Zinemaren kasuan, EHUz aparte, Mondragon Unibertsitatea eta Digipen, animaziorako fakultate pribatua aipatu behar dira, baita lanbide heziketako zentroak ere (Escivi, etab.). Arteak ere EHUko gradu ikasketan lantzen da, nagusiki. Musikarako eta antzerki - dantzarako, goi ikastetxe espezializatuak daude,

Musikene eta Dantzerti. Dantzan, antzerkian eta teknikarien formakuntzan, eskolak eta tailerra, eremu pribatukoak, lan garrantzitsua egiten dute. Hezkuntza eremuaren baitan daude antolamenduak.

Kultura eta Hizkuntza Politika sailetik, berriz, profesionalen trebakuntzarako programa-mak laguntzen dira. Zinemagintzan, Donostiako Zinemaldiak kudeatzen duen Ikusmira Berriak programa, Gipuzkoako Diputazioak kudeatzen duen Elías Querejeta Zine Eskola (EQZE), Noka Mentoring programa, emakume zinemagileentzat, edo 2Deo aipatu behar dira, ikus-entzunezkoen laboratoriora, Tabakalerak kudeatzen dituen, etab. Tabakalerak egonaldiak eskaintzen dizkie zinemagile berriei, beren egitasmoak ontzeko, beste alorretako sortzaileekin batera. Kimuak programa ere, film laburren nazioarteko hedapenerako programa, erabakigarria da zinemagile berrien trebakuntzan eta nazioartekotzean.

Ikus-entzunezko egitasmo profesionalak hobetzeko programen artean, bereziki aipatu behar da Europa MEDIAren Euskadiko bulegoak egiten duen lana, gidoiak, egitasmoak, horien merkaturatze eta nazioartekotzea hobetzeko trebakuntza saioak eskainiz. Zineuskadik hainbat trebakuntza programa eskaintzen ditu, eta erraztasunak eskaini, batez ere, nazioarteko merkaturatzeari dagokionez.

Ikusizko arteetan ere garrantzitsuak dira trebakuntza eta garapen profesionalerako baliabideak. Arte zentro publikoetako egonaldi artistikoen programak, gero eta nazioartekoagoak daude batetik –denbora, espazioak eta baliabideak eskainiz –. Horien artean nabarmendu daitezke Tabakalera, Azkuna Zentroa edo Artium Museoa. Bestetik artistei proiektu zehatzetarako eskaintzen zaizkien espazioak eta baliabideak daude, horien artean honako hauek nabarmentzen direlarik: BilbaoArte, JAI (Jardun Artistikoen Institutua/ Instituto de Prácticas Artísticas), Tabakalerak eta Artium Museoa ekoitzia, non artista ezagunek artista gazteak mentorizatu eta laguntzen dituzten. Komisario Berriak programa ere hor dago, komisariotzaren esparruan talentu berriak bultzatzeko, hiru erakunde artistikok elkarlanean kudeatutako programa. Eta azkenik, sorkuntzarako eta topaketarako espazioak ere

badira, autogestionatuak, askotan hibridoak, eta oso aktiboak, hala nola Azala, Baratzta, Garaion, Bitamine, La Taller, etab.

Musikaren alorrean, formakuntza eta trebakuntza profesionalerako egitura oso bat dago, musika eskoletatik hasi, Udalen ardurapekoak direnak, eta Hezkuntza Sailaren ardurapekoak diren musika kontserbatorioetara eta ikasketa maila gorenak eskaintzen dituen Musikene goi mailako ikastetxera. Profesionalizatzeko trebakuntza EGOk (Euskal Herriko Gazte Orkestra) eskaintzen du, jardun praktikotik. Beraiekin hainbat praktika programa garatzen ditu Euskadiko Orkestrak (EO).

Arte eszenikoetan, prestakuntza zentro nagusia Dantzerti da, Hezkuntza Sailak bultzatuta. Eremu pribatuan, antzerki eta dantza eskolak eta akademiak funtsezkoak izan dira eta egun ere badira dira profesionalen harrobia garatzeko. Dantzaz bezalako programek dantzari gazteak, tokikoak zein nazioartekoak, lan munduan sartzea errazten dute. Dantza Etxeak erabakigarriak izaten ari dira koreografia eta dantza profesionalen prestakuntzan eta proposamen berrien garapenean. Harrobia Bilboko zentroak aukera ematen du obrak estreinatu aurretik baldintza tekniko profesionaletan lan egiteko. Txotxongilo antzerkian, TOPIC nazioarteko erreferentea da, programazioagatik, tailerrenagatik eta egoitzengatik. Zirkozaurre zirkuan nabarmentzen da, eta Pabellón 6 dramaturgiako profesionalen prestakuntzan.

Fundazio pribatuek hainbat beka, programa eta erresidentzia eskaintzen dituzte, artean, zaharberritzean, diseinuan etab. hala nola Kutxa Kultur, Gondra Barandiaran Fundazioa, Iberdrola, etab.

Beraz, indar berezia jartzen da Euskadin sortzaileei trebakuntza aukerak eskaintzeko, bai bide profesionalean zailtzeko, baita bere lana garatzeko ere, behin profesional direnean.


## > Zaletasunezko praktikak

Kulturaren sistemak bizitasuna izan dezan, bereziki garrantzitsuak dira zaletasun hutsez sortzen duten herritarrak: antzerkira joaten direnez gain, antzerkia zaletasunez egiten dutenak; edo margotu, idatzi, ikus-entzunezkoak sortu edo dantza egiten dutenak, edozein moldetakoak; edota musika egiten dutenak, banaka, abesbatzetan, bandetan edo musika taldeetan. 2019an, Euskadin, hiru herritarretik bat aritzen zen zaletasunezko sorkuntzan. Arreta bereziz zaindu beharreko ondasuna da

hori, herri kulturaren zalea izateaz gain, kultura egilea izan nahi duen gizartearentzat. Honetan ere, erakundeen arteko lana eta koordinazioa ezinbestezkoa da, Foru Aldundiekin eta Udalekin batez ere.

Hamarkadaren barruan, joera positiboa izanik ere, ez da gorako jauzi nabarmenik antzematen, ez bada eskulanetan, dantzan, margolaritzan, musikan, idazketan edo argazkigintzan.

### Zaletasunezko praktiken bilakaera, 2008-2018 aldian (%)



\* Oinarria: Biztanleria osoa (EAE)

Osasun krisiak bereziki oztopatu du taldean egiten diren kultura jardunak, eta halakoak dira euskal kulturaren adierazpen bereziki garrantzitsuak direnak: bertsolaritza, abesbatzak, dantza taldeak. Ahalegin berezia egin behar da hurrengo urteetan astindu handia jasan duen ehun hori berrindartzen eta bultzatzen.



## > Kultura eskaintza

Hiru alderdi ditu kultura eskaintzak: Euskadiko kultura industrietan merkataturatzen duten ekoizpena, zerbitzu publikoak (liburutegiek, antzokiak, museoak edota kultura etxeak) gizarte osoari egiten dioten eskaintza eta kultura emankizunen programazioa.

Kultura ekoizpenari buruz ditugun azken datuak (2019koak) honako hauek dira:

- Euskadin, 3.517 titulu argitaratu ziren, 2015 urtean baino % 15,3 gehiago. Horietatik, % 41,8 dira euskaraz argitaratutakoak.
- 254 disko editatu ziren Euskadin.
- 2.589 kontzertu egin ziren.
- 118 antzerki lan eta 23 dantza ikuskizun eskaini ziren, eta arte eszeniko guztietatik % 40,2 euskaraz, % 26 ele bietan, % 17,6 gaztelaniaz, eta % 16,3 beste hizkuntzetan edo mintzori gabeak izan ziren.

Produkzioa ugaltzeaz harago, kultura ekoizpenen merkataturatzea, alor berrietara zabaltzea eta, batez ere, ikusgaitasuna eta erakarmena lantzea dira etorkizunerako erronkak.

Zerbitzu publikoak kultura eskaintza gizarte guztiaren esku jartzen dutenak dira: liburutegiak, kultura etxeak, antzoki publikoak. Hurbileko kultura zerbitzuak eskaintzen dira udaletatik, dagokion lurraldeko Diputazioaren laguntzaz. Herritarren kultura eskubideak zaintzen dituzte, kulturaren irisgarritasuna bermatzen dute. Gune horiez koordinazioaz eta ikuspegi bateratuaz arduratzea dagokio Gobernuari.

Programazioaren alorrean, eremu publikoak garrantzi handia badu ere, giltzarri dira eragile pribatuak, musikan eta zineman batez ere. Orkestra musikarako baliabide gehienak publikoak izan arren, gainerako musika generoetan (jazz, rock, pop, hip hop, kantagintza eta baita bertsolaritza ere) erabakigarria da eremu pribatua.

Antzoki publikoen koordinazioarako eta elkarlanerako Euskadiko Antzoki Sarean, antzoki publikoen antolakuntzan integratuta dauden 61 antzokiek ia milioi erdi ikusle bildu dituzte (489.594) programatu dituzten 206 obretan (antzerkian 167 eta dantzan, berriz, 39), 2020-2021eko datuen arabera.

Kultura eskaintzaren bizitasuna adierazten dute, Euskadiko eskaintza Espainiako beste Autonomia Erkidegoko eskaintzarekin erkatuz, SGAEk ematen dituen datuek. Nabarmenezkoa da, biztanle kopuruan txikiena izanik ere, Euskadi 5.a dela arte eszenikoaren programazioan (% 6,0, 3.034 emanaldirekin), Madril, Katalunia, Valentzia eta Andaluziaren segidan. Ikusle kopuruari begiratuta, berriz, 4.a da (1.067.912 ikusle, % 7,6) eta diru bilketan ere laugarrena (13.100.598€, % 5,5). Nabarmena da antzerkiaren nagusitasuna dantzaren aldean. 2.770 emanaldi egin dira antzerkian eta, aldiz, 175 emanaldi dantzan. Aipagarria da, baita ere, obra desberdinen kopuru altua. Esan liteke bi egunez behin estrainatzen dela obra bat Euskadin. Kopuru altuak obra bakoitzaren emanaldien kopuru apala ere adieraz lezake.

Musika klasikoaren alorrean ere ondo kokatua dago Euskadi; biztanleen kopurua kontuan harturik berriz ere, Euskadi bostgarrena da musika klasikoaren programazioan, 1.513 emanaldirekin (Espainiar estatuko % 9,3), laugarrena publikoari dagokionez (642.622 entzule, Estatuko % 12,1) eta 3.a diru sarrerari dagokionez (4.553.331 €, hau da, % 10,0). Deigarria da opera eta zarzuelan Euskadi laugarrena dela (ABAOren erakarmenari esker) eta, batez ere, musika koralak gurean duen garrantzia; izan ere, lehena da espainiar estatuan kontzertuen kopuruari dagokionez, 298 emanaldirekin (% 14,6), lehena baita ere publikoei dagokienez, 83.397 entzulerekin (% 18,2), eta bigarrena diru sarreretan: 370.503 € (% 21,0).

Hurbiltasuna da, ugaritasunaz gain, Euskadin ematen den programazioaren beste ezaugarri bat. 2019an, musika programazioan % 60 baino gehiago zen bertako artista, arte eszenikoetan % 69,4, ikusizko arteetan % 83,4, eta argitalpenetan % 49,1.



Era berean, Euskadiko museo, kultura zentro eta sorkuntzarako guneetan, arreta berezia ematen zaio, bertako publikoari ez ezik, bertako ehun sortzaileari. Inguru sortzailearekiko konpromisoa eta nazioarteko harreman sarea uztartzen dituzte gure kultura ekipamendu nagusiek. Euskal gizartearentzat emankorrak eta nazioartean erakargarriak izatea bateratzen dute. Nazioarteko erakargarritasuna bere eginkizunaren baitan duten museo eta jaialdiek kulturaren euskal kostaldea marrazten dute munduan. Guggenheim, Balenciaga eta Chillida-Leku bezalako museoek eta nazioarteko jaialdiek (Donostiako Zinemaldia, BBK Live, Azkena Rock, Musika Hamabostaldia, Jazzaldia...).

Irudi aberatsago baten parte da munduan ikusgai egin gaitzakeen marra horri: museo sare bikaina daukagu, Bilboko Arte Eder Museoa, Artium Museoa, San Telmo Museoa, Euskal Museoa, TOPIC, baita Kultura Zentroak ere, nola diren Tabakalera eta Azkuna Zentroa. Munduari bertakotasunetik begiratzen dioten antolamenduak dira, bertako eta nazioarteko bisitariak izaten dituztenak, bertako sorkuntza lana eta bildumak nazioarteko solasera ekartzen dituztenak.

Lurraldean bertan eragiten duten museoek eta erakustokiek osatzen dute artearen inguruko eskaintza, Arabako Arte Eder Museotik eta Bilboko Berreginen Museotik hasi, eta Photomuseum edo Zumaiako Zuloaga Museoraino. Atomizaturik dirudi panorama horrek, baina indar handikoa da, baliabide horiek guztiak, publikoak zein pribatuak, sistema gisa funtzionatzen badute: xedeak bateratuz, osagarritasuna bilatuz, koordinazioan eta lankidetzan sakonduz. Horri esaten zaio dokumentu honetan Artearen Euskal Sistema.

Museo guztiak ez dira ordea artearen ingurukoak. Artearen sistema ez, baina museoaren sistema osatzen dute garrantzi eta neurri desberdineko museoek, hala nola naturari buruzkoek (Aquarium, Natur Zientzien Museoa, etab.), industriaren ingurukoek (Meatzaritza Museoa, La Encartada, Erraminta-Makinaren museoa, Armagintza museoa, Rezola Museoa eta Orconera Barakaldon...), etnologiari buruzkoek (Bi-Bat Gasteizen), nola gizarte-museoek, San

Telmo Donostian, Euskal Museoa Bilbon...), itsas ondarearen ingurukoek (Albaola, Untzi Museoa, Itsas-adar Museoa, Bermeoko Arrantzaleen Museoa...), historiari buruzkoek (Oiaso, Zumalakarregi...), ondare materiagabearen ingurukoek (Bakearen Museoa, J.M. Barandiaran museoa...).

Euskadiko museo guztien artean, 3.175.103 ikusle izan zituzten 2018an. Zifra hori 2020an heren batera jaitsi bazen ere (1.024.197 ikusle), errekupeazio prozesua bizkor ematen ari dela dirudi.

Era berean, kultura ondare higiezinaren ere – herriak, eraikinak, lekuak, bideak...– kultura eskaintzaren osagai garrantzitsua da. Iraganaren lekuko dira eta leku bizi-bizirik, hala nola Done Jakue Bidea, Gasteizko Santa Maria Katedrala, Añanako Gatzagak, Gaztelugatxe, herribildu eta leku historikoak...

## > Kultura ohiturak eta kontsumoa

Herritarrek nahiko altu baloratzen dute kultura jardueretan parte hartzearen garrantzia. 1etik 10erako eskalan, kultura jardueretan parte hartzeak duen garrantzia 7,34 puntutan dago baloratua. Emakumeek balio altuagoa ematen diote kulturari (7,68) gizonezkoak baino (6,99).

Kultura proposamenetan parte hartzearen eta kultura kontsumitzearen inguruko datuetan, musika, irakurketa eta zinema ikustea nagusitzen dira. Musika grabatua entzutea (% 76,3), liburuen irakurketa (% 74,2), zinemara joatea (% 69,2) eta kontzertuetara joatea (% 62,7) dira kultura aktibitatearik zabalduenak. Museoko bisitak (% 51,4), antzerkira joatea (% 45,7) eta liburutegietara (% 42) datoz ondoren.

Datuok azken hamarkadan (2009-2019) izan duten bilakaera azterturik, joera positiboa antzematen da kultura eskaintzan herritarren parte hartzeari dagokionez. Kontzertuetara joatea 23,4 puntu igo da, dantzara joatea 21,3 puntu, antzerkira joatea 23,9 puntu. Igo egin dira, apalago bada ere, museoetara joatea (+12,3 puntu), bertso saioetara joatea (+9,2 puntu), liburutegietara joatea (+11,8 puntu), eta liburuen irakurketa (+4,6 puntu).


2019koak dira datuok eta, beraz, pandemiaren aurrekoak. Larritasun egoerak eta etxean egon beharrak produktu kulturalen ekoizpen eta merkaturatze kateak etetea ekarri dute. Publikoen gainbehera bereziki dramatikoa izan da zuzeneko arteetan: 2021eko urtarillaren amaieratik otsailaren amaierara kontzertuetara joatea % 76 jaitsi zen; zinema aretoetara joatea, % 55,3; ikuskizunetara, % 55,3; erakusketetara, % 46,2; eta liburutegietara, % 32,7.

Aktibitatearen etena, eta ondorioz, diru sarrerena, nabarmena izan zen 2020ko martxotik aurrera:

### Diru sarrerak 2019ko eta 2020ko martxoan. Alderaketa.



### Pertsonak, kultura praktika desberdinak egiteko maiztasunaren arabera (%)



\*Oharra: Irakurketan irakurritako liburuen kopuruari buruzkoak dira datuok ("1etik 3ra bitarte" eta "4 baino gehiago") eta bideo-jokotan erabilera-maiztasunari buruzkoak ("Zenbait aldiz astean edo egunero" eta "Noizean behin") (EAE).

Alarma guztiak piztu zituen horrek, baina aktibitatearen zati handi bat berreskuratu eta burutu ahal izan zen gero. Euskarazko programazioaren grafikoa argigarria izan liteke:

## Eragina euskarazko eskaintzan



Aktibitateari eusteko bi erabaki politiko izan dira giltzarri. Alde batetik, kultura aktibitatea baimentzea, osasun neurriak betez beti ere. Aukera hori zabaltzearen eragina nabarmena egiten da konparatzen baditugu Euskal Autonomia Erkidegoa, non aktibitatea % 7,6 erori den eta, beste muturrean, Ipar Euskal Herria, non aktibitatea % 78,7 amildu zen, jende arteko jardun guzti guztiak etenda zeudelako. Beste aldetik, programazioa sustatzeko eta ahalbidetzeko diru ekarpen bereziak egitea, Eusko Jaurlaritzatik, Foru Aldundietatik eta Udaletatik.

Covid-19aren aurreko egoerara itzultzeko ahalegina egin da, baina ezin gara horrekin konformatu. Ezin da begiz galdu pertsona asko direla oraindik kultura jarduerekin batere harremanik ez dutenak. Taulan bertan ikus daiteke lau euskaldunetik batek ez duela inoiz ere irakurtzen, euskaldunen erdia ez dela inoiz museoetara joaten, antzerkian gauza bera, liburutegien zerbitzurik ia % 60k ez duela erabiltzen, etab.

Hori da irabazten joan behar dugun eremua. Gero eta garrantzi handiagoko eginkizuna da kultura ikusgai egitea, ikusgarri eta erakargarri egitea, eta, bereziki, publiko berriak, eta batez ere gazteak, erakartzea. Baina arreta berezia eman behar zaio kulturatik kanpo bizi diren sektore sozialari, kulturatik ere baztertuak bizi direnei. Kultura alorreko azterketa guztietan nabarmentzen denez, kultura ohituretan eta kultura praktiken maiztasunean nabarmena da goi ikasketak dituztenen eta ikasketa maila apalagoa dutenen arteko tartea. Kulturaren hautua gutxien egiten dutenak ekonomikoki eta sozialki ere aukera gutxien dituzten giza sektoreak dira. Kultura praktikarik eza aukera jakin baten ondorio izan daiteke, eta interes faltaren seinale, baina baita desberdintasun sozialen ondorioa eta aukera sozialen faltaren adierazlea ere.


## > Kultura ohiturak, euskaraz

Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte osoaren % 36,1 da euskalduna. Euskal Herri osoari erreparatuta, gizarte osoaren % 33,9 da euskalduna, eta horietatik % 29,7k erabiltzen dute hizkuntza ondo edo oso ondo.

Euskaldunen kopurua gorantz doa etengabe, hezkuntza sistemari esker batez ere. Gazteak dira nagusiki euskaldunak (16-24 adin tartean, % 76,8 EAEn eta % 71,4 EH osoan; eta 25-34ko tartean, % 50,4 EAEn eta % 50 EH osoan).

Ehunekotan 2016

**EAEk herritarren banaketa, euskararen ezagutzaren eta Lurralde Historikoaren arabera**



Iturria: EAEko VI. Inkesta Soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, Nafarroako Gobernu eta Euskararen Erakunde Publikoa.

Oro har, EAEn, elebidun diren euskaldunen % 53,8k adierazten dute kulturaren parte hartzen dutela, eta, aldiz, gizarte osoaren % 24,9k. Euskaldunek kulturarekiko zaletasun, ohitura eta maiztasuna handiagoa agertzen badute ere, ez du horrek esan nahi euskaraz bizi dutenik beren kultura zaletasuna. Oro har, euskal hiztunen erdia (% 48,9) joan dira euskarazko antzezlanen proposamenetara. Euskaldunen artean % 45,1 da euskaraz irakurtzen duena, ohikotasunez edo noizbehinka, eta % 27,3 ohiko irakurlea, gizarte osoaren % 8,4 (zenbaki absolutuetan, 160.000 lagun).

Bai liburugintzan, bai gainerako alorretan, antzematen da badela kultura euskaraz bizi eta kontsumitzen duen multzo sendo bat, 180.000-200.000 lagun aktibokoa, zeinari beste 300.000 lagun potentzial erantsi geniezazkikeen. Euskararen eta euskal kulturaren iraupenerako funtsezkoa da komunitate horren sendotasuna areagotzea, euskal merkatu potentzialari arreta berezia ematea eta euskal kulturaren produktuak ikusgai eta erakargarri egitea.

Euskarazko kultura eskaintzan eta ohituretan eragin eta garrantzi berezia dute euskarazko hedabideek. Berria, Argia eta Jakin bezalako argitalpenak, edota tokiko izaera dutenak, besteak beste, euskarazko kulturazaletasunaren eta kultura kontsumoaren sustatzaile garrantzitsuak dira. Alde batetik, euskarazko kultura eskaintzaren zabalkundearako tresna estrategikoa dira, giltzarri baitira euskaraz kontsumitu nahi duen publikoak eskaintza horren berri izan dezan. Hedabide hauek dira, halaber, euskarazko kultura sortzaileen erakusleihoa eta ezinbesteko bidelagunak sortzaile horien ikusgaitasunean, gizarteratzean eta aitortzean. Hain zuzen, Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek eta Udalek beren beregi laguntzen dituzte euskarazko hedabideak, beraien jarduna bermatua egon dadin. Zehazki, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundien arteko 2018ko akordio baten arabera egiten da hedabide hauen finantzaketa. Akordio horren baitan, 10.742.207 € bideratu ziren 2021ean hedabide hauetara (7.750.209 € Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak eta 2.991.998 € Foru Aldundiek).

## > Memoria bizia

Funtsezkoa da herri baten kultura ondasunak zaintzea eta gizarteratzea, belaunaldien arteko transmisioa eta, beraz, kulturaren eta herritasunaren iraunkortasuna ziurtatzeko. Eusko Jaurlaritzari dagokio Kultura Ondasunak Ondare izendatzea, eta Foru Aldundiei eta Udalei haien zaintza egokia bermatzea. Egun, Kultura Intereseko Ondasunak 627 dira Euskadin (462 ondasun arkitektonikoak eta 65 arkeologikoak).

Industria ondareak garrantzi handia hartuko du hurrengo urteetako kultura politiketan. Gure memoria biziaren parte garrantzitsua izanik, ondare horren babesa –higiezin nola higigarriarena– herri eta hirien garapenean txertatzea da erronka, herritarren memorian eta harrotasunean bizirik iraun dezaten.

Artxibo edo agiritegiek ere, publikoak izan –Jaurlaritzarenak, Foru Aldundienak zein Udalenak– edo pribatuak, Elizarenak barne, garrantzi handia dute gizartean. 145.619 herritarrek erabili zituzten agiritegiak 2019an. Agiritegien digitalizazioari dagokionez, 2019ko datuen arabera, erabat digitalizatutako funtsak guztiaren % 6,1 dira oraindik, baina prozesua abian da, eta urteotan jauzi nabarmena gertatuko da. Dokumentuen % 54 dago egun digitalizatzeko prozesuan (2019ko datuak). Digitalizatu gabeak oraindik asko dira, guztiaren % 39,9.

Euskadiko Artxibo Historikoa, Euskadiko agiritegi nagusia, gordailu irekiaren eredu da. Bilbon, hiriaren erdigunean kokatua eta erabiltzaileei irekia dago, bai fisikoki eta bai digitalki ere. 46.000 kontsulta inguru jasotzen ditu urtean, eta funtsak gero eta zabalagoak dira gaiei dagokienez, eta gero eta oparagoak kopuruari dagokionez: 30.000 agiri kutxa gorde eta kudeatzen ditu, 3.000 metro lineal betetzen ditu

agiriekin, eta 1,15 milioi irudi digital jarri ditu erabiltzaileen esku.


Memoria biziaren eta gure kultura ondarearen transmisioaren alorrean ere euskal erakundeen arteko eta hauen eta eragile pribatuen arteko elkarlana eta kooperazioa ezinbestekoak dira.

## > Jauzi Digitala

Gordailu digitalak, zerbitzu digitalak eta kudeaketarako tresna digitalak garatzeko premia argiago geratu da pandemiak ekarri duen jauzi digitalaren bizkortzearekin.

eLiburutegia –irakurketa publikorako liburutegi digitala– udal liburutegien sarearekin lankidetzan garatu zen, eredu berritzaile bati jarraituz. Egun, 24.412 titulu eskaintzen ditu. eLiburutegia erabakigarria gertatu da herritarren zerbitzurako pandemiak ekarritako itxialdiaren garaian, erabiltzaile kopuruaren igoerak adierazten duenez.

### eLiburutegiaren erabiltzaileen igoera



Irakurketa publikorako euskal plataforma digital publikoa eratu ondoren, euskal kultura ondarearen atari digitala garatzeari ekin zion Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiekin, Udalekin eta erakunde pribatuekin batera. Kooperazio eta elkarlan horren emaitza da Euskariana, erakundeen arteko proiektu bateratua.

Izan ere, ondarearen eskuragarritasunean hobetzeko determinazioa alor digitalean da nabarmenen. 2010tik hona urrats garrantzitsuak egin dira kulturaren eremu digital publikoa aberasteko eta, teknologia digitalen bidez, ondarea eskuragarriago egiteko. Euskadiko Artxiboaren ahalegin digitalaz aparte, gordailu espezializatuen garapen digitala aipatu behar da, hala nola Eresbilena -Musikaren Euskal Artxiboa- eta Euskadiko Filmategiarena. Eusko Jaurlaritzaren aldetik, ondarearen alorreko zerbitzu digitalak bultzatu dira azken hamarkadan, hala nola Ondarenet, Emsime (Euskadiko museo guztien katalogo partekatua) edo liburutegien alorrean, Liburuklik eta Liburubila.

Bide honetan, Foru Aldundiak, Udalak eta erakunde pribatuak egiten ari diren lan garrantzitsua ere aipatu beharrekoa da. Erakundeen arteko elkarlana eta kooperazioa ezinbestekoa dira alor honetan ere.

## Praktika digitalak

Biztanleriaren % 75,6k usadioz erabiltzen du Internet. Adina aldagai esanguratsua da: 15-24 urtekoen artean % 97 da erabiltzaileen kopurua, eta 65 urtetik gorakoen artean, berriz, % 36,5. Datu xeheagoetan ere, behin eta berriz azaltzen da adinaren aldagaiak duen eragina. Esate baterako, biztanleriaren % 30,3k dauka kultura edukia duen plataforma digitalen batean kontua, baina gazteen artean (15-24 urte) % 74,5 da ehunekoa, eta 65 urte baino gehiagokoan artean, % 12,9.

Plataforma horien artean, filma eta telesailak (% 68,8) eta musika (% 66,7) eskaintzen dituztenak dira erabilienak. Liburu digitalen plataformetara biztanleen % 15 dago harpidetuta. 2019ko datuak dira, baina pandemiak Internet bidezko kontsumoaren gorakada bizkortu eta biderkatu egin du. Adibide gisa, Covid-19aren ondorioz

bitzita soziala ezinbestean murriztu delarik, nabarmen egin du gora filmak, serieak edo bideoak Internet bidez ikusteko ordaindu egiten dutenen kopuruak. Ikus-entzunezkoak ikusteagatik ordaintzen zutenak % 10,4 ziren pandemiaren aurretik, eta % 63,4, berriz, 2021ean.

Hauek dira kultura praktika zabalduenak ohiko internauten artean: beste egile batzuen material artistikoa partekatzea (bideoak, argazkiak, musika, literatura...), (% 24,6), eta beste artista, profesional edo zaleekin harremanetan egotea (% 21,1). Norberak sortutakoa partekatzen dutenak % 16,5 dira, sare sozialetan hausnarketa pertsonalak idazten dituztenak % 15,8, foroetan parte hartzen dutenak % 14,1, eta % 8,4 webgune edo blog pertsonala dutenak.

## > Nazioartekotzea

Oro har, barrura begirakoa da Euskadin kulturaren industria. Euskal Herrian ekoiztiko kultura produkzioa bertako merkatura bideratzen da batik bat. Kultura industriek, oro har, barne merkatuari begiratzen badiote ere, sortzaileek -ikusizko arte, dantza eta musika garaikideetan batez ere- ohikoa dute nazioarteko harremana eta lankidetzak, eta ugari dira oihartzun handia dutenak atzerrian. Euskal sortzaileen lanak orain hamarkada bat aurreikusi ezin zitekeen hedapena izan dute gure lurraldetik kanpo. Kultura ekipamenduetan, koprodukzioak, nazioarteko lankidetzak eta beste erakunde batzuekiko sare lana sendotzeko aurrerapausoak, zalantzarik gabe, Euskadiko sormen ehunaren onerako dira. Eta ikus-entzunezkoen plataforma globalek aukera berriak sortu dituzte euskal zinemagintzaren nazioarteko hedapenerako.

Kultura Sailburuordetzako Sustapen Zuzendaritzari dagokio kultura industrien nazioartekotzea sustatzea, nazioarteko azoketan parte hartzea erraztuz, standak prestatuz, katalogoak koordinatuz eta bitartekariak eskainiz.

Etxepare Euskal Institutua da, ordea, kulturaren zabalkundea eta sortzaileen nazioarteko harremanak bultzatzen dituen eragile nagusia, munduan euskara irakasteko dituen bi sareekin batera. 2021ean pandemiaren eragina agerikoa



bazen ere, 115 euskal leiho edo programazio sustatu zituen institutuak kanpoan, euskal zein kanpoko eragileekin elkarlanean; musika, arte eszenikoak, arte plastiko eta bisualak, zinea eta literatura diziplinak ardatz izan zituzten 181 egitasmo profesionalen mugikortasuna lagundu zuen diruz (garraioa, ostatua, otorduak). Eta 21 literatura lan euskaratik beste hizkuntza batzuetara itzultzeko laguntzak ere izapidetu zituen. Horrez gain, euskal kultura eta sortzaileak kanpoan ezagutarazteko beste zenbait ildo jorratzen ditu Etxeparek. 2021ean burututakoen artean, aipatzekoak dira Quebec eta Flandiarekin kultura alorreko joan-etorriko egitasmoak eragiteko harreman estrategikoak, Estatuko zein Europako kultura eta hizkuntza institutuekin egindako elkarlana eta horren fruitu diren programa zehatzak, edota Zabal, euskal artea nazioarteko foro esanguratsuenetara hurbiltzea xede duen programa.

## > Sistemak

Sistema bat mota bereko edo funtzio bereko osagaien multzo egituratua da. Sistema moduan antolatzeak esan nahi du alor jakin batean diharduten guztiak harremanetan jartzea, elkarren arteko osagarritasuna eta lankidetzak bilatuz, edozein dela ere beren eginkizuna edo xedea.

Sistema batek, alorrez alor, sorkuntza, eskaintza eta transmisioa hartzen ditu bere baitan, eragile handiak eta txikiak, norbanakoak eta enpresak, publikoak eta pribatuak, edozein delarik ere balio katean duten eginkizuna. Sistemak ordenatu egiten du eta lankidetzak ahalbidetzen du. Eragileen eta baliabideen sakabanaketaren orde, elkarren arteko lankidetzak bultzatzen du. Potentzia eta eraginkortasun handiagoak ahalbidetzen ditu. Barne kohesioa eta eragin soziala areagotzen ditu, eta sektoreak ikusgaitasuna irabazten du, euskal gizarteari nola nazioartekoari begira.

Erakunde publikoak erabakigarriak dira kultura, alorrez alor, sistema moduan antolatzeke, haien ardurapekoak baitira kultura antolamendu nagusiak. Baliabide publikoen arteko osagarritasuna eta harremana, ehun sortzailearekiko eta ehun produktiboarekiko

ardura bultzatzen ditu sistemaren ideiak. Halaber, politika publikoak ere aldatzen ditu, elementu bakoitzaren garapenari baino areago, oso garrantzitsuak izanagatik ere, sistema osoaren bizitasunari begiratu behar baitiote.

Artean eman dira urrats nabariak. Horregatik proposatzen du plan honek Artearen Euskal Sistema egituratzeari buruzko jardun lerro berezi bat. Irakurzaletasun Planaren garapenak sistema moduan lan egiteko aukera emango dio liburugintzari. "Klasikoa" edo "orkestrakoa" esaten zaion musikaren alorrean ere bada ehun trinko bat, sistema bezala egituratuz gero indar handia hartuko lukeena. Eszenako arteetan ere, bere zabaltasun eta ugaritasunean, oso eraginkorra gertatuko lirarteke bateratasuna eta egituratzea.

Sistema bezala lan egiteko ezinbestekoak dira helburu zehatzak partekatzeke borondatea, elkarlanean aritzeko gaitasuna eta elkarren osagarri izateko ardura. Balio horien gainean eraiki behar da kultura sektorearen biziberritzea. Eta xede hori erdiesteko urrats garrantzitsuak da sistemak egituratzea.

## 2.3.

### 2019-2022 KULTURA PLANAREN BALANTZEA

Kultura Plana 19/22ke zuzen haustura nabarmenik ekarri ordurarte Eusko Jaurlaritzak egiten ari zen kultura politiketan. Planaren txostenean bertan aldarrikatzen da politiken jarraitutasunaren garrantzia, politika horiek sektorearen mesedetan pentsatuak baitaude, sektorearekin etengabe adostuak eta onduak. Kultura politikak kulturagileekiko gertutasunean, konpromisoan eta konpromiso horren jarraitutasunean oinarritu behar dute. Beraz, 19/22 Planaren xede nagusia Gobernuaren politikak modu ordenatuan agertzea izan zen. Izan ere, politikak ordenatzea eta partekatzea izan dira Sail honen etengabeko kezka 2013. urteaz geroztik.

2016-2020 Legealditik aurrera, eta bereziki 2019ko uztailan Kultura Plana 19/22 onartu zenetik egundaino, hiru azpistemari erantzuten dieten zortzi helbururen arabera antolatu ditu bere politikak Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak. Egindakoaren balantzea urtero ematen du jakitera Kultura Sailburuordetzak, Jardueraren Memoria izeneko argitalpenean. Eskura daude [2019](#), [2020](#) eta [2021](#) urteei dagozkienak.

Komeni da, nola nahi ere, Covid-19aren astinduaren aurretik egindako zenbait urrats garrantzitsu laburbiltzea, ez bakarrik 2019tik aurrerakoak, planaren baitakoak, alegia, baita aurreko legealdietakoak ere, planak hezurmamtzen duen bidearen koherentzia azaltzeko.

### Sorkuntza / ekoizpena

Kultura industrien jarduna ahalbidetzeko laguntzak funtsezkoak dira Euskadik bere kultura produkzioa garatzen jarrai dezan –eta euskaraz egin dezan–. Sorkuntza lanak kultura produktu bilakatzea eta merkaturatzea sustatuz, sortzaileei laguntzen zaie, kultura industria sendoak baitira haien lana gauzatzeko eta hedatzeko bidea.

Ekoizpena ahalbidetzen da, alde batetik, baina gero eta garrantzi handiagoa hartu du merkaturako diren proiektuak ontzeko eta lantzeko baliabideak eskaintzea. Zinemagintzan, esate baterako, garapenerako laguntzak handitu dira urteotan, egitasmoak ondu ahal izan daitezkeen, eta merkatu gero eta zailagotan lehiatu. Dirulaguntza horiek zentzua dute egitasmoa jorratzeko baliabideak eskaintzen direlako aldi berean (Europa MEDIA Bulegoa, Zineuskadi...). EITBk, Euskal Irrati Telebista publikoak, ekoizpen horiek erosteko eta hedatzeko hartzen duen konpromisoak osatzen du bultzada publikoa.

Baina ekoizpenaren aurreko fasea ere zaintzen dute kultura politikak. Sorkuntzarako laguntza bereziak eskaintzen ditu Jaurlaritzak, musika konposizioan, antzerki testuen idazketan, gazte literaturan, gidoigintzan eta ikusizko arteetan. Bestalde, ekarpen oso positiboa egin du komikigintza ahalbidetzeko deialdi bereziak; 2018an jarri zen abian, eta euskal komikiak, eta bereziki euskarazkoak, gora egin du harrezkero.

Sortzaileen trebakuntzarako aukerak garrantzi handia dute Euskadin. Formakuntzarako baliabideak hezkuntza sistemak eskaintzen ditu unibertsitateen (EHU batez ere) eta goi mailako ikastetxeen bidez. Dantzerti, Euskadiko Arte Dramatikoa eta Dantza Goi-mailako Eskola 2015an zabaldu zen Bilbon, kultura eta hezkuntza sail berean zeuden garaian, sektorearen aspaldiko eskaerari erantzuna emanaz. Musikene Euskal Herriko Goi-mailako Musika Ikastegia 2001ean sortu zen, eta, zuzendaritza berri baten ardurapean, egoitza berria zabaldu zuen Donostian 2016an. Gasteizen, IDarte Arte eta Goi-mailako Diseinu Eskolak osatu du ikastetxe espezializatuen eskaintza. Goi mailako eskola hauek talentuaren garapenean duten garrantzia kontuan harturik, mahai misto bat eratzen ari da Hezkuntza sailaren eta Kultura eta Hizkuntza Politika sailaren artean.

Heziketaren eremutik harago, Eusko Jaurlaritzaren politiketan profesionalen trebakuntzarako aukerak zabaltzea izan da urteotan guztietan kezka nagusia. Zinemagintzaren alorrean, Zineuskadi eta Europa MEDIAren Euskadiko Bulegoak indartu dira. Euskadiko Europa MEDIA Bulegoak, Europako MEDIA programaren baitan, egitasmo profesionalak ontzeko lantegiak eskaintzen ditu, hasi gidoiaren fasetik eta merkaturatze lanetaraino. Azken urteotako

euskal film ezagunenek partaide izan dute hobekuntza prozesu horietan. Zineuskadin azoketarako bidea errazten da, bera arduratzen baita standa alokatzeaz, katalogo bateratuaz, hitzorduak proposatzeaz, informazioa zabaltzeaz etab. Bertatik kudeatzen dira Zinema Euskaraz programa eta sektorearekiko zenbait laguntza ildo ere.

Erabakigarria izan zen, indartze prozesu horretan, Zineuskadiren egoitza aldatu eta Tabakalera kokatzea, ikus-entzunezkoen erreferentziazko gainerako antolamenduekin batera egon zedin (Zinemaldia, Filmoteka, Donostia Kulturako Zine Unitatea, baita Etxepare Institutua ere). Geroztik, Zineuskadiren eginkizunak ugaltu egin dira, eta ezinbesteko lanabesa bilakatu da sektorearen garapenerako. Zineuskadik abiarazi zuen, 2019an, emakume zinemagileen trebakuntzarako Noka Mentoring programa, orain Tabakalera kudeatzen duena. Izan ere, Tabakalera kontzentratzen dira egun zinemagintzaren alorreko trebakuntza profesionalerako baliabide gehienak, hala nola Ikusmira Berriak, Donostiako Zinemaldiaren programak, zinemagileentzako erresidentziak, Gipuzkoako Aldundiaren Zine Eskola (EQZE), 2DEO euskarazko ikus-entzunezkoen berrikuntzarako laboratoriora (hau ere GFAk bultzatua), etab.

Antzerkian eta dantzan ere, profesionalen trebakuntzarako eta egitasmoak ontzeko aukerak zaintzen dira. Dantzan Bilaka programa, esate baterako, koreografo gazteei dago zuzendua. Pabellón 6, Bilboko Zorrotzaurren, ezinbesteko erreferentzia bilakatu da antzerkigile gazteen-tzat. Bilbon kokatua da, baita ere, Harrobia, antzerki edo dantza produkzioak taularatu aurreko fasean prestatzeko ekipamendua.

Ikusizko arteetan aipagarria da Eremuak, artistek beraiek erabakitzen duten programa autonomoa, bereziki arduratzen dena gogoeta kritikoaz eta artista gazteen bultzadaz. Euskadiko zenbait arte zentrotatik kudeatzen da, txandaka. Programa partekatua da, baita ere, Komisario Berriak, Donostia 2016k sortua eta Jaurlaritzak bere ardurapean hartu duena. Ikusizko arteak, arte biziak, eta zeharkako praktikak garatzeko gune independenteak, ehun sortzailearen bizitasunerako ezinbestekoak direnak, Sorgune eta Bitartez programen bidez sustatzen dira.

Irudigileen garapen profesionala sustatzeko eta nazioarteko merkatuetan sarbidea errazteko, Irudika sortu zen 2017an, Nazioarteko ilustrazio topaketa profesionala, Gasteizen urtero ospatzen dena.

Euskal Herriko Gazte Orkestra (EGO), musikari gazteei ikasketak burutu ondoren jardun profesionalean trebatzeko aukera ematen diena, 2019an birformulatu zen. 1997an sortutako programa da, eta orduz geroztik musikaren ikaskuntzan eta trebakuntzan gertatu diren hobekuntzak (musika eskolak, kontserbatorio-etako orkestraren sorrera, Musikene ikastetxea...) orkestra gaztearen definizio eta kokapen berria eskatzen zituen.

Kulturaren ikusgaitasunari dagokionez, oso emankorra gertatu da kultura ekoizpenen publizitatea irati-telebistaz baldintza ekonomiko onetan egiteko EITBrekin adostutako lan ildoak. Kultura Flash izenaz sortu zen 2016an. Era berean, indartu egin da Kulturklik, kultura programazioaren bilatzaile digital bateratua, eta lurralde eta herri guztietako kultura agendarako erreferentzia bilakatu da. 541.346 kontsulta izan ditu 2021. urtean. Euskal kulturarentzat Durangoko Azoka da agertoki nagusia, eta Eusko Jaurlaritzatik bereziki lagundu da haren eguneratzea eta indartzea. Aipatu behar da, azkenik, Euskadi Literatura Sariak publizitate kanpainez osatu direla, liburu sarituen ikusgaitasuna areagotu asmoz. Ilustrazio saria Euskadiko Txirrindularitza Itzuliarekin lotu da; Euskadi Sariaren irabazleari Itzuliaren kartela egiteko enkargua egiten zaio 2019. urteaz geroztik, enkargu berri batez eta ikusgaitasun handiagoaz osatuz horrela Saria bera.

Nazioartekotzea sustatzeko eta ahalbidetzeko ahalegin etengabea egin da, Etxepare Institutuaren bidez nagusiki. Institutuaren zuzendaritza berritzearekin batera, nabarmen hobetu da Sailarekiko koordinazioa. 2017tik aurrera, Etxepare Institutuak Saileko zuzendaritza batzordean parte hartzen du; nazioartekotzeko politikaren eginkizunak banatu eta koordinatu egin dira Etxepare Institutuaren eta Kultura Sustapen Zuzendaritzaren artean; Institutua, diplomazia kulturalaz aparte, sortzaileen eta sorkuntza lanen nazioartekotzeaz arduratuko da, eta Zuzendaritza, azoken bidez batez ere, kultura industrien nazioartekotzeaz. Etxeparek landu

duen markako estrategiaren baitan egiten dira ekintza guztiak, Basque izenburupean beti.

Etxeparek egindako urrats nagusien artean, bereziki aipagarria da aldebiko harremanak lantzeko lan ildoak. Eskoziarekin egin zen lehen urratsa (Scotland Goes Basque), Quebecekin jarraitu du eta Flandriarekin egingo da hurrena, euskal sortzaileei herri horietako programetan eta hango publiko nahiz programatzaileen aurrean beren lana aurkezteko aukera paregabea eskainiz. Era berean, pandemiaren juxtu aurretik abiatu zuen Etxeparek Zabal izeneko programa; nazioartean erabakigarriak diren arte komisarioak Euskadira gonbidatzen ditu, bertako artisten lanak zuzenean ezagutzeko aukera izan dezaten. Nahiz pandemiak programaren garapena eten, lehen emaitzak jaso ahal izan dira, euskal eragileen presentzia lortu baita Kasselgo Documentan eta Veneziako Biurtekoan.

Kultura eta Sormen Industrien (KSI) alorrerako politikak 2014tik aurrera abiatu ziren, Europak estrategikotzat zuen sektoreari erantzun egokia emateko. Sektorea kontzeptualki definitzea eta haren inguruko datuak biltzea izan ziren lehen urratsak, eta epe horretako lorpen nagusia Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren integratzea izan zen, aukera lurralde gisan. 2016-2018 urteak KSletarako politiketan sakontzeko epea izan zen. Azpisektoreen mugak zehazten, lurraldekako lehentasunak identifikatzen (hiriburuarekin eta Foru Aldundiekin elkarlanean) eta alor berri honi buruzko estatistika lanak hobetzen jarraitzeaz gain, KSI Berritzaile programa abiarazi zen berrikuntza egitasmoak lantzeko; programa horren bidez, aurreneko aldiz jarri ziren sektoreko enpresak Teknologia Zentroekin harremanetan.

Euskadiko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren helburuekin bat, Cross-Fertilization edo ernalketa gurutzatua sustatu ziren, elikaduraren sektoretik hasita. KSIAtea eratu zen, Tabakalerarekin lankidetzan, enpresen nazioartekotzeko planak garatzeko aukerak eskaintzeko. Creadis 3 proiektu europarra burutu zen, bertan lidergoa baitzegokigun. Araban, Free 2 Play izeneko bideojoko modalitatearen F2P Campus izeneko jaialdi / topaketa antolatzen da 2017tik aurrera, urtero, bideojokoetako profesional berriei bultzada eta trebakuntza eskaintzeko. BDCC-Basque District of Culture and Creativity-ren diseinua izan zen aurreko legegaldaren azken urteetako ahalegin nagusia eta, gerora begira, erabakigarriena.

Liburu bat ere argitaratu zen, KSletan garatu diren politiken inguruko informazioa eta gogoeta kritikoak biltzen dituena ("KSIak Euskadin // Las ICC en Euskadi", *Eusko Jaurlaritzan, Vitoria-Gasteiz, 2020*).

## Kultura eskaintza

Etengabeko kezka izan dira azken legegaldiotan kulturaren eskaintzarako baliabide publikoen arteko bateratasuna, koordinazioa eta osagarritasuna indartzea. Ekimen garrantzitsuak gertatu dira, batez ere liburutegi eta antzoki publikoen kasuan, sistemak osatzea, koordinazio guneak antolatzea eta sareak indartzea.

Urrats handiak egin dira Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen garapenean. 2016an lortu zen sarea osatzea, Donostia eta Bilboko Udal Liburutegien sarrerarekin. Euskadiko udal eta hiriburu guztiak sarean integratuta daude egun. Gasteizko Udal Liburutegia hasieratik zegoen Sarean, eta Foru Aldundietako Liburutegiak orain ari dira liburutegien sarean integratzen, nahiz eta Arabako Foru Liburutegia 2018az geroztik dagoen sarearen baitan. Horrela, liburutegi publikoen sistema indartu egin da, hala zerbitzu presentzialetan nola zerbitzu digitaletan. Hauek dira aipagarrienak: Liburubila bilatzaile digitala, 2018an abian jarri zena eta Euskadiko Irakurketa Publikoko liburutegietako milaka edukitara sarbidea eskaintzen duena; Bilgune, EAEko liburutegi guztietako katalogoen gordailu digitala; Liburuklik, ondare bibliografikoaren gordailua; eta Ondarenet, webguneen gordailua.

Liburuzainekin lankidetzan landu zen, halaber, liburutegi sistemaren eskaintza digitala: eLiburutegia. Eredu berritzailea izan zen, 2014. urtean abiarazi zena, eskaintzaren oparotasunez eta irakurlez sendotuz joan dena, eta pandemiaren egoeran berebiziko garrantzia hartu duena.

Euskadiko Irakurketa Planaren oinarriak jarri ziren. Unibertsitateko aditu talde bati eskatu zitzaion oinarritzko txostena eta mahai bat eratu zen planaren jarraipenerako, Kultura sailburuordetza, HPS, Hezkuntza Saila, editoreen elkarteak, liburutegietako ordezkariak eta sortzaileak batzen zituena. Planaren garapena etenda geratu zen, pandemiagatik.

Arte eszenikoetan, Sarea indartzea (antzoki publikoen koordinaziorako antolamendua) erabakigarria izan da antzokiok, agertoki izatetik harago, sektorearen dinamizatzailerak izan daitezkeen. Bulego tekniko bat eratu zen, koordinazio lanak arintzeko eta zabaltzeko. Dantza garaikideari leku handiagoa eman zaio, euskal ekoizpenekiko konpromisoa sendotu da eta publikoak erakartzeko ekintzak partekatzen dira.

Azken hamarkadan, kulturaren sistema publikoan gertatu den zuzendaritza aldaketak suspertu egin ditu antolamendu horien eta ehun sortzailearen arteko loturak, nazioarteko begirada eta lankidetzarako prestutasuna, bai museoetan – Arte Eder Museoa, Balenciaga, Artium Museoa, Tabakalera...–, bai jaialdietan edo musikan, Euskadiko Orkestran eta Euskal Herriko Gazte Orkestran.

Museoen eta arte zentroen eskaintza sendotu egin da. Guggenheim Bilbao Museoak 2014ko abenduan berretsi zuen, 20 urterako, New Yorkeko SRGF Fundazioarekin hitzarmena. Urrats erabakigarria izan da, dudarik gabe, proiektuaren sendotasunean. Finantza krisiaren ondorioz, arte erosketak eta inbertsioak eten egin baziren ere, 2017tik aurrera berreskuratu egin dira, bai Bilboko Guggenheimen, bai gainerako museoetan.

Arte museoen eskaintza sendotzeko bidean, Bilboko Arte Eder Museoaren zabalpenerako egitasmoari ekin zitzaion, egitasmoa onartu zen, eta 2019an arkitektura lehiaketa bat burutu zen. Apustu garbia egin du Gobernuak Artium Museoa indartu dadin Euskadiko arte garaikidearen museo bezala. Horren erakusle da Gure Artearen bildumaren lagapenak eta euskal artisten obrak erosteko proiektu partekatuan Artium Museoak duen lidergoak.

Zinemari dagokionez, aipagarria da 2015ean Euskadiko Filmategia programatzen hasi izana. Programazio hori hiru hiriburuetan egiten da, gainera (gehi, zatika, Iruñean eta Iparraldean), Filmategiaren izaera eta eginkizun nazionala indartuz horrela. Zentzu hori bera du Arabako eta Bizkaiko Foru Aldundiak Filmategiaren Patronatuan integratu izanak, Euskadi guztirako antolamendu bati dagokion moduan.

Euskadiko Orkestraren jarduna ere indartu egin da azken urteotan, zuzendaritza orokorraren eta zuzendaritza artistikoaren aldaketaren ondorioz.

Bere nazioarteko eginkizunari heldu dio berriro, Europan zehar zenbait emanaldi antolatuz eta nazioarteko zigiluetan diskoak grabatzen jarraituz.

## Memoria bizia

Memoria biziaren alorrean, Euskal Kultura Ondarearen legea (6/2019) aipatu beharra dago lehenik, Eusko Legebiltzarrak 2019ko maiatzaren 9an onartu zuena. 1990eko legea berritzen du, ondarearen ikuspegi zabalago eta eguneratuago batetik, ondare materiagabearen babesa lehen aldiz arautuz esate baterako.

Legeari jarraituz, ondarearen babesa zabaldu egin da. Itsas ondarearen inguruko deialdia abiarazi zen; industria ondarearen gordailua Zorrotzaurretik Barakaldora eraman zen; eta ondare materiagabearen inguruko ikerketa lanak bultzatu ziren, hura babesteko politikak definitzeko eta deialdi zehatzetan egikaritzeko. Azken alor honetan, herri inauterien eta, batez ere, dantza herrikoien inguruan egin dira lehen urratsak. Esate baterako, tradiziozko dantzaren mapa egin da eta dantza herrikoien inguruko dokumentazio ikus-entzunezkoa, VHS formatuan jasoa zegoena eta sakabanatuta, bildu, katalogatu eta digitalizatu egin da, Eresbil artxioboaren laguntzaz. Bai mapa eta bai katalogazioa online kontsulta daitezke.

Ondare dokumentalaren kasuan, Euskadiko Artxibo Historikoaren lana izan da Gobernuaren politiken ikurra. 2014an Bilboko erdigunean zabaldu zenetik, gordailu eskuragarri eta hurbilekoaren eredu bihurturik, erreferentzialtasuna lortu du, jaso dituen bildumen kopuruak eta garrantziak adierazten dutenez, esate baterako, Eusko Ikaskuntzaren funtsak (2018an), Egin egunkariarenak (2018an, baita ere), edo Ekin, erbestean hain garrantzitsua izan zen argitaletxearenak (2019an). Era honetan, funts horien nahiz bilduma pribatu ugariaren (Insausti, Leguineche, Krutwig, etab.) kontserbazioa bermatzen da, baita haien irisgarritasuna ere. Ikerleen eta herritar guztien eskura daude dokumentu horiek Artxiboan, eta gero eta gehiago, modu digitalean, ahalegin handia egin baitu EAHk dokumentuak digitalizatu eta zerbitzu digitalak eskaintzeko.



Kultura ondarea eskuragarri egiteko kezka horrek berak eraman zuen Ondare Zuzendaritza Euskadiko ikasle gazteei ondarearen inguruko lanak egitera bultzatzera, ikastetxeen arteko lehiaketa bat antolatuz, Hezkuntza Sailarekin adosturik. Kultura Ondarea Sariak arrakasta handia izan du euskal ikasleen artean 2015ean abiatu zenetik. Ildo horretatik ulertzen da, baita ere, Ekain leize zuloa digitalizatzeko eta kobarako bisita birtuala herritar guztiei eskaintzeko ekintza (2015).

Ondarearen zaintza txukunaren, gardentasunaren eta eskuragarritasunaren helburuari erantzuten dio, halaber, Jaurlaritzaren arte ondarea egoki katalogatu izanak. Liburu batean bildu dira Gobernuak, bere eraikin guztietarako, urteetan ondu duen bildumaren mugarririk: Gobernuaren Arteak / El arte del Gobierno (Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2021). Bilduma horren zati esanguratsuen, Gure Arteak Sarien inguruan sortu dena, biltokietatik atera eta Artium Museoari laga zaio, ikerlarien eta herritar guztien eskura egon dadin.

Kultura ondare izendatutako elementuen dokumentazioa herritar guztientzat kontsultagai jarri da Integra izeneko atarian, non eremu berezi bat dagoen erakundeei eta profesionalei zuzendua, tramitean dauden espedienteak ere eskuragarri izan ditzaten. Agiritegiei dagokionez, Dokuklik atariaren eboluzioaren ondorioz, gaur egun bi zerbitzu nagusi eskaintzen dira: Badator bilatzailean Euskal Autonomia Erkidegoko artxibo publiko nahiz pribatuetako dokumentazio historikoa kontsulta daiteke (alegia, XI. mendearen eta 2014. urtearen arteko 788.922 erreferentzia eta 5.368.000 irudi digital), eta Erregistro Sakramentalen datu baseak aukera ematen du Eliza Katolikoaren sakramentu liburuetan jasota dagoen biztanleen errolda historikoa (1500-1900) kontsultatzeko (bataiatu, ezkondu eta hildakoei buruzko 5.6 milioi erregistro ditu.)

Euskariana da ordea, Euskadiko Liburutegi Nazional Digitala, urte hauetako eta hurrengoetako egitasmo digital nagusia. Aurreko legegaldian egitasmoaren oinarriak jarri ziren, haren definizioa zehaztuz lehenik, eta egitasmoaren garapen teknologikoa burutu zen. Baina lantalde profesionala eratzea izan zen urrats erabakigarria, Sailaren barruko zerbitzu berezi bat sortuz xede horretarako. Horri esker jarri da abian Euskariana legealdi honetan.

## Gobernantza

Azkenik, gobernantzari dagokionez, Kulturaren Euskal Kontseiluaren funtzionamendurako molde berri bat adostu eta HAKOBA kultura sortu zen, erakundeen arteko koordinazioa indartzeko. Lanerako metodologia moduan, lehenagoko plan orokorren orde, gai estrategiko jakinetan eginkizun zehatzak eta egingarriak lantzeko, Kultura Auzolanean sortu zen. Genero berdintasuna izan da gairik jorratuena, sektorearen ordezkariekin, gainerako erakundeekin eta adituekin, alorrez alor aztertu baita emakume sortzaileen egoera.

Sektorearekiko interlokuzioa hobetzen saiatzea izan da beste gai garrantzitsu bat Kultura Auzolanean egitasmoaren baitan. Sektore batzuetako antolamendurik eza eta beste batzuetako gehiegizko atomizazioa arazo dira sektorearekiko harremana sendotzeko. Antolaketa bateratuagoen bidean, azken urteotako mugarririk aipagarriena EHMBEren sorrera (2015an) eta garapena izan da; EHMBE edo Euskal Herriko Musika Bulegoak bere baitan biltzen ditu musikaren alorreko eragile guztien elkarteak. Elkarteen elkarte moduko bat da, sektorearen antolaketarako eredugarria.

EZAEren sorrera izan da azken urteotako beste mugari bat, Jaurlaritzak sustatu zuena, zine aretoetako enprekin lankidetzan antolatu ahal izateko. Horren ondorio izan dira publikoak zine aretoetara erakartzeko programak, Zinema Euskaraz programa sendotzea eta zabaltzea, euskal pantailetan euskal filmen erakustaldiak bermatuta egotea, etab.

Kulturaren Euskal Behatokiaren garrantzia hazten joan da azken legegaldietan, zabaldu egin da bere lan esparrua: ondarearen alorreko gaiak ere bere gain hartzen ditu, eta KSIak bere estatistiketan integratu ditu, baita ere. KSietarako lanetan, nazioarteko behatokiarekin egin ditu hausnarketa prozesuak. Behatokiaren urteko lan asmoa HAKOBAn aurkezten da urtero, KEB erakunde guztion zerbitzurako behatokia izan dadin.

Azkenik, nabarmentzekoa da Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak, haren mendeko erakundeek eta sektoreak berak emakumeen eta gizonen berdintasunerako politiken arloan azken urteotan egindako aurrerapena. Hala, Sailean



berdintasunerako administrazio unitate bat dago 2009az geroztik, genero ikuspegia Sailaren administrazio jardueran nahiz sektore politiketan txertatzea bultzatzen duena. Unitate honek berdintasunaren arloko bi lantalde koordinatzen ditu Kultura Sailburuordetzaren barruan, bata politikoa eta bestea tekniko-politiko. Lantalde horiek genero ikuspegia txertatzea eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2022-2024 Planaren barruko jarduerak egitea sustatzen dute.

Horri gehitu behar zaio eremu publikoko erakundeak aurrerapauso handiak ematen ari direla berdintasunaren arloan, horretarako plan espezifikoak onartuz eta garatuz: Etxepare Institutuaren I. Berdintasun Plana, Euskadiko Orkestraren II. Berdintasun Plana, EGOren I. Berdintasun Plana eta EITBren III. Berdintasun Plana.

## 2.4.

### COVID-19AREN DISRUPZIOA

Covid-19aren pandemiak markatu ditu 2020 ondoko urteok. Gizartea hankaz gora jarri duen osasun larrialdia bereziki gogor astindu du kulturaren eremua, alderdi guztietan: sorkuntzan, ekoizpenean, kultura eskaintza bideratzen duten antolamendu publiko eta pribatuetan, haien gizartearekiko harremanetan eta publikoen ohituretan. Ohiko jarduna eten egin zen, urte horretarako aurreikusiak zeuden jarduera eta ekintzak bertan behera geratu ziren, birak, zirkuituak eta nazioarteko mugikortasuna ezinezko bihurtu ziren. Pandemiak, kulturaren beharra inoiz baino argiago ikusarazi du, eta aldi berean arrisku larrian jarri du kulturagileen biziraupena. Kulturgintzaren alderdi profesionala izan da –lan baldintzak, estuasun ekonomikoak, sortzaileen biziraupena, enpresa eta egituren jarraikortasuna...– guztion kezka nagusia 2020an.

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren politikak ere egoeraren larriari erantzun beharrak baldintzatu ditu aurreko bi urteak, 2020 bereziki, ezinbestean. Aurrekaririk gabeko egoera horri aurre egiteko ahalegin handia egin behar izan zen, erantzunak garaiz emateko xedez, baina berme juridiko eta ekonomikoak mantenduz, prozedura arautuak baztertu gabe. Ez da erraza gertatu, prozedurek eskatzen duten denborak moteldu egiten duelako sektoreak berehala behar zituen erantzunak eta, bestetik, kulturgintzaren lan eta kontratu baldintza bereziak –eta maiz egokiro formalizatu gabek–, zailago egin zuelako hain tarte laburrean kultura politiketatik politika sozial eta ekonomikoetara jauzi egitea.

Zailtasunak zailtasun, Eusko Jaurlaritzak kulturako 2020rako eta 2021erako aurrekontuak eta programak mantendu zituen, deialdiak eta zerbitzuak larritasun egoerari egokitu zizkion, eta laguntza lerro nahiz programa bereziak abiarazi zituen, galera ekonomikoak arintzeko, jarduna sustatzeko eta osasun neurri nahitaezkoak kultura guneei eta kulturaren jardunaren ezaugarriei egokitzeko.

Lau alor nagusitan laburbil daiteke 2020. eta 2021. urteetako jardunean Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak osasun larrialdiaren egoerari kultura arloan eman dion erantzuna: koordinazioa, deialdi eta zerbitzuen egokitzapena, laguntza ekonomikoak eta aktibitateari eusteko laguntza bereziak. Guztira, 2020an hasi eta 2022ra bitarte, 13.670.000 eurokoa izan da kulturaren arloan egingutako ekarpen ekonomiko berezia (horietatik 6.322.960 € kulturgintzako profesional, autonomo, enpresa eta elkarte profesionalen zuzendutako programa eta laguntza lerro berezietan, hauek jasandako kalteak arintzeko; eta 4.987.000 € musika aretoetako, antzokietako eta zinemetako programazioari eusteko).

IRIZPIDEA	NEURRIA
<p><b>Komunikazio eta koordinazioa</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Etengabeko harremana izan da kulturgileekin (egoera aztertu, datuak bildu, eskaerak eta beharrak ezagutu, laguntza neurriak adostu eta sektorean zabaldu, etab.).</li> <li>• Egoeraren azterketa kuantitatibo eta kualitatiboa eta etengabeko jarraipena egin da (Kulturaren Euskal Behatokia).</li> <li>• Osasun Sailaren eta kulturgintzaren arteko zubi lana egin da (osasun neurrien interpretazioa eta aplikazioa, osasun protokoloak, etab.).</li> <li>• Sektoreari zuzendutako informazio eta aholkularitza zerbitzu berezia eratu da (Kulturklik Pro)</li> <li>• HAKOBA Kultura herri erakundeen koordinazio batzordea indartu da.</li> <li>• Kultura Sailburuordetzaren eta Eusko Jaurlaritzako gainerako sailekiko (Osasun saila, Ekonomia eta Ogasun saila, Lan eta Enplegu Saila, Lanbide, etab.) lankidetzaz bultzatu da.</li> <li>• Kultura Zaindu komunikazio eta sentsibilizazio kanpaina egin da.</li> </ul>
<p><b>Ohiko finantzaketa bideei eustea</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Aurrekontu, zerbitzu eta laguntza lerro guztiei eutsi zaie.</li> <li>• Deialdi eta dirulaguntza lerroak sektorearen uneko beharretara egokitu dira (proiektuen eta justifikazio epeak, proiektuen beraien egokitzapena, etab.).</li> </ul>
<p><b>Kultura jarduera eta eskaintza bermatzea eta sustatzea</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 2020eko ekainaren 1etik aurrera aurrez aurreko kultura jarduera baimendua egon da Euskadin (segurtasun neurri guztiekin).</li> <li>• eLiburutegia indartu da (lantaldea handitu, lizentzien erosketa handitu).</li> <li>• Kultura azpiegituren jarduna eremu digitalera eramaten lagundu da (orkestrak, museoak, antzokiak, liburutegiak, etab.).</li> <li>• Zuzeneko arteen programazioa sustatzeko programa bereziak abiarazi dira, sektorearekin –musika eta arte eszenikoak– adosturik (Beste bat! Eta Beste bat! Berritzen).</li> <li>• Euskadiko Orkestra eta BOS izan ziren Europan lehenik aktibatuz ziren orkestrak. EITBrekiko lankidetzaz, beren entzulegoarekin harremanari eusteko modua aurkitu dute.</li> <li>• Zinema aretoei zuzendutako laguntza ildo bereziak sortu dira.</li> <li>• Programazioari eusten lagundu zaie zinema aretoei, jarduna bermatzeko, esate baterako haurrentzako euskarazko filmen programazioa indartuz.</li> <li>• Artelanen erosketa bereziak egin dira, hiru arte zentro eta museoak elkarrekin eginak, aktibo dauden artistei zuzenduak.</li> <li>• Esparru publikoarekin elkarlanean, enkargu eta ekoizpen bereziak egin dira, jarduna eten ez zedin (ilustrazioa, film laburrak, liburugintza, ikusizko arteak, dokumentazio lanak, etab.).</li> <li>• Durangoko Azoka modu digitalean ospatu ahal izateko laguntza bereziak eman dira.</li> </ul>
<p><b>Babes ekonomiko bereziak abian jartzea</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kulturgintzako profesional, autonomo, enpresa eta elkarte profesionali zuzendutako programa eta laguntza lerro bereziak abiarazi dira pandemiaren ondoriozko kalte ekonomikoak arintzeko edota jardunari eutsi ahal izateko.</li> <li>• Kultura eta Sormen Industrien politiketan deialdi berezi bat antolatuta da, enpresei baliabideak emateko egoera berriaren eta, batez ere, digitalizazioaren aurrean.</li> </ul>



# 3.

**PLANAREN  
BIZKARREZURRA**



## 3.1.

### PLANAREN PRINTZIPIOAK

---

Plan Estrategiko hau 2022-2028 aldirako pentsatua da, pandemiak nabarmendu dituen lehentasunei erantzun egokiak emateko. Kulturgintzaren susperraldia da xede nagusia. Aro berriak exijitzen duen anbizioaz, zaurgarritasunak eskatzen duen errealismoaz, euskal kulturgintzaren goraldia merezi duen erabakitasunaz, eta politika publikoek, emankor izango badira, behar duten jarraitutasunaz:

#### Anbizioa

Plan honen anbizioa krisia gainditzeko, susperraldiak oinarri sendoak izateko, eta etengabeko aldaketan aurrean kultura sektorea sendotzeko erramintak eskaintzea da. Kulturaren zentralitatea bilatzen du planak, bere alderdi ekonomiko, fiskal eta laboraletan eragiteko, gai horietan ardura duten sail eta erakundeekin elkarlanean. Kulturak bizitzako eremu guztietan duen eragina ikusarazteko eta areagotzeko alor desberdinetako erakunde eta eragileekiko lankidetzan sakondu nahi du planak: hezkuntza, sustapen ekonomikoa, ZTBP 2030 berrikuntza plana, ingurumena, gizarte politikak eta turismoa. Era berean, Planak tresna eraginkorra izan nahi du kultura eremuan emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta edozein diskriminazio mota ezabatzeko bidean aurrera egiteko.

Halaber, kulturaren sorkuntzan, eskaintzan eta transmisioan bikaintasuna eta eragin soziala sustatzeko asmoz egindako plan honek, Gobernuaren plan estrategiko bat izateaz gain, gainerako erakunde nahiz eragileekin lankidetzarako abiapuntu bat izateko anbizioa dauka.

#### Errealismoa

Funtsezkoa da, plana eraginkorra gerta dadin, kulturgintzaren ezagutza sakonean eta errealitatea ondo neurtzean oinarritzea. Plan honek errealista izan beharra dauka beteko bada. Beraz, denbora epeak, gure kudeaketarako ahalmenak eta aurrekontuen marko posibleak oso kontuan hartzen dira, ez jauzi ikusgarriak, baizik eta aurrerapauso sendoak eta atzera gabekoak emateko xedez. Giltzarri da anbizioa eta errealismoa uztartzea.

#### Determinazioa

Kulturgintzarekiko hurbiltasunean, ezagutzan eta konpromisoan oinarritzen da Kultura Sailaren jarduna eta, beraz, baita Plan Estrategiko hau ere. Kulturaren defentsa irmoa egiten du planak, sektore jakin bat izateaz harago, herrigintzan eta gizartearen garapenean kulturak duen leku zentrala aldarrikatzen baitu. Kulturgintzaren erronkak ondo ezagutzetik eta kulturarekiko konpromisotik eratortzen da euskal kultura suspertzeko erabakimen sendoa.

#### Jarraitasuna

Funtsezkoa da kultura politiken jarraitutasuna, marko egonkorra eskaintzeko profesionali nola enpresei; eta, batez ere, kultura politikak, neurri handi batean, ereintza lanak direlako, fruituak epe ertain eta luzean ematen dituztenak. Gainera, kultura politiketako lan ildoak eta ekintzak dagokion sektorearen ordezkariekin eztabaidatzen, egokitzen eta adosten dira, etengabe. Kulturgintzarekin adostutako lan ildo horiek jarraitutasuna behar dute, emankor gertatuko badira.



## 3.2.

### PLANAREN EZAUGARRIAK

---

Planak bost ezaugarri nagusi ditu: suspertzailea izango da, egingarria, auzolanean oinarritua, errotua eta ikuspegi luzekoa.

#### Suspertzailea

Planaren jardun lerroak kulturgintza suspertzera bideratuta daude, eta alderdi desberdinetatik ekiten dio susperraldiari: sorkuntza ahalbidetzea, ekoizpena ugartzea, lanbidearen berezitasuna eta duintasuna defendatzea, sektore ekonomiko bezala sendotzea eta aro digitalaren erronkei erantzuteko baliabideak eskaintzea.

#### Egingarria

Anbiziotsua izanagatik ere, egingarria izan behar du planak, eta erantzunak ematen dituen tresna izan. Egin daitekeenaren baitan erabakiko da kultura politikak egin behar luketena, ahalmenak, baliabideak eta marko ekonomikoak posible egiten dutena kontuan harturik. Helburu nagusiak jardun lerroetan aletzen dira, eta jardun lerroak ekintza zehatzetan antolatzen.

#### Auzolanean oinarritua

Kulturgintzari zuzendutako politikak Foru Aldundiekin, Udalekin eta sektorearen ordezkariekin eztabaidatzen eta adosten dira etengabe. Lan ildo horiek egikaritzekoan, deialdiak erabakitzerakoan, sektoreko profesionalek eta adituek dute azken hitza. Kultura eskaintza bideratzen duten eta memoria gizarteratzen duten antolamenduak, kulturaren sektore publikoa deitu ditugun horiek, euskal erakunde desberdinen artean kudeatzen dira. Beraz, plana ezin da garatu auzolanean ez bada, hau da, kulturgintzako profesionalekin eta erakundeekin artean. Are gehiago kulturaren susperraldiari Kultura Sailaz haragoko alorretatik ere lagundu nahi zaionean; izan ere, kulturatik kanpoko sail eta antolamenduekiko lankidetzak premia berriak dakartza horrek.

#### Errotua

Kulturak Europan eta munduan dituen premiak eta kultura politiken joerak oso kontuan hartzen baditu ere, Euskal Herriko errealitatea du oinarrian plan honek. Euskal kulturgintzaren errealitateak pentsatua da plana, gure kultura errealitatea ondo ezagutzetik eta harekiko konpromisotik. Bi lerro nagusi ditu beraz Plan Estrategiko honek: euskal errealitatea eta nortasuna, eta europar markoa.

#### Ikuspegi luzekoa

Planaren denbora mugak berak –2022/2028– adierazten du legealdiaz haragoko ikuspegia lantzen duela Plan Estrategiko honek. Ikuspegi luzekoa dela esateak, berriz, azaltzen du planaren helburu nagusiak eta lan ildoak ez direla koiuntura baterako pentsatuak, baizik eta epe luzeagorako ikuspegiak, funtsezkoa baita kulturgintzaren garapenerako.

Oraingo bolada inbertsio berezien garaia da, eta ohiz kanpoko diru ekarpen horien xedea hurrengo legealdietan oinarriak sendotzea da, 2030 horizonteari begira, kultura Eusko Jaurlaritzaren politiketan zentralagoa izan dadin eta kulturgintza behar beste kontsideratua izan dadin kulturaz haragoko sailetan ere.

## 3.3.

### ARDATZAK ETA ZEHARKAKO KONPROMISOAK

Hiru dira plan honen ardatz nagusiak, 2019-22 Kultura Planak proposatutako bidetik, hiru alor nagusitan antolatzen baitu kulturaren sistema: kulturaren sorkuntza, eskaintza eta transmisioa.

#### 1. Sorkuntza

Sortzeko gai izateak, eta sortutakoaren emaitzak ekoizteko enpresa ehun sendoa edukitzeak erabakitzen dute herri baten nortasun kulturala. Sorkuntzarako aukerak zabaltzea, sorkuntza bideratzeko inguruneak indartzea eta sorkuntzarako laguntza-bideak eskaintzea funtsezkoak ditu kultura bizia izan nahi duen herriak, eta bizirik iraun nahi duen herriak. Sorkuntzarako aukerak sendotzea eta sorkuntza lanen ekoizpena ahalbidetzea da, beraz, gure kultura politiken lehen ardatza.

Plan honek muin-muinean dauka gaitasun edo talentu sortzailea sustatzeko kezka. Talentuari gero eta garrantzia handiagoa ematen zaio gizartean, garapen zientifiko, teknologiko eta ekonomikorako behar-beharrezkoa bihurtu baita, eta ezinbestezkoa herri baten aurrerapenerako. Gauzak modu berezian egiteko norbanakoen dohain hori ezinbestekoa dute kulturari diharduten profesionalak. Talentu sortzailea berezko osagaia du kulturak. Berrikuntza sustatzea bilatzen duen gizarte batek behar-beharrezkoa du kulturari eta kulturatik lantzen den talentua. Horregatik, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailarentzat kezka zentralak dira kulturari diharduten berrikuntzari egiten dion ekarpena ikusaraztea, talentu sortzailea sustatzea eta talentu horri ate berriak irekitzea, beste alorretako prozesuetan eragin ahal izateko.

Sorkuntza prozesuen emaitzak gauzatu edo ekoiztu egin behar dira, ezagutu, gozatu, komunikatu, partekatu, eros daitekeen obra bilaka daitezten. Zirkuitu eta merkatuetan lehiatu beharko dute

kultura produktuek, diruaren, arretaren eta prestigioaren merkatuetan. Kultura industria sendoak behar dira sortzaileen lana gauzatu dadin, gizarteari hel dakion eta erakargarri gerta dakion. Sorkuntzaren garapena eta ekoizpenarena batera doazelako biltzen ditugu biak lehen ardatz honetan.

#### 2. Eskaintza

Bigarren ardatzak kultura eskaintzaren oparotasuna, aniztasuna eta irisgarritasuna bermatzearekin dauka lotura, kultura emaitzak eta emankizunak gozatu ahal izateko herritarren eskubideari erantzunaz. Berez, eragile publiko eta pribatuen arteko orekarik handiena du ardatz honek. Ardatz honetako lan ildoek eta politikek "kulturaren sektore publikoa" deitu izan duguna bideratzen dute batik bat, antolamendu kulturelek alegia (liburutegi, agiritegi, museo, antzoki, jaialdi, orkestra...), zeinak bideratzen baitute herritarren kulturarako eskubidea.

Funtsezkoa da euskal sortzaileen ekarpena euskal gizarteari eskuragarri, erakargarri eta gozagarri gertatzea, euskal antzoki, pantaila, plaza eta dendetara baldintza egokietan heltzea. Euskadin sortutako kultura merkaturatzea eta plazaratzea uztartu egin behar da herritarrei nonahiko eta askotariko kultura eskaintza egiteko ardurarekin. Euskal sortzaileei eta ekoizleei beren publikoetara heltzeko bideak errazten zaizkie, eta, horrez gainera, bide paregabeak dira kultura antolamenduak nazioarteko eztabaidan, trukaketan eta solasean partaide izateko.

Kulturzaletasuna indartzeko eta hedatzeko, kultura kontsumoa sendotzeko eta nazioarteko proiektzioa areagotzeko politikak biltzen dira, beraz, ardatz honetan. Arreta berezia emango zaio publiko berriak eta, batez ere, publiko gazteak, kulturara eta euskal kulturara erakartzeari.

### 3. Transmisioa

Herri batek, gizatalde batek, bere iraganaz gorde nahi izan duen eta hurrengo belaunaldiei transmititu nahi dien hura da kultura ondarea. Bere kultura herentziaren bidez ageriko egiten da herri bat, gizatalde bat, bere buruarentzat eta besteentzat. Belaunaldien arteko kulturaren transmisioari dagokio hirugarren ardatz hau, giltzarri baita herri baten kultura bizitzan eta biziraupenean. Etorkizuna jorrotzen duen lan ildo bat da beraz.

Memoriaren inguruko politikek helburu bikoitza dute: ondarearen babesa kudeatzea eta ondarea gizarteratzea. Gorde egin behar dute iraganaren lekukotza, eta eskuragarri ipini behar dute, gizarte osoaren eta egungo beharrei erantzunez, kultura ondareak gizataldeen kohesioan, identitatean eta garapenean duen eragina ageriko eginaz. Herritarrengan kultura ondarearekiko atxikimendua, harrotasuna eta jakinmina sustatzea da memoria biziaren bermea.

Bizirik dagoelako aldatu egiten da, aldatu egiten delako dago bizirik. Iraganaren interpretazioa garaian garaiko ikuspegiei eta beharrei lotua dago, etengabe berridazten da historia. Memoria gaur egungo sorkuntzarako eta bizitzarako langai izatean datza memoriaren bizitasuna, etengabe aztertua, etengabe eztabaidatua, etengabe berrerabilia, etengabe eguneratua. Ondarea da gorde eta zaindu behar dena, interpretazio, erabilera eta zentzu etengabe berrituen sorburu izan dadin.

#### > Zeharkako konpromisoak

Bi konpromisok zeharkatzen dituzte kulturaren sistema egituratzen duten hiru ardatzak: euskararen biziberritzeak eta genero berdintasuna bermatzeak. Ardatz guztietan eragiten dutelako dira konpromisook zeharkakoak.

Euskaldunen herrian euskarari arreta berezia zor zaio, bai sorkuntzan edo ekoizpenean, bai eskaintzan, bai memoriaren transmisioan. Euskadin kultura ezin da euskal kulturarik gabe ulertu, ezta euskal kultura testuinguru kultural guztia kontuan hartu gabe ere. Eusko

Jaurlaritzaren kultura politiken muinean dago euskaraz sortzeko, kultura euskaraz bizitzeko eta euskaraz gogoratzeko aukerak bermatzea. Lan ildo guztietan sustatzen dira bereziki euskarazko kultura edukiak eta zerbitzuak.

Era berean, ezin da kultura emakumeen ekarpenik gabe ulertu, ezin da luzatu emakumeek pairatu duten bazterkeria. Emakumeen protagonismoa aldarrikatu beharra dago kulturaren hiru ardatzetan, sorkuntza-ekoizpenean, eskaintzan eta transmisioan, emakumeak sortzaile eta ekoizle izan daitezen, ageriko izan daitezen kulturaren eskaintzan, emakumeen eragina indartu dadin eskaintza hori moldatzen duten antolamendu kulturaletan, eta emakumeen memoria berreskuratu eta transmititu dadin. Genero berdintasunaren konpromisoa ere ardatz guztietan txertatzen da.

#### Auzolana

Plan honek, Eusko Jaurlaritzarena izanik, gobernutik har daitezkeen neurriak eta konpromisoak biltzen ditu. Baina bistan da konpromiso horiek betetzeko ezinbestekoa dela Gobernuko sail desberdinen eta Euskadiko erakunde desberdinen lankidetzeta. Auzolanaren kontzeptuak sortzaileekin, eragile pribatuekin eta erakundeekin batera lan egiteko borondatea eta premia biltzen ditu. Plan honek Gobernuak egin nahi duena adierazten du, baina Gobernuak ezin du hori dena bakarrik egin.

**4.**

**EKINTZAK**

## 4.1.

### HELBURU ESTRATEGIKOAK, JARDUN LERROAK ETA EKINTZAK

#### HELBURU ESTRATEGIKOAK (HE)

2028 Plan Estrategikoak, kulturgintzaren hiru ardatzei erantzuteko, lau helburu nagusi identifikatzen ditu:

1. Talentua garatzeko aukerak ugaltu.
2. Kultura eskaintza aberastu eta gizarteratu.
3. Kultura ondarea eta komunitateen garapena uztartu.
4. Jauzi digitala sustatu eta ahalbidetu.

Lehen hiru helburuak zuzenean daude hiru ardatzei lotuak, eta laugarrena zeharkakoa da, alderdi guztietan eragiten baitu bizi dugun eraldaketa digitalak. Lau (3 + 1) helburuetan jasotzen dira Sailburuordetzaren politikak, sorkuntza eta produkzioa sendotzea, kultura eskaintza gizarteratzea eta merkaturatzea, eta memoriaren transmisioa indartzea. Hiru ardatzak sendotu behar dira batera kulturaren sistema bizia eta emankorra izango bada, modu analogikoetan bezala, modu digitaletan.



Laugarren helburua zeharkakoa dela esaten dugu, sorkuntzan, ekoizpenean, kultura eskaintzan eta ondarearen gizarteratzean eragiten baitu mundu digitalak. Jauzi digitala helburu espezifiko batean jaso da Plan Estrategiko honetan, daukan garrantzia adierazia gera dadin, baina beste hiru ardatzetan ere landuko dira eraldaketa digitala errazteko eta onuragarri egiteko neurriak.

Lehen esan den bezala, hiru ardatzeko eskemari bi konpromiso erantsi behar zaizkio, gure politiken nortasuna definitzen dutenak: kultura euskaraz sortu eta bizitzeko borondateari eta emakumeen berdintasunerako eskubideari erantzuten diote bi konpromiso horiek.

#### JARDUN LERROAK

Kultura 2028 Plan Estrategikoaren 4 helburu estrategikoak 16 jardun lerrotan gauzatzen dira:

##### 1. HE: TALENTU SORTZAILEA GARATZEKO AUKERAK UGALDU

Kulturaren sorkuntzan, ekoizpenean eta hedapenean, talentu sortzailea ezinbestekoa da. Sorkuntza ahalbidetzeari, jardunaren baldintza profesionali, nazioartekotzeari eta kultura industriren sendotasunari begiratzen dio helburu honek.

- 1.1. Sorkuntzaren eta ekoizpenaren susperraldia ahalbidetu.
- 1.2. Sortzaileen eta kulturgileen profesionalizazioa areagotu
- 1.3. Kultura industriren sendotasuna ahalbidetu.
- 1.4. Kultura eta Sormen Industriak garatu
- 1.5. Kulturzaletasuna areagotu, erakunde arteko lankidetzan.
- 1.6. Euskal kulturaren nazioarteko presentzia indartu, Euskadi-Basque Country Estrategiaren baitan.

## 2. HE: KULTURA ESKAINTZA ABERASTU ETA GIZARTERATU

Kulturaren hiru alderdi nagusi biltzen dira hemen: zaletasuna, eskaintzaren oparotasuna eta haren bikaintasuna; hau da, gizarte guztiaren eskura jartzea kultura deskubritzeko, gozatzeko eta lantzeko aukerak, zaletasuna sustatuz eta kultura praktikak sendotuz; kultura eskaintza oparoa ahalbidetzea erakunde programatzaileen bidez, bai euskal gizartearentzat, bai nazioarteko publiko espezializatuentzat. Kultura demokratizatzeko konpromisoa nazioarteko proiektzioa indartzearekin uztartzen da. Honetan ere, ezinbestekoa dugu Foru Aldundien eta udalen arteko elkarlana eta kooperazioa.

- 2.1. Euskal kulturaren ikusgaitasuna eta hedapena areagotu.
- 2.2. Irakurzaletasuna bultzatu.
- 2.3. Artearen sistema garatu eta sendotu.
- 2.4. Eskaintza sendotu, euskal gizarteari eta nazioarteri begira.

## 3. HE: KULTURA ONDAREA ETA KOMUNITATEEN GARAPENA UZTARTU

Kultura ondarea aberasteko, kudeatzeko, gizarteratzeko eta transmititzeko politikak biltzen ditu helburu honek. Ez da nahikoa kultura ondarea konformatzen duten elementuak identifikatzea, jasotzea, zaintzea edo gordetzea; kudeatu egin behar dira, zentzu zabalean, jasangarritasunaz eta bideragarritasunaz ere arduraturik. Erakunde guztion eginkizuna da hori, koordinazio etengabea garatu beharrekoa, kultura ondareari buruzko eskumenak Foru Aldundiekin eta udalekin partekatuta daudenez.

Baina ondarearen transmisioa ezinezkoa da gizarte osoaren ardurarik gabe. Belaunaldien artean benetako transmisioa gerta dadin, ezinbestekoa da herritarrek beren ondarea ezagutzea, baloratzea eta maitatzea. Plan honek garrantzi berezia ematen dio ondarearen gizarteratzeari, hura ezagutzeari, ulertzeari, eta bereganatzeari, izan ondare materiaduna nola materiagabea, higiezina nola higikorra, transmisioa funtsezkoa baita herri eta gizataldeen identitatean eta iraupenean.

- 3.1. Ondarearen babeserako legedia eguneratu eta garatu.
- 3.2. Industria eta itsas ondarearen babesa eta ezagutza indarberritu.
- 3.3. Ondare materiadun eta materiagabea kudeatu, babestu eta ikertu.

## 4. HE: JAUZI DIGITALA SUSTATU ETA AHALBIDETU

Zeharkakoa da berez jauzi digitalean aurrera egin nahi duen helburu estrategiko hau, baina, planaren helburu espezifiko honi dagokionez, hiru jardun lerro identifikatzen dira: (i) kulturaren euskal esparru digital publikoa eraikitzea, (ii) sare eta plataformetan euskal edukiak txertatzeko eta edukiak euskaraz jasotzeko aukera ahalbidetzea, eta (iii) kulturaren irisgarritasunerako eta ikusgaitasunerako baliabide digitalak garatzea.

- 4.1. Kultura ondarearen hedapenerako euskal esparru digitala sustatu eta egituratu.
- 4.2. Euskal kulturaren presentzia ingurune digitalean indartu
- 4.3. Trebetasun digitala sendotu, kudeaketan, komunikazioan eta ekoizpenean



## EKINTZAK

# 1. HE: TALENTU SORTZAILEA GARATZEKO AUKERAK UGALDU

### 1.1. Sorkuntzaren susperraldia ahalbidetu.

- 1.1.1. Sorkuntza sustatu eta ahalbidetu, euskarazkoa bereziki.
- 1.1.2. Sorkuntzarako espazioak, trebakuntzarako aukerak eta sortzaileen egonaldiak (erresidentziak) sustatu eta indartu.
- 1.1.3. Emakumeen ahalduntzea eta presentzia sustatu sorkuntzaren eta ekoizpenaren alorrean, bereziki esparru maskulinizatuenetan.

### 1.2. Sortzaile eta kulturgileen profesionalizazioa areagotu.

- 1.2.1. "Artistaren estatutuaren" markoan, sortzaileen baldintza fiskalak Foru Aldundiekin batera aztertu, adostu eta egokitu.
- 1.2.2. Kulturgileen lan baldintzen hobekuntza sustatu.
- 1.2.3. Kulturgintzako langile eta enpresak, sektore ekonomiko eta laboralak diren neurrian, egokiago egituratzen lagundu.
- 1.2.4. Sortzaile profesionalen errolda egiteko oinarriak adostu.

### 1.3. Kultura industriren sendotasuna ahalbidetu.

- 1.3.1. Kultura industriren jardunerako eta garapenerako erraztasunak eskaini, estrategiak eragileekin adosturik.
- 1.3.2. Ikus-entzunezkoen euskal sistema garatu eta indartu.
- 1.3.3. Kultura industriren jardunean eta kultura erakundeetan ingurugiroaren jasangarritasuna bermatzeko arauak adostu, 2030 Agendarekin bat.
- 1.3.4. Kulturarako inbertsioak eta mezenasgoa erakartzeko arau fiskalen egokitzapena sustatu.
- 1.3.5. Kultura arloko enpresek berdintasun planak eta organizazio modura aldaketa prozesuak gara ditzaten sustatzea, barne kultura berdinzalea lortze aldera.

### 1.4. Kultura eta Sormen Industriak garatu.

- 1.4.1. Kulturaren eta Sormenaren Euskal Barrutiak (BDCC-Basque District of Culture and Creativity) eskaintzen dituen zerbitzuez eta programez kultura eta sormen industriren sendotasuna eta berrikuntza bultzatu, Ekonomiaren Garapeneko Sailaren eta Kultura Sailaren arteko lankidetzan.
- 1.4.2. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana 2030ren baitan, KSIen eremuaren ekarpena areagotu.
- 1.4.3. RIS3ko eremuen arteko gurutzaketa sustatu eta bideratu.
- 1.4.4. KSI Clusterra eraikitzeke pausoak eman, arlo pribatuaren eta publikoaren arteko lankidetzan.
- 1.4.5. KSIgune garatuz, KSIak eta unibertsitateen arteko lankidetzak sustatu, Hezkuntza Sailarekin lankidetzan.
- 1.4.6. Nazioarteko sareetan txertatu eta erreferente bihurtu.

### 1.5. Kulturzaletasuna areagotu, erakundeen arteko lankidetzan.

- 1.5.1. Zaletasunez edo herri ekimenez kulturari dihardutenen ehuna sendotu, arreta berezia emanaz abesbatzei eta dantza taldeei.
- 1.5.2. Kulturaren bitartekaritaz eta komunikazioaz, publikoenganako harremana sendotu.
- 1.5.3. Publiko berriak eta publiko gazteak kulturara erakartzeko proposamen berriak sustatu, gizarte eragileekin lankidetzan.
- 1.5.4. Gaitasun sortzaileak sustatu eta diziplina artistiko desberdinekiko harreman goiztiarra bultzatu.

## **1.6. Euskal kulturaren nazioartekotasuna bultzatu, Euskadi-Basque Country Estrategiaren baitan.**

- 1.6.1. Etxepare Institutuak euskal kultura munduan ezagutarazteko dituen programak indartu.
- 1.6.2. Nazioarteko erreferentziazko programazioetan eta foroetan euskal sortzaileen presentzia ahalbidetu.
- 1.6.3. Nazioarteko erreferentziazko azoketan Euskadiko kultura enpresen presentzia areagotu.
- 1.6.4. Euskarazko literaturaren nazioarteko hedapena sustatu.
- 1.6.5. Aldebiko programa kulturalak garatu Euskadirentzat estrategikoak diren herrialde eta eskualdeekin.
- 1.6.6. Kultura eragileak eta antolamenduak (agenteak, agertokiak, museoak, agiritegiak, etab.) Europako sareetan modu aktiboan txertatzea bultzatu.

## **2. HE: KULTURA ESKAINTZA ABERASTU ETA GIZARTERATU**

### **2.1. Euskal kulturaren ikusgaitasuna eta hedapena areagotu.**

- 2.1.1. Azokak eta jaialdiak sustatu, eta bertan euskal sortzaileen presentzia handitu.
- 2.1.2. Sarien proiektio soziala eta kulturaren komunikazioa areagotu.
- 2.1.3. EITBren lankidetzaz kulturaren gizarteratzean aitzineratu.

### **2.2. Irakurzaletasuna bultzatu.**

- 2.2.1. Irakurketaren garrantzia eta plazerra gizarteratu.
- 2.2.2. Irakurle direnak arretaz zaindu eta berriak erakartzeko programak sustatu.
- 2.2.3. Irakurzaletasuna sustatzeko elkarlana antolatu herri erakundeekin, eragile sozialekin eta hedabideekin.
- 2.2.4. eLiburutegia gaurkotu eta hezkuntza sistemarako egokitu.
- 2.2.5. Euskadiko liburutegi sarea osatu, indartu eta erreferentzialtasuna areagotu.
- 2.2.6. Euskal liburutegizaren eskaintza aberastu, gazte literaturan bereziki.

### **2.3. Artearen sistema garatu eta sendotu.**

- 2.3.1. Euskadiko museoen mapa sendotzen jarraitu.
- 2.3.2. Museoen arteko egitasmo partekatutak eta erosketa bateratuak sustatu.
- 2.3.3. Artearen dokumentazio zentro eta artxiiboak elkarren osagarritasunean garatu.
- 2.3.4. Sistemako gainerako eragileen bizitasuna sustatu.
- 2.3.5. Museoek eta arte zentroek beren jardueran, erakusketetan, bildumetan eta erabaki organoetan genero ikuspegia txerta dezaten bultzatu.

### **2.4. Eskaintza sendotu, euskal gizarteari eta nazioarteari begira.**

- 2.4.1. Museo guztien arteko lankidetzari, osagarritasunari eta garapen digitalari lagundu.
- 2.4.2. Euskadiko antzokien SAREA indartu eta ekoizpenarekin lotu.
- 2.4.3. Euskadiko Orkestraren nazioartekotasuna eta jardun digitala ahalbidetu.
- 2.4.4. Jaialdi nagusien nazioarteko eragina areagotu.
- 2.4.5. Genero berdintasuna bermatu eta emakumeen ahalduntzea bultzatu kultura eskaintzan.

## **3. HE: KULTURA ONDAREAREN ZAINTZA ETA KOMUNITATEEN GARAPENA UZTARTU**

### **3.1. Ondarearen babeserako legedia eguneratu eta garatu.**

- 3.1.1. Dokumentu Kudeaketa Integralaren eta Dokumentu Ondarearen Legea onartu, indarrean jarri eta garatu.
- 3.1.2. Euskadiko Artxibo Historikoaren erreferentzialtasuna sendotu.
- 3.1.3. Erakundeen arteko lankidetzan bermatu agiritegien irisgarritasun digitala, gizartearekiko zerbitzua hobetzeko.
- 3.1.4. Ondarearen zaintzarako lankidetzeta eta adituen aholku batzordeak indartu.

### **3.2. Industria eta itsas ondarearen babesa eta ezagutza indarberritu.**

- 3.2.1. Orconera-ko Ondare Industrialaren Euskadiko Gordailua (Lutxanan, Barakaldon) zabaldu eta ezagutzera eman.
- 3.2.2. Lehentasuneko Jarduera Eremuetan, Berpiztu Programaren bidez, ondare industrialaren babesa tokiko garapen sozio ekonomikoarekin uztartu.
- 3.2.3. Ondare industrialak ezagutzera eman, haren berrerabilera bultzatu eta gizartean harekiko atxikimendua sustatu.
- 3.2.4. Itsas ondarea babestu, kudeatu eta gizarteratzeko programak garatu.
- 3.2.5. Sustapen ekonomikoaren, turismoaren, ingurugiroaren eta hirigintzaren alorrekin lankidetzeta sendotu, jasangarritasuna erdigunera ekarri.

### **3.3. Ondare materialak eta materiagabea kudeatu, babestu eta ikertu.**

- 3.3.1. Kultura ondarearen kudeaketa, babesa eta berrerabilera ahalbidetu eta haren zabalkundea sustatu.
- 3.3.2. % 1eko laguntza indartu, ondarearen zaintzan udalen eta jabeago pribatuaren ardurakidetasuna ahalbidetzeko.
- 3.3.3. Ondare ukiezinaren babesa bertan inplikaturako eragileekin lankidetzan artikulatu.
- 3.3.4. Memoria soziala berregin eta berreraiki dadin sustatzea, emakumeek ondareari eta kulturari egiten dizkieten ekarpenak ikusaraziz.
- 3.3.5. Kultura Ondareari buruzko ikerketak bultzatu, ezagutza berriak sortu eta gizarteratu.
- 3.3.6. Ingurugiroaren jasangarritasunerako 2030 Agendaren ildoak ondarearen alorrean adostu eta indarrean jarri.

## **4. HE: JAUZI DIGITALA SUSTATU ETA AHALBIDETU**

### **4.1. Kultura ondarearen hedapenerako euskal esparru digitala sustatu eta egituratu.**

- 4.1.1. Euskariana, euskal kulturaren atari digitala, abian jarri, garatu eta elkarlanean aberastu.
- 4.1.2. eLiburutegia indartu eta egokitu.
- 4.1.3. Arte eszenikoaren gordailua eta atari digitala martxan jarri.
- 4.1.4. Itsas ondarea eta ondare industrialak ingurune digitalera ekarri.
- 4.1.5. Kulturaren gordailu tematikoen digitalizazioa indartu.
- 4.1.6. "Museotik" izeneko plataforma garatu, Emsimetik abiatuta.

### **4.2. Euskal kulturaren presentzia ingurune digitalean indartu.**

- 4.2.1. Eduki digitalen sorkuntza eta hedapena sustatu, euskarazkoei arreta berezia eskainiz.
- 4.2.2. Nazioarteko plataforma tematikoetan euskal edukien eskaintza sustatu.
- 4.2.3. EITBren eta MEDIAren arteko lankidetzeta areagotu.

### **4.3. Trebetasun digitala sendotu, kudeaketan, komunikazioan eta ekoizpenean.**

- 4.3.1. Trantsizio digitalerako aukera berriak sustatu.
- 4.3.2. Trantsizio digitalerako beharrezkoak diren teknologien garapen zein transferentziarako dirulaguntzak bermatu.
- 4.3.3. Kulturaren alorrean publiko digitalarekin harremanak sendotzeko baliabideak eskaini.

## 4.2.

### PLANAREN MUGARRIAK

Planak aurkezten dituen 4 helburuak eta 16 jardun lerroak dira, noski, garrantzizkoak. Egingarritasuna erabakigarria izan da horiek guztiak definitzerakoan, eta gauzatzeko konpromisoa hartzen du beraz Plan Estrategikoak. Lan ildo eta ekintza horien artean nabarmenenak, legealdia argien markatuko dutenak, zerrendatzen dira hemen, mugarri gisa aurkezturik.

## 1. Talentu sortzailea garatzeko aukerak ugaldu

Talentu sortzailearen bizitasuna eta kultura industriren sendotasuna sustatzea da plan honen aurreneko helburua. Sorkuntza eta ekoizpenerako laguntza bereziaz gain, talentua sorrarazteko, erakartzeko eta garatzeko aukerak zabalduko dira.

– Alor guztietan **trebakuntzarako** dauden programak indartzearekin batera, **erresidentzia** edo egonaldien sustapena eta, batez ere, programa horien nazioartekotasuna bultzatuko dira.

– Covid-19ak areagotu egin du **sortzaileen lan baldintzak** hobetzeko premia. Hiru alderditatik helduko zaio arazoari: **fiskalitatea, kontratazioa eta errolda**. Sortzaileen trataera fiskala kulturaren ezaugarrietara egokitzea izango da mugarri helburu horretan. Euskadik dituen eskumenen baitan “Artistaren estatutua” deritzona egikartzeko prozesua abian da, Jaurilaritzako eta Foru Aldundietako Ogasun Sailekin lankidetzan, jakina. Oraindik Euskadiren eskumena ez diren alorretan ere

(lanbide arauak, Gizarte Segurantzza, etab.) jardun sortzailearen berezitasunak aitortu daitezkeen Estatuarekin politikoki ere lan egin beharko da, “estatutu” hori eraginkorragoa izan dadin.

Kulturgileen kontratazioarako **praktika egokien gida** bat landuko da halaber, sektorearekin eta gainerako erakundeekin adostua izan dadin. Sektore publikoak kulturaren kontratazioan duen garrantzia kontuan harturik, ekarpen handia egin dezake erakunde arteko eta sektorearekiko adostasunean eraikitako gidak lan baldintzen hobekuntzan. Horri lotuta dago hirugarren alderdia, bete-betean edo partzialki kulturaren eta sorkuntzan dihardutenen errolda egitea eta, horretarako, ezaugarriak eta adierazleak finkatzea, Europa osoan egiten ari diren ahaleginarekin bat. Kulturaren Euskal Behatokia arduratuko da prozesuaz.

– Kultura industriei dagokienez, liburugintzaren sistema eta ikus-entzunezkoena indartuko dira bereziki. Liburugintza sustatzeko politikak Euskadiko Irakurketa Ekintza Planaren baitan landuko dira, eta planak, irakurleak ardatz hartuta, sorkuntzan, ekoizpenean, hedapenean eta komunikazioan eragingo du. **Euskaraz sortzen duten idazleei beka bat** eskaintzea izango da jardun lerro honen ekintza nabarmenetako bat, denbora tarte bat bete-betean literatura lanari eskaini ahal diezaioten.

– **Ikus-entzunezkoen alorra indartzeko, sistema** bezala funtzionatzeko dauzkan aukerak garatuko dira. Sistema kontzeptuak sektorearen eragile eta osagaiak konektatzen ditu. Osagai horien bikaintasuna bultzatzeaz gain, sorkuntzan, ekoizpenean eta hedapenean, Euskadik dituen baliabideak elkarreaginean jartzea da erronka, euskal industriaren ekoizpen ahalmena indartzeko eta nazioarteko filmaketak erakartzeko. Telebista publikoaren (EITB) konpromisoa erabakigarria izango da ekimen honetan ere.

– **Pizgarri fiskalak** hobetzea eta Lurraldean artean partekatzea landuko da, dagozkien foroetan. Mezenasgoaren arauak hobetzea

erabakigarria da kultura industrietan eta, oro har, kulturaren esparruan.

– Kultura eta Sormen Industrien lehiakortasunari eta berrikuntzari dagokienez, **BDCC (Kulturaren eta Sormenaren Euskal Barrutia)** zerbitzua izango da ekarpen nagusia. Urteotan zehar joango da zerbitzuak aberasten eta enpresen beharretara egokitzen, kudeaketa hobetzeko, berrikuntza areagotzeko eta nazioartekotasunean aitzineratzeko.

– Nazioartekotzean, aipagarriena, bere eraginagatik, **Etxepare Institutuak** garatzen dituen **aldebiko programak** dira. Eskoziarekin zabaldu zen ildotik, Quebecekin, Flandriarekin eta Japoniarekin landuko dira harremanok, proiektioa, lan sarearen sendotzea eta kultura diplomazia bateratuz.

– Euskal sortzaileen lana nazioartean ezagunago egiteko programak hobetzeko eta eguneratzeko prozesuak aurrera egingo du. **Kimuak**, Euskadiko film laburrak nazioartean ezagutarazten dituen, Zineuskadik kudeatuko du, zinemagintzarako gainerako ekintzekin hobeto koordinatuta beraz. **Zabal** landuko da, atzerriko komisarioak euskal artisten lana ezagutzera gonbidatzeko programa.

## 2. Kultura eskaintza aberastu eta gizarteratu

Bi mugarri aipatu behar dira kultura eskaintzari dagokion helburuan: Irakurzaletasun Planaren garapena eta Artearen Euskal Sistema sendotzea.

– Irakurzaletasunari dagokionez, **Irakurzale-tasuna sustatzeko Ekintza Plana** zehaztea izango da lehen mugarria, indarrean dauden neurriak koordinatuagoak eta eraginkorra-

goak izan daitezen, batetik, eta premiazko lan ildo berriak definitu ahal izan daitezen, bestetik. Ekintza Planaren garapenerako, elkarlanean ari dira Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, Hezkuntza Saila, eta Gazteria Zuzendaritza, liburutegiak eta sektorearen ordezkariarekin batera.

Planaren baitan, **eLiburutegia** hezkuntza sarearen premiei eta ahalmenei egokitzeko prozesua burutuko da, hau ere Hezkuntza Sailarekin lankidetzan.

Irakurzaletasuna sustatzeko eta kultura eskaintza gizarteratzeko herri eta hirietako liburutegiak funtsezkoak direnez, liburutegi sarea indartzea, liburutegien eta liburuzainen eginkizunari daukan garrantzia ematea bereziki zainduko dira. Beste hainbat ekintzen artean **Liburutegien Aholku Batzordea** bultzatuko da, Liburutegien Legea betez, eta liburutegien mapa eguneratu egingo da.

– **Artearen Euskal Sistemari** sakontzeak esan nahi du osagai edo elementu bakoitzaren garapenari laguntzea, eta osagai guztien elkarlan ordenatua bultzatzea. Sistemaren osagaien artean museoek duten eragina kontuan harturik, haien arteko lankidetzak eta osagarritasuna landuko da, zenbait xede zehatz eta egingarriaren inguruan. **Programa partekatuak** bultzatuko dira (Eremuak, Komisario Berriak...), egonkortu egingo dira Covid-19ari erantzuteko aktibatu ziren **erosketa partekatuak**, koordinazioa eta komunikazioa bateratua sendotuko da, adibidez Eduardo **Chillidaren eta Nestor Basterretxearen mendeurrenetan** (2024). Sistema guztiarekin landuko da, halaber, museoaren gordailu digital berria, **Museotik** (ikus jauzi digitalaren atala).

– Euskadiko arte museoaren eskaintza sendotzea eta hobetzea garrantzizkoa da artearen sistemaren sendotasunerako. Urteotan, museoak egungo erronkei eta eskaerei egokitzeko inbertsio berrien mugarri nagusia **Bilboko Arte Eder Museoaren zabalpena** izango da, museoaren lekuz, zerbitzuz eta proiektioz indarberrituko duena. Bestalde, **Guggenheim Urdaibai** egitasmoaren oinarri zehatzak jarriko dira.

– Bereziki garrantzitsua izango da **arte dokumentazio zentroen** garapena: Bilboko Arte Ederren Museoa **Arteder egitasmoa** ari da garatzen eta eraldatzen, eta **Euskal Artista Emakumeen Dokumentazio Zentroa / Praktika artistikoak eta arte feministaren teoriak** ari da Artium Museoa antolatzen. Bien arteko osagarritasuna eta bateratasuna bermatuko dira. Gero landuko da gainerako gordailu, agiritegi eta dokumentazio zentroekiko koordinazioa.

– Era berean, **funts publikoen bidez finantzaturako museoetan eta arte-zentroetan** (hezkuntza programetan, obren erosketan, erakusketetan, erabakiak hartzeko egituren osieran, etab.) **genero ikuspegiaren integrazioa** areagotuko da, Emakumeen eta Gizonen berdintasuna lortzeko eta Emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko 4/2005 Legearen aginduari erantzunez; izan ere, 2022ko aldaketen ondoren, legeak berriaz aipatzen ditu museoan eta arte zentroen eremuak.

– Mugarri nagusi horiez aparte, aipatzekoa da **Euskadiko Orkestraren** proiektua sendotzeko eta nazioartekotzeko ahaleginak jarraituko duela eta **Gasteizko Principal Antzokia** berritzeko proiektua gauzatuko dela.

### 3. Kultura ondarea eta komunitateen garapena uztartu

– Dударik gabe, ondarearen zaintzan eta kudeaketan, 2022an onartutako **Dokumentu Kudeaketa Integralaren eta Dokumentu Ondarearen Legea** abiaraztea da mugarri nagusia.

– Horrez gain, urte hauetan industria ondareari emango zaion arreta bereziaren adierazgarri, **Industria Ondare Higigarriaren Zentroa** zabaldu da Lutexana-Barakaldoko Orconera fabrikaren egoitzan; **Bizkaiko Labe Garaien**

ondarea definitu, babestu eta gizarteratuko da, eta Gallartako **Meaztegi** museoari inbertsiorako laguntza berezia emango zaio, hazkunde eta garapen planari ekin ahal izan diezaion.

– Covid-19aren ondoko inbertsio berezien aukera erabiliko du Kultura eta Hizkuntza Politika sailak ondare higiezina, eta batez ere ondare industrial, berreskuratzeko eta sorkuntza prozesuen mesedetan jartzeko, hala nola **Zallan** edo **Erreterian**. **Albaola** itsas faktoriaren garapena ere inbertsio bereziez lagunduko da. Inbertsio puntualak dira Covid-19aren ondorengo susperraldirako pentsatuak, baina gerora ere emankorra gertatuko den bide bat markatzen dute: ondare diren iraganeko eraikinak egungo sorkuntzarako edo bestelako jardueretarako gune bihurtzea. Horien artean egongo dira, baita ere, Donostiako **Miramar Jauregia** eta Irungo **Urdanibia Jauregia** erabilera berrietarako egokitzeko inbertsioak.

– Era berean, **Aiaraldean** ere (Arabako) inbertsioak egingo dira eskualdeko kultura baliabideak indartzeko (**Laudio**) eta ondarearen ikusgaitasuna areagotzeko (**Urduña eta Artziniega**). Izan ere, ahalegin berezia egingo da Arabako ondarea berreskuratzeko eta gizarteratzeko. Arabako Foru Aldundiarekin lortutako akordioak (2022-2028) marko sendoa emango die ekintza horiei eta, bereziki, hitzarmenean biltzen direnei: **Labrazako harresia** eta **Ocioko gaztelua** zaharberritzea eta, batez ere, **Iruña-Veleian** indusketa, ikerketa eta erakarmena berpiztea, aztarnategi erromatar horren balioa ezagutzera emateko.

– Era berean, **Añanako Gatzaga** izango da beste fokoetako bat, ondare arkeologikoa, historikoa, naturala eta materiagabea bateratzen dituen lekua.

– **Zarautz Jauregia** zaharberrituko da Getarian (Gipuzkoa), eta **Elkanoren memoriaren** lekukotza emango duen gune bat antolatuko da bertan. Horrela, berebiziko garrantzia duen ondare kultural eta historiko bat berreskuratzeak ondare materiagabea transmititzeko aukerak zabaltzen ditu. Bizitza berria emango zaio jauregiari eta jarraipena, berriz,



Elkano eta Lehen Mundubiraren bostgarren mendeurrenaren inguruan sortu diren eta batik bat Mundubira Fundazioak antolatu dituen ekintzei eta lan ildoari. Proiektu hau ere elkarlanean egingo da Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Getariako Udalarekin.

– Udalen ardurapeko eta jabeago pribatuko **ondarea kudeatu ahal izateko dirulaguntzak** —%1 izenaz ezagutzen dena— indartuko dira, Ogasun sailarekin kopuru berriak hitzartu ostean, herri ondarearen zaintzan eragile guztien ardura sustatzeko.

– Larrialdi klimatikoaren ondoriozko arriskuei erantzuteko, eta 2030eko Agendaren Garapen Iraunkorreko Helburuekin bat etorritik, **larrialdien aurrean kultura ondasunak babesteko lurralde plan** bat egingo da, museoetan eta bilduma zentroetan kultura ondasunak kontserbatzeko eta babesteko planak egitea bultzatuko da, eta **kultura ondarea kontserbatzen duten erakundeetan ingurumen-iraunkortasuna sustatuko da**, energia eraginkortasuna azpimarratuz.

## 4. Jauzi digitala sustatu eta ahalbidetu

– **eLiburutegia**, pandemiaren garaian bere benetako balioa eta potentzialtasuna frogatu ondoren, kultura eskaintza aberastera dator, baina jauzi digitalean kokatzen du Plan estrategiko honek, kulturaren sistema publikoaren baliabide digital ezinbestekoa baita. Erramintak hobetzearekin batera, funtzio berriak bereganatuko ditu eLiburutegiak, hala nola audio-liburuak eta ikus-entzunezkoak eskaintzeko aukera. Horrez gain, hezkuntza sistemarako eta irakurketa planerako ego- kituko da.

– **Euskariana** abian da. Euskal kultura osoaren atari digital nagusia bilakatzeko, euskal herritar guztientzako erabilgarri, erakunde publiko eta pribatuen elkarlan sarea zabaltzen, funtsak aberasten, eskaintza erakargarriagoa egiten,

eta erabiltzaileentzako zerbitzuak hobetzen joango da Euskariana.

– Bestalde, Euskarianaren sorrerak begi bistakoagoak egiten ditu zenbait alorretan dauzkagun hutsuneak: nabarmenena, arte eszenikoaren ondarearen bilgunerik eza eta, beraz, hura transmititzeko eta eskuragarri jartzeko zailtasunak. Hutsune hori betetzeko xedeaz, **Taula izeneko atari eta gordailu digitala** sortuko da legealdi honetan.

– **Museotik** izeneko lanabes berri bat abiaraziko da. Gaur egun Emsime da Euskadiko museoek katalogazio bateratua egiteko erraminta eta euskal museoek funtsak bere osotasunean ezagutzeko plataforma bateratua. Museoek Aholku Batzordeak gidatu du hura eguneratzeko eta hobetzeko prozesua. Museotik izeneko plataforma berria ekarri du auzolaneko ekimen horrek, eta zerbitzu zabalagoak, erabilgarritasun eta erakargarritasun handiagoak eskainiko ditu. Museoek elkarrekin lan egiteko lankidetzan ondutako proiektua izanik, plataforma honek berebiziko garrantzia du artearen euskal sistema sendotzeko.

– Kultura zerbitzuetan sortzen diren **datu digitalak kudeatzeko eredu** landuko da legealdi honetan, zerbitzuak hobetzeko eta datuen zorrotasuna eta ezagutza azkartzeko. Datuen erabilera egokia eremu publikoak ezin du bazterrean utzi.

## Gobernantzaren mugarriak

Planean zehazten diren helburuetatik at egonagatik ere, gobernantzari dagozkion zenbait ekintza aipatu behar dira, helburuok burutzeko funtsezkoa baita auzolana antolatzea.

– Bistan da plan honetako konpromiso asko lankidetzan soilik gara daitekeela. Beraz, ezinbestekoa da erakundeen arteko koordinazioa. **HAKOBA Kulturaren** eginkizuna indartuko da eta bere garrantzia areagotu egingo da legealdi honetan.

– Alorrez alor, erakunde desberdinak eta sektoreko eragileak, indar publiko eta pribatuak, elkarreraginean jartzeari esaten diogu **sistema bezala funtzionatzea**. **Artearen Euskal Sistema** da bide hori jorratuen duen alorra. **Ikus-entzunezkoen euskal sistema** ere beharrezkoa da indarrak biltzeko esparru eta merkatu globalen aurrean. Irakurketa Planak ahalbidetuko du **liburugintzaren** barne koordinazioa eta eginkizunen osagarritasuna, eta **musikan**, batez ere "klasikoa" esan ohi zaion musika motan, eginak dira lehen urratsak sistema gisa ordenatzeko xedeaz, musika eskoleetatik Musikeneraino, orkestrak eta jaialdi espezializatuak bilduz.

– **Kulturaren Euskal Behatokiaren** eginkizuna funtsezkoa izango da hurrengo urteetan ere. Gero eta garrantzi handiagoa hartu du, gero eta eremu zabalagoa artatzea dagokio, eta legealdi honetan, **gainerako behatokiekiko koordinazioan** sakonduko du, Eustatekin eta Orkestra Lehiakortasunerako Euskal Institutuarekin batez ere. Halaber, oinarri sendoak jarriko ditu **sortzaileen erroldarako**, Unescok eta Europar Parlamentuak egin dituzten eskariei erantzunaz.

– Kulturaren Euskal Behatokia lankide ezinbestezkoa da, halaber, **kulturaren adierazleak** lantzeko ahaleginean. Ezin bestekoa da zentralitatea bilatzen bada, gainerako lan alorrekin diagnostikoak partekatu behar

badira, kulturaren eragina ageriko egin nahi bada. Adibide gisa, Gobernuaren Plan Estrategikoen moldean sartzeko edota 2030 Agendaren metodologiak **kulturaren eragina** neurtzeko adierazleak zorroztea eskatzen dute: ekonomikoak, sozialak eta bereziki kulturalak.

– Lan ildo horren adierazgarri, eta kulturaren eragin ekonomikoari dagokionez, prozesu bat zabalduko da adierazleak erabakitzeko, **tresna informatiko bat** sortzeko xedez, kultura antolamendu bakoitzak bere **jardunaren eragin ekonomikoa neurtu** ahal izan dezan, barrutik eta barne prozesuetan txertatuta. Hasieran, eta pilotu moduan, proiektu hauek proposatu dira, lurralde banatan: Arabako Añana, Barakaldo Antzokia, eta Donostiako DFeria nazioarteko antzerki azoka.



5.

**PLANGINTZA  
EKONOMIKOA**

## 5.

### PLANGINTZA EKONOMIKOA

Kultura 2028 Plan Estrategikoaren abiapuntua 2021 urtea da; 2021 eta 2022an egin da, 2023an onartu da, eta bere indarraldia 2028 urtera artekoa izango da. Aldiz, egiten den plangintza ekonomikoa 2025era bitartekoa da Plan Estrategikoan proposatzen diren ekintza konkrituak eta horien aurrekontuak epe horretarako aurreikusten direlako. 2021, 2022 eta 2023 urteetako Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailburuordetzaren aurrekontuetan oinarritzen da denbora tarte horretan plana exekutatzeko egindako aurreikuspen ekonomikoa. Plan estrategikoa lau helburu estrategikoren arabera dago egituratua, eta baliabide ekonomikoak ere honela banatzen dira helburuka (lau helburuez gain, gastu orokorren atal bat ere sortu da, non gobernantza partekatuekin zerikusia duten jarduerak, langile gastuak eta bestelako gastu orokor batzuk jaso diren):

2021eko aurrekontuak planean jasotako zenbait helburu eta ekintzaren abiapuntu dira; izan ere, 2021eko aurrekontuetatik finantzatu dira Kultura 2028 Plan Estrategikoan garatuko diren zenbait egitasmoren lehen urratsak.

Bai 2021 eta baita 2022 ere (eta 2023a ere bai, neurri txikiagoan bada ere), inbertsio handiko urteak izan dira, eta ez ohiko finantzaketa mekanismoak aktibatu dira Jaurlaritzan, besteak beste, 2020ko azaroaren 3an Gobernu Kontseiluak onartutako Berpiztu Programa, eta bestelako ez ohiko inbertsioak, plan estrategiko honen garapenean pisu handia hartzen dutenak. Izan ere, Covid-19aren pandemia gaitzeko bidean, Euskadiren susperraldirako garai berri bateko oinarriak finkatzeko urteak izan dira, hain zuzen.

HELBURU ESTRATEGIKOAK	2021	2022
Talentua garatzea	26.409.511	25.672.151
Eskaintza aberastea eta gizarteratzea	27.094.540	29.420.001
Ondarea eta gizartearen garapena uztartzea	7.403.939	17.354.803
Jauzi digitala sustatzea	1.183.831	2.505.483
Orokorrak	5.943.751	5.383.312
Gobernantza partekatua	1.642.149	765.000
Langile gastuak	3.769.723	4.098.312
Beste batzuk	531.879	520.000
<b>GUZTIRA</b>	<b>68.035.572€</b>	<b>80.335.750€</b>

2022ko Kultura Sailburuordetzaren aurrekontuetan jaso dira bai Berpiztu Programan aurreikusten diren kultura arloko inbertsioak, baita beste inbertsio berezi batzuk ere, eta horren ondorioz, inbertsio horiei lotuta dago hein handi batean 2022ko aurrekontuen hazkundera.

Izan ere, Berpiztu Programako eta bestelako inbertsio berezi gehienak 2021ean hasi eta 2022 eta 2023 urteetarako aurreikusita daude bereziki. Horregatik gertatzen da planaren indarraldiaren lehen bi urteetan aurrekontu hazkunde handiena. Inbertsio horiek 2024 eta 2025erako burutuak egongo direnez, apalagoak dira urte horietarako aurreikuspenak. Alegia, modu xehean aztertu behar da planaren urtez urteko aurrekontuaren bilakaera, horrek azaltzen baitu zenbaki orokorren hasierako hazkundera (2022 eta 2023ko inbertsio berezien urteak, batik bat ondare arloan), eta ondorengo jaitsiera (2024 eta 2025).

2021-2025 aurreikuspen ekonomiko honetan jaso dira Europaren Errekuperaziorako Planetik Euskadira etorritako funtsak; Espainiako Gobernuaren bitartez banatutakoak ere (MRR), oraingoz, 2022 eta 2023rako daude aurreikusita. Inbertsio berezi hauek azaltzen dute halaber, planaren zuzkidura ekonomikoari dagokionez, lehen bi urteetan egin den aurreikuspena. Hauei gehitu beharko zaizkie, unea iristean, hurrengo urteetan etor litezkeen beste europar funts batzuk ere, Euskadi Next Euskadiren Susperraldirako eta Erresilientziarako 2021-2026 Programan jasotako proiektuetarako aurreikusitakoak, adibidez.

Azpimarratu behar da, beraz, oinarrizko aurrekontuari dagokionez, helburu estrategiko guztien artean oreka bilatu dela, eta guztietan egin dela urtez urte % 3ko hazkundeko aurreikuspena.

Azkenik, jauzi digitalaren helburu estrategikoaren zuzkidura ekonomikoa txikiagoa den arren beste helburuekin

alderatuta, azpimarratu behar da zeharkako helburu estrategikoa dela, eta, hortaz, ezin dela modu isolatuan interpretatu. Datu ekonomiko horren aurreikuspena beren-beregi eraldaketa digitala helburu duten ekintzen arabera egin da. Baina gainontzeko helburu estrategikoetan ere badaude erronka digitalarekin zerikusia duten ekintzak, eta, horren ondorioz, plan guztian zehar aurki daitezke jauzi horretarako inbertsioak eta gastuak.

Amaitzeko, 2026-2028 aldirako aurreikuspen ekonomikoa Plan Estrategikoaren garapenaren eta egoera ekonomiko orokorren bilakaeraren arabera egingo da 2025 urtearen amaieran, Planaren atal hau eguneratua eta osatua izango delarik orduan.



Horiek horrela, honako hau da Kultura 2028 Plan Estrategikoaren 2023-2025 aldirako aurreikuspen ekonomikoa:

HELBURU ESTRATEGIKOAK	2022	2023	2024	2025
<b>TALENTUA GARATZEA</b> Aurrekontu programak: 4513/5414/1229/1228	25.672.151 €	21.808.473 €	21.301.732€	21.940.784 €
Oinarrizko aurrekontua	19.774.600	20.681.293	21.301.732	21.940.784
Covid-19	2.557.918			
Berpiztu	2.152.429	320.000		
Inbertsio bereziak				
MRR Funtzak	1.187.204	807.180		
<b>ESKAINZA ABERASTEA ETA GIZARTERATZEA</b> Aurrekontu programak: 4513/4514/1228	29.420.001 €	30.420.835 €	30.197.712 €	31.103.643 €
Oinarrizko aurrekontua	28.017.334	29.318.167	30.197.712	31.103.643
Covid-19				
Berpiztu				
Inbertsio bereziak	300.000			
MRR Funtzak	1.102.667	1.102.668		
<b>ONDAREA ETA KOMUNITATEA UZTARTZEA</b> Aurrekontu programak: 4513/4514/1228	17.354.803 €	17.703.620 €	8.805.340 €	8.039.500 €
Oinarrizko aurrekontua	6.678.075	7.578.000	7.805.340	8.039.500
Covid-19				
Berpiztu	7.350.000	5.625.000	1.000.000	
Inbertsio bereziak	1.630.000	3.703.892		
MRR Funtzak	1.696.728	796.728		
<b>JAUZI DIGITALA SUSTATZEA</b> Aurrekontu programak: 4513/4514/1228	2.505.483 €	1.296.484 €	655.080 €	674.732 €
Oinarrizko aurrekontua	1.568.000	636.000	655.080	674.732
Covid-19				
Berpiztu				
Inbertsio bereziak	830.000	600.000		
MRR Funtzak	107.483	60.484		
<b>OROKORRAK</b> Aurrekontu programak: 4513/4514	5.383.312 €	6.071.140 €	6.253.274 €	6.440.872 €
Gobernantza partekatua	765.000	981.000	1.010.430	1.040.743
Langile gastuak	4.098.312	4.570.140	4.707.244	4.848.462
Beste batzuk	520.000	520.000	535.600	551.668
<b>GUZTIRA</b>	80.335.750 €	77.300.552 €	67.213.138 €	68.199.532 €

A stylized, abstract profile of a human face, rendered in shades of gray. The face is composed of various geometric shapes, including a large circle for the eye, a smaller circle for the nose, and a large, curved shape for the mouth and chin. The background is a solid dark gray.

6.

KULTUR POLITIKAK:  
**GOBERNANTZA  
PARTEKATUA**

## 6.

### KULTUR POLITIKAK: GOBERNANTZA PARTEKATUA

Koordinazioa, ardurakidetasuna eta kooperazio edo lankidetzak ezinbestezkoak dira kulturaren alorrean, kultura politiken ardura partekatua delako Euskadin, sektoreari behar den moduan erantzun ahal izateko aurrenik entzun egin behar zaiolako, kulturaren sektore publikoak indar erabakigarria baitu.

Plan estrategiko honek Gobernuaren baitan, erakundeen artean, sektorearekiko harremanetan eta kulturaren sektore publikoarekiko lankidetzan gauzatzen du gobernantza partekatua.

- Eusko Jaurlaritzako barne organoetan
- EAEko gainontzeko herri erakundeekiko koordinazioan (Foru Aldundiak eta Udalak)
- Kultura eragileen eremu publikoan (museoak, kulturguneak, liburutegi-agiritegiak, antzokiak...)
- Kultura sektoreko eragileekin harremanetan

XII. Legealdian Eusko Jaurlaritzaren sailetako bat da Kultura eta Hizkuntza Politika saila. Dekretu horrek berak ezartzen du, halaber, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari atxikita daudela Etxepare Euskal Institutua, Euskal Irrati Telebista, Euskadiko Orkestra eta Euskal Herriko Gazte Orkestra.

Era berean, Lehendakariaren 73/2021 Dekretuak, otsailaren 23koak, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala finkatzen duenean, Kultura Sailburuordetza bi ataletan antolatzen du: Kultura Sustapenerako Zuzendaritza eta Kultura Ondarearen Zuzendaritza. Organo hauek eta hauen baitako zerbitzuak eta atalak dira Eusko Jaurlaritzan kultura politikak, eta zehazki, Kultura 2028 Plan Estrategikoa gidatu, bultzatu eta garatzeko arduradunak.

## 6.1.

### EUSKO JAURLARITZAKO BARNE HARREMANAK ETA KOORDINAZIOA

#### Kultura eta Hizkuntza Politika Saila:

Lehendakariaren 18/2020 Dekretuak, irailaren 6koak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen ditu eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun arloak finkatzen ditu. Dekretu horren arabera,



Plan estrategiko honek Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren barruko koordinazioan sakontzea eskatzen du. Kultura Sailburuordetzaren baitan, aurrenik, egitasmo partekatuak ugarituko baitira, atal, zerbitzu eta zuzendaritza bakoitzaren gaintetik zeharkakotasuna eta osagarritasuna eskatuko dutenak.

Beharrezkoa da, halaber, Hizkuntza Politika Sailburuordetzarekiko (HPS) lankidetzan sakontzea. Bai Kultura 2028 Plan Estrategikoak, eta bai XII. Legealdiko Euskararen Agenda Estrategikoa 2021-2024 dokumentuak ere, biak legealdi berekoak izanik, lankidetzari hori gauzatzeko zenbait lan ildo definitu dituzte. Hizkuntza Teknologia Planaren baitan koordinatuko dira hizkuntzen teknologia euskarari begira garatzeko lantaldeetan, ikusentzunezkoetan euskararen presentzia indartzeko lanean, eta Irakurzaletasun Planean, zeinean garrantzi berezia ematen zaion euskarazko irakurketari eta euskal literaturaren eskaintzari beraz. Euskadiko ingurune digital publikoa zabaltzeko eta sendotzeko lanetan ere, Ingurune Digitalaren Batzordearen gomendioei arreta berezia emango zaie.

Etxepare Euskal Institutuak pisu garrantzitsua hartzen du plan honetan, lehenengo helburu estrategikoko jardun lerro bat nazioartekotzeari dagokiolako beren-beregi (1.4. *euskal kulturaren nazioarteko presentzia indartu*). Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren eta Etxepare Euskal Institutuaren arteko koordinazioa eta lankidetzari bereziki indartu da XI. Legealditik hona, Etxepare Institutua Sailaren Zuzendaritza Batzordean sartzeari esker, neurri handi batean. Hain zuzen, plan honetan nazioartekotzeari dagokion jardun lerroa exekutatze orduan, aipatutako Zuzendaritza Batzordea izango da koordinazio eta sustapen organoa. Bestalde, Etxepare Institutua da Eusko Jaurlaritzak Euskadiren nazioartekotze estrategietarako dituen koordinazio organoetan Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren ordezkaria. Kultura 2028 Plan Estrategiko honetan kulturaren bitartez Euskadiren nazioartekotze ekintzei dagokienez ere, Etxepare Institutua izango da, ekintza horiek modu koordinatuan betetzeko xedeaz, beste nazioartekotze organoekin lankidetzan arituko dena.

Euskal Irrati Telebistari dagokionez, plan honek aintzat hartzen du EITBek euskal kultura sustatzeko duen eginkizuna, "Euskal Irrati Telebista herri erakundea sortzeko maiatzaren 20ko 5/1982 Legeak" berak ezartzen diona, eta 40 urte hauetan bete duena. Datozen urteetan indarrean izango den Eusko Jaurlaritzaren eta EITBren arteko 2022-2025 Kontratu Programa berriak berresten du lege ezarritako hura, EITBren konpromiso garbia hartzen baitu euskal kulturaren sorkuntza eta ekoizpena sustatzeko, gizarteratzeko eta munduan zabaltzeko. Plan honetan EITBren parte hartzea aurreikusten duten ekintzen lankidetzari eta koordinazio eremurako beraz, Sailaren eta EITBren arteko elkarrizketa eta harreman jarraitua ez ezik, EITBren Kontratu Programaren Jarraipen Batzordea ere badago.

## Eusko Jaurlaritzako beste arloak:

Kultura eta Hizkuntza Politika sailaz harago, plan honek Kultura politikari eman nahi dien zentralitateari eta aldeaniztasunari erreparatuz gero, ezinbestean jorratu eta sakonduko dira Jaurlaritzaren baitako beste sailekiko harremanak. Harreman eta koordinazio horretarako, baina, ez da aurreikusten organo berrien sorrerarik, dagoeneko indarrean dauden bestelako koordinazio organo eta guneak baliatzea baizik. Honela ba, honako hauek izango dira koordinazio esparru horiek:

JAURLARITZAKO SAILA	GAIA	KOORDINAZIOA ESPARRUA
<b>Lehendakaritza</b>	Kultura eta Sormen Industriak	Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren jarraipen batzordea
	Euskal kulturaren nazioartekotzea	Euskadi-Basque Country Estrategiaren jarraipen batzordeak
<b>Lan eta Enplegu Sailsa eta Lanbide</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Sortzaileen eta kulturgileen profesionalizazioa</li> <li>- Trebakuntza eta gaitasun berriak</li> </ul>	Bi sailen arteko elkarrizketa eta harreman zuzena
<b>Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailsa eta SPRI</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kultura eta Sormen Industriak</li> <li>- Basque District of Culture and Creativity</li> <li>- Eraldaketa digitala</li> <li>- Ondare industrialak</li> </ul>	Bi sailen arteko elkarrizketa eta harreman zuzena
<b>Ekonomia eta Ogasun Sailsa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Sortzailearen Estatutua</li> <li>- Dirulaguntzen fiskalitatea</li> <li>- Zine industriaren fiskalitatea</li> <li>- Mezenazgoa</li> </ul>	Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoa eta Kultura sailburuordetza
<b>Hezkuntza Sailsa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Goi mailako ikasketa artistikoak: Musikene, Dantzerti, IDarte</li> <li>- Irakurzaletasunaren sustapena (Gazteria Zuzendaritzarekin batera)</li> <li>- KSIGune</li> <li>- Publiko berriak eta publiko gazteak erakartzea kulturara</li> <li>- eLiburutegia hezkuntzan</li> <li>- Euskariana hezkuntzan</li> </ul>	Bi sailen arteko elkarrizketa eta harreman zuzena
<b>Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailsa eta Emakunde</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Emakumeen eta gizonen berdintasuna kultura arloan</li> <li>- Migratzaileen harrera kulturala</li> </ul>	Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordea Bi sailen arteko elkarrizketa eta harreman zuzena
<b>Turismoa, Merkataritza eta Kontsumo sailsa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ondarea eta kultura eskaintza</li> <li>- Done Jakue bidea</li> <li>- Ignaziotar bidea</li> </ul>	Bi sailen arteko elkarrizketa eta harreman zuzena

Barne harremanaz gainera, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak Espainiako Gobernuarekin bitariko elkarrizketa harremana dauka, koordinatu eta adostu beharreko politiketarako. Eta alor espezifikoagotan, Arte Eszenikoen eta Musikaren Estatuko Kontseiluan eta Jacobeo Kontseiluan ere parte hartzen du Eusko Jaurlaritzak.



## 6.2.

### KULTURAREN EUSKAL KONTSEILUA (KEK)

Kulturaren Euskal Kontseilua 219/2000 Dekretuaren ondorioz sortu eta arautu zen. Kide anitzeko partaidetza, lankidetzeta eta aholku organo gorenaren da harrezkero. Orduetik hona, Kontseiluaren funtzionamendua egokitzeko aldaketak egin dira. Orain, Kultura 2028 Plan Estrategikoarekin batera, Kulturaren Euskal Kontseiluaren antolakuntza eta funtzionamenduaren 19/2023 Dekretu berria onartu da. Horren arabera, Kulturaren Euskal Kontseilua eta bere baitako organo eta batzordeak izango dira herri erakundearen arteko eta kultura eragileekiko lankidetzeta eta koordinazio organoak.

Honela osatuta dago Kontseilua:

- Kulturaren sektoreko ordezkariak
- Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua
- Kultura sailburuordea eta zuzendariak
- EITBko eta Etxepare Institutuko ordezkariak
- Eusko Jaurlaritzako Garapen Ekonomikoa, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko, Ekonomia eta Ogasun Saileko, Hezkuntza Saileko eta Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko ordezkariak
- Foru Aldundietako Kultura foru diputatuak
- EAEko hiru hiriburuetako Kultura zinegotziak
- Eudeleko ordezkaria
- Eusko Legebiltzarreko Kultura Batzordeko burua
- Kulturaren Euskal Kontseiluko idazkaria

Kulturaren sektoreko ordezkariak dira Kulturaren Euskal Kontseiluaren muina. Beraiek ekartzen dute Kontseilura sektorearen ahotsa eta iritzia, eta beraiek partekatzen dituzte kulturgileen kezka, aholkuak, eskaerak eta proposamenak Kontseiluko sail eta erakundeekin. Erakundeek badute beste zenbait komunikazio kanal eta lankidetzeta bide, legebiltzarreko Kultura Batzordean edo Kulturaren HAKOBAn.

Osoko Bilkurak erabakitzen ditu legealdirako eta urte bakoitzerako aztergai izango diren gaiak, batzorde berezietan lantzeko. Gai horiek balio estrategikoa izan behar dute, batzordeek helburu

zehatzak izango dituzte, egingarriak eta kultura politiketan aplikatu ahal izateko modukoak. Batzordearen edo lantaldearen emaitzak Osoko Bilkuran aurkezten dira. "Kultura Auzolanean" izena eman zitzaien dinamika horri, zeinak Kontseiluak, bere funtzio begiraleaz aparte, gai konkretuetan urrats konkretuak egin ditzan bilatzen duen.

Kulturaren Euskal Kontseiluak kide anitzeko hiru organo ditu bere baitan:

## 1. Osoko bilkura

Kide guztiak biltzen ditu. Kulturaren Euskal Kontseiluaren organo gorenaren da.

Honako hauek ditu egiteko nagusiak, besteak beste:

- Kultura arloko kudeaketa koordinatuaren aldeko neurriak proposatzea
- Kultura arloan praktika egokiak ezartzeko jardunbideak proposatzea
- Informazioa eta ezagutzak partekatzea, eta egoki balitz, balioan jartzea
- Euskadirentzat erreferenteak izan litezkeen eredu, proiektu edota esperientziak ezagutzera ematea

## 2. HAKOBA kultura

Erakundearen arteko koordinazio gunea 2000. urtean sortu zen, eta orain HAKOBA Kultura (Herri Aginteen arteko Koordinazio Batzordea) izena hartuko du ofizialki. Euskadiko erakunde publikoen arteko koordinazio organo honek ezagutzak trukatzeko du helburu, honako eginkizun hauekin:

- Erakunde publikoen politika publikoak koordinatzea, bakoitzari dagokion eremua errespetatuz
- Datuak, informazioa, esperientzia eta ezagutzak partekatzea
- Auzolana ezinbesteko duten lerro estrategikoak eta ekintzak era koordinatuan kudeatzea



Bere osaera honako hau da:

- Kultura eta Hizkuntza Politika sailburua
- Kultura Sailburuordea eta zuzendariak
- Foru Aldundietako Kultura foru diputatuak
- EAEko hiru hiriburuetako Kultura zinegotziak
- Eudelen ordezkaria
- Kulturaren Euskal Kontseiluko idazkaria

### 3. Batzorde bereziak

Gai zehatzak aztertu eta jorratzeko, batzorde bereziak eratuko dira, bai Kontseiluaren eta bai HAKOBA Kulturaren baitan. Halaber, alor bakoitzeko sistemak garatzeko batzorde eta lantalde bereziak antolatuko dira, Osoko Bilkuraren eta HAKOBA Kulturaren ardurapean beti ere.

## 6.3.

### KULTURAREN ESPARRU PUBLIKOA

Kulturaren esparru publikoan, alegia, herri erakundeen ardurapeko kultura erakunde, antolamendu eta zerbitzuen gobernantzan, hiru modutan parte hartzen du Jaurlaritzak: koordinazioaz, aholkularitaz eta kudeaketaz.

– Koordinazioaz arduratzen da Jaurlaritza liburutegiei, agiritegiari eta antzokiei dagokienez. Hala, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarea dinamizatzen du Jaurlaritzak, liburutegien arteko lankidetzak ahalbidetzeko eta sustatzeko. Eginkizun bera dauka Antzokien Sareari dagokionez, eszenako arteen sustapenerako. Euskadiko Artxibo Historikoa agiritegiaren sistema osoaren erreferente nagusia da, Foru Aldundietako artxiboekin elkarlanean.

– Aholku batzordeen bidez, alorrez alorreko adituen eta sektorearen ordezkariekin

partekatzen ditu Eusko Jaurlaritzak erabakiak. Indarrean daude Euskadiko Museoen Aholku Batzordea, Euskadiko Liburutegien Aholku Batzordea, Dokumentazioa Baloratzeko eta Hautatzeko Batzordea (COVASED delakoa) eta Euskal Kultura Ondarearen EAEko Kontseilua. Halaber, aurreikusia dago Euskal Kultura Ondarearen Erakundearteko Organoaren sorrera edota Euskadiko Artxiboaren Kontseiluarena.

– Kudeaketaren ardura hartzen du Jaurlaritzak, osoa nola partekatua, Euskadiko kultura antolamendu nagusietan. Jaurlaritzaren ardura zuzenekoak dira Euskadiko Orkestra eta EGO (Euskal Herriko Gazte Orkestra), sektore publikoko entitateak direnez. Gainerakoetan, beste erakundeekin partekatzen du Jaurlaritzak ardura, eta ekarpen pribatuarekin zenbait kasutan. Horrela da museo eta kulturguneetan (Guggenheim Bilbao, Bilboko Arte Ederrak, Artium Museoa, Balenciaga, Tabakalera, Ekain, Añanako Gatzaga, Santa Maria Katedrala...), horrela da jaialdietan eta kultura eskaintza zuzenean (Donostiako Zinemaldia, Bilboko Zinebi, Musika Hamabostaldia, Gasteizko Jazzaldia, Opera denboraldia...) eta agiritegi espezializatuetan (Eresbil, Euskadiko Filmategia...).

Kudeaketan eskumenik izan gabe ere, beste erakundeen ardurapekoak direlako, lankidetasun harreman zuzena du Jaurlaritzak, dirulaguntza izendunen bidez, zenbait kultura ekipamendurekin, hala nola Donostiako San Telmo Museoa, Tolosako TOPIC, Gallartako Meatzalde Museoa, Gasteizko Santa Maria Katedrala, eta abarretan. Jaurlaritzak ardura osoa edo partekatua duten kultura antolamenduei Foru Aldundien, Udalen eta Hiriburuen ardurapekoak gehitu behar zaizkio, eremu publikoaren ikuspegi osoa edukitzeko.

Sektore publikoarekiko gobernantzan, kultura antolamenduez (museo, orkestra, gordailu, jaialdi...) arduratzen diren profesionalakiko konfiantza eta kooperazioa giltzarri dira. Kulturaren sistema osoan eragiten dute antolamendu sendo horiek, eta horregatik da garrantzitsua lantalde horien profesionaltasuna, testuinguruarekiko konpromisoa, nazioarteko

ikuspegia eta elkarlanerako gaitasuna. Bide-lagun eta lankide ezinbesteko dira kultura politiketan.

Kulturaren eremu publikoa eraginkorragoa izan dadin, sistema kontzeptua ari da Eusko Jaurlaritza erabiltzen, eragile publiko nahiz pribatuak, norberaren nortasun eta eginkizunaz gain, sistema zabal baten osagai direla adierazteko, hau da, elkarri eragiten dioten elementuak direla. Eta beraz, lankidetza eta koordinazioa premiazkoak dituztela.

Sistemaren kontzeptuak eragile pribatu eta publikoak biltzen ditu. Kulturgintzan oro har ematen da ekimen pribatu eta publikoaren arteko osagarritasuna. Sortzaile eta ekoizleen ekimena pribatua da, kultura antolamenduetan funtsezkoa da finantzaketa pribatua, eta enpresa nahiz fundazio pribatuek kultura dinamizatzen dute beren kultura antolamenduetatik. Kulturaren ere, alor publikoaren eta pribatuaren arteko osagarritasuna eta lankidetza bilatu behar da.

## 6.4.

### **KULTURGILEEKIN ETA SEKTOREEKIN HARREMAN ZUZENA ETA JARRAITUA**

Indarrean dauden lankidetza eta koordinazio batzorde formalez gain, berebiziko garrantzia du kultura politiketan kulturgileekiko harreman zuzenak eta jarraituak. Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak berariaz jorratu du kulturgileekiko elkarriketa, bakarka zein elkarrean bitartez, eguneroko arazo, kezka eta aldarrikapenei buruz, Covid-19 pandemian nabarmena izan den bezala, alor bakoitzeko politikei buruz, horiek sektorearen premietara etengabe egokitzeke, baita epe ertain eta luzerako politikak diseinatzeke ere.

Kultura eragileek ardura eta erabakimen nabaria dute sorkuntza eta ekoizpenerako

jardun lerroen gobernantzan. Sektore bakoitzeko eragileekin eta sektorea egituratzen duten elkarte profesionalekin partekatzen dira erabakiak. Dagokion sektorearekin lantzen eta adosten dira deialdiak eta, oro har, lan ildoak. Deialdi horien gauzatea berriz –laguntzen hartzaileak proposatzea, alegia– sektoreko adituek osatutako batzordeen esku geratzen da.

Orain arte funtsezkoa izan den sektorearekiko harremanak are garrantzi handiagoa hartuko du Plan honetan. Kulturgintza profesionala sustatzeko jardun lerro asko Kulturatik kanpoko sailekin garatu beharko dira; abian diren programa berritzaile askok (KSI, etab.) interlokuzio konplexuagoak eskatzen dituzte, eta Covid-19aren ondoriozko krisi egoerak interlokuzio bateratua eskatzen du, alor bakoitzaz gaindikoa. Interlokuzio bizkorrago, zabalago eta zeharkakoagoa lantzea funtsezkoa izango da datozen garaiotan.

Urteotako kezka izan da Kultura Sailburuordetzan sektorearen egituraketa; horrela, elkarte berriak sustatu dira (EZAE...) edo molde berrikoak eragin (EHMB...), eta sektorearen berregituratzea pentsatzeko lan ildoak proposatu da Kultura Auzolanean dinamikaren baitan. Pandemiak areagotu egin du interlokuzio bizkorreko plataforma zabal, eraginkor eta zeharkako beharra, eta are nabarmenagoa egin du herri erakundeek nahitaezkoa dutela haiekiko interlokuzioa eta lankidetza.

## 6.5.

### KULTURAREN EUSKAL BEHATOKIA

---

Gobernantza partekatua ezinbestekoa du datuen ezagutza partekatzea. Kulturaren datuak biltzeko eta aztertzeko ardura, 2006an sortu zenetik, Kulturaren Euskal Behatokiarena da.

Kulturaren Euskal Behatokiak hurrengo urteetarako dituen erronkak hauek dira: Eusko Jaurlaritzaren, herri erakundeen eta unibertsitateen behatokiak harremanak estutzea, kulturaren sektorea analisi globalagotan ere ager dadin, Behatokiaren nazioartekotzea, Europa mailako eztabaida eta foroetan parte hartzea, eta kultura politikari ebaluazio modu zehatzagoak erdiesteko tresna oinarrikoak izatea. Bereziki garrantzitsuak dira EHUrekin eta Orkestra Lehiakortasunerako Euskal Institutuarekin eratu diren lankidetzak.

Aro digitalean, garrantzi berezia hartu dute datuen ezagutzak eta kudeaketak. Kulturaren alorrean harreman eta komertzio digitalak sortzen duten datu andana izugarrien irakurketa eta erabilera publikoa definitu behar da, herri ikuspegitik, onura publikoaren arduratik. Kulturaren eragileak bezainbat kulturaren erabiltzaileak eta kontsumitzaileak hobeto ezagutzeko eta zerbitzu egokiagoa emateko ezinbesteko baliabidea da datuen azterketa, bai erakundeentzat, baita eremu publikoko antolamendu kulturalentzat ere. Orain arte ez dira datu horiek erabili, gurutzatu, interpretatu, eta ez dira, beraz, kultura eta esparru publikoak suspertzeko erabiltzen. Datu digitalen kudeaketa aurrerapauso garrantzitsua izango da hurrengo urteotan.

Gobernuaren estrategia orokorraren baitan eta kulturaren ardura partekatua duten erakundeekin lankidetzan definituko dira datu digitalen strategiak. Horretarako sortu diren lantaldeez gain Kulturklik (kultura agenda eta direktorio digitala) Kulturaren Euskal Behatokian integratu da, agenda eta informazioa eskaintzeaz gain, datu iturri bilaka dadin, Covid-19aren garaian hasitako bidetik, bien lankidetzak ahalbidetu baitzuen egoeraren jarraipen estua.

# 7.

## **PLANAREN KUDEAKETA EREDUA, JARRAIPEN ETA EBALUAZIO SISTEMA**

## 7.1.

### PLANAREN ERAIKUNTZA

---

Plan Estrategiko honen sorburuan Kultura Plana 2019-2022 dago, batetik, 2019an Eusko Legebiltzarrean aurkeztu zena, eta Covid-19ren eraginpean Euskadin bertan eta Europar Batasunean egin diren azterketak eta gogoetak, bestetik.

Planak biltzen dituen ekintzak behin eta berriz kontrastatuta daude sektorearekin, sortzaile nahiz kultura industria, beraien baitira egoera ondoen ezagutzen dutenak, premiak identifikatuta dauzkatenak, haientzat izan behar baitute erabilgarri eta ongarri erakundeetatik abian jartzen diren erramintak. Harreman sarriaren eta egoeraren ezagutza gertukoaren adierazle da urtero 1.500tik gora bilera egitea Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko arduradunek sektoreko eragileekin.

Plana egituratzea, berriz, ekintzak jardun lerroetan eta helburuetan antolatzea, Kultura Sailburuordetzako zuzendaritzak hartu du bere gain. Halaber, Sailburuordetzan landu dira egoeraren diagnostikoa eta egindakoaren balantzea. Beraz, Planaren egituraketa Sailburuordetzaren ardura izan da, sektorearekin etengabe kontrastatutako edukien gainean.

Planaren muina –helburuak, jardun lerroak eta ekintzak– 2021eko ekainean aurkeztu zitzaion Kulturaren Euskal Kontseiluari, eta zenbait iruzkin eta ohar jaso ziren. Irailean, berriz, Kultura Sailburuordetzako teknikari eta langileekin partekatu zen helburu, jardun lerro eta ekintzen taula, teknikarien inplikazioa erabakigarria baita zerbitzu eraginkor eta egokia eman nahi bada. 2022ko uda-udazkenean kultura alorreko hainbat pertsonari ere aurkeztu zaio, ardura tekniko edota politikoa izan dutenak, haien ekarpenez testua hobetzeko xedez eta Plan Estrategiko osoa aurkeztu zaio berriro Kulturaren Euskal Kontseiluari.

HAKOBA Kulturaren balorazioa bereziki garrantzitsua da plan honen garapenerako. Izan ere, kultura politikaren ardura erakundeon artean partekatua izanik, erakunde guztion bateratasuna erabakigarria da. Planaren muina 2021an azaldu zitzaion HAKOBA batzordeari, eta

2022ko abenduan, plan osoa, eztabaidarako eta batzordekideen ekarpenez ontzeko.

Eusko Jaurlaritzaren dokumentua da hau, bere ardurapeko ekintzak definitzen ditu, eta bere aurrekontuaren arabera hornitzen ditu, baina erakunde guztion adostasuna dauka diagnostikoan, kultura politikak antolatzeko eskeman, helburu nagusietan, jardun lerroetan eta ekintzetan, horietako asko elkarrekin landu beharrekoak. Gobernuari dagozkion ekintza zehatzak eta konpromiso operatiboak seinaltatzeaz gain, kulturaren sistema osoari eragiten dioten lerro estrategikoak marraztu nahi ditu dokumentu honek, erakunde guztion adostasunerako.

## 7.2.

### JARRAIPENA, EBALUAZIOA ETA ADIERAZLE SISTEMA

---

Kultura 2028 Plan Estrategikoa 2023ko martxoaren 14an onartu da Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluan. Behin onartuta, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari dagokio, eta zehazki Kultura Sailburuordetzari, Plan honen helburuak erdiesteko, haren exekuzioa gidatzea eta koordinatzea, eta jarraipena eta ebaluazioa egitea.

## 1. Jarraipen eta ebaluazio esparruak

Planaren jarraipena eta ebaluazioa bi esparrutan egingo da. Batetik, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren baitan, honako osaera izango duen lantaldea sortuko da:

- Kultura sailburuordea
- Kultura Sustapeneko zuzendaria
- Kultura Ondareko zuzendaria
- Etxepare Euskal Institutuko zuzendaria
- Kulturaren Euskal Behatokiko zerbitzu burua
- Kulturaren Euskal Behatokiko teknikaria
- Kultura Sustapeneko zuzendaritzako teknikari bat
- Kultura Ondare zuzendaritzako teknikari bat
- Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Berdintasun teknikaria

Bestetik, plan honen gobernantza partekatua espirituari eta konpromisoari jarraituz, eta planean jasotako ekintza asko eta askotan zenbait eragile parte hartuko dutela kontutan izanda, planaren garapenaren eta betetze mailaren berri emango die Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak HAKOBA Kulturari eta Kulturaren Euskal Kontseiluari, urtean behin gutxienez. Bertan partekatuko dira plan honen markoan burutzen joango diren ekintza nagusiak eta horien bilakaera.

## 2. Jarraipen eta ebaluazio metodologia

Planaren jarraipenak eta ebaluazioak honela egingo dira:

Plana indarrean dagoen denboran, Urteko Ekintza Plana (UEP) egingo du urtero Jarraipen eta Ebaluaziorako Kultura eta Hizkuntza Politikako barne lantaldeak, Kultura Sailburuordeak ontzat eman dezan. Urte hasieran onartuko da UEP. Urteko Ekintza Planean zehaztuko dira Helburu Estrategiko bakoitzari dagokionez garatuko diren ekintza zehatzak, horien arduradunak, parte hartuko duten beste erakunde edota eragileak, aurrekontua eta egutegia. Urtero halaber, Jardueraren Memoria edota Urteko Ekintza Planaren betetze txostena onartuko du.

Txosten hauen azterketa eta jarraipena egiteko, Jarraipen eta Ebaluazio lantaldea urtean bi aldiz elkartzeko da, gutxienez, planaren jarraipena egiteko. Idazkaritza Teknikoarena izango da

aipatutako txostenak, beharrezko liratekeen tarteko txostenak, edota sor litezkeen bestelako txostenak egitearen ardura.

Lantaldeko kideen ardura izango da, Eusko Jaurlaritza barruko zein kanpoko beste erakunde edota eragileekiko koordinazio esparruetan, Planaren betetze mailaren berri ematea, edota betetze mailaren inguruko txostenak osatzeko behar den informazioa biltzea.

Urteroko jarraipenaz gain, 2025 urtearen amaieran Kultura 2028 Plan Estrategikoaren 2026-2028 aldirako berrikuspen eta eguneraketa egingo da ekintzen, mugarrien, plangintza ekonomikoaren eta adierazleen atalei dagokienez. Azkenik, Plan Estrategikoak amaierako Ebaluazio Txosten bat izango du. Bertan, alde batetik, Planari eta helburuen betetze mailari buruzko informazioa jasoko da, eta, bestetik, atal honetan ezarritako adierazleei buruzko informazioa. Adierazle horien bilakaeraren jarraipena egiteko, arreta berezia eskainiko zaio emakumeen eta gizonen berdintasunari – sexuaren arabera bereizitako informazioa eta datuak dauden kasu guztietan –. Horretarako, planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko lantaldea Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Berdintasunerako Talde Teknikoarekin eta Talde Politikoarekin koordinatuko da.

Hona hemen Plan Estrategiko honen adierazleak:





## Orokorrak

ADIERAZLEA	ABIAPUNTUA	HELMUGA
1. Kultur jardunaren ekarpena BPGan* (Kulturaren kontu satelitea - Eustat)	--	2,6%
2. Inbertsio publiko kontsolidatua kulturaren EAEn (Kulturaren Euskal Behatokia)	423.030.645€ 2018	479.100.470€

\* Kultura jardunak BPGan duen eragina neurtzea Unescoren gomendioetako bat da, Europako kultura estatistiketan zabalitzen ari dena. Orain arte ez da behatokian datu hori jaso izan. Eustatekin ari da orain lanean bi urtez behin egingo den kontu satelite bat definitzen. 2023tik aurrera izango dugu datua.

## Talentu sortzailea garatzea

ADIERAZLEA	ABIAPUNTUA	HELMUGA
3. Kultur enpresen portzentaia enpresa kopuru osoarekiko (Kulturaren Euskal Behatokia)	7.149 enpresa %4,6 2020	7.600 enpresa %5
4. KSletako enpresen portzentaia enpresa kopuru osoarekiko	16.886 enpresa %11 2020	17.300
5. Kultur enpleguaren portzentaia enpleguaren kopuru osoarekiko (Kulturaren Euskal Behatokia)	20.550 pertsona %2,34 2020	%3
6. Emakumeek sortutako kultur produktuen portzentaia kultur sorkuntza osoarekiko ** (Kulturaren Euskal Behatokia)	----	%40
7. Etxeparek lagundutako kultura egitasmoak atzerrian (Etxepare Institutua)	987 2021	1.300
8. Berrikuntza programetan parte hartu duten enpresak (KSI-zerbitzua)	50	80
9. Bi aldeko programak garatzea (Etxepare Institutua)	"Saison Quebec-Pays Basque" 2022ra luzatua "Flandria-Euskadi" 2023-2024 "Japonia-Euskadi" 2023	
10. Sortzailearen estatutuaren aplikazioa bideratu (Foru Ogasunekin)	Akordioa 2022ko abenduan	

\*\*Emakumeen enplegua neurtzen du Behatokiak, baina emakumeek sortutako ekoizpenen kopurua ez du oraino estatistikoki aztertu ahal izan. Hurrengo urteetan joango da alorrez alor estimazioak argitaratzen.

## Kultura eskaintza aberastea eta gizarteratzea

ADIERAZLEA	ABIAPUNTUA	HELMUGA
11. Zuzeneko kultur ikuskizunetan parte-hartzea (Kulturaren Euskal Behatokia)	%45,70 2018	%50
12. Euskarazko parte hartze kulturalaren indizea (Kulturaren Euskal Behatokia)	%24,9 2018	%30
13. Liburutegi sarearen erabiltzaileen kopurua (Kultur Ondarearen Zuzendaritza/KEB)	920.149	1.000.000
14. eLiburutegia hezkuntza sistemarako egokitzea (Kultura Ondarearen Zuzendaritza)	2023ko ekaina	
15. Aisialdiko irakurketa (4 liburutik gora urtean) (Kulturaren Euskal Behatokia)	%44,2 2018	%48
16. Euskarazko irakurketaren indizea (azken 3 hilabeteetan euskarazko liburu bat irakurri duten herritarrak) (Kulturaren Euskal Behatokia)	%19,2 2018	%25

## Ondarea eta komunitatea uztartzea

ADIERAZLEA	ABIAPUNTUA	HELMUGA
17. Euskadiko museoek bisitari kopurua (Kultura Ondarearen Zuzendaritza/KEB)	3.175.103 2018	3.600.000
18. Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentu-kudeaketa Integralaren eta Dokumentu-ondarearen Legearen onarpena (Kultura Sailburuordetza)	2022ko ekainaren 23an	
19. Bilboko Arte Ederren Museoaren eraberrikuntza burutzea (Kultura Sailburuordetza)	2024ko urtarrila	
20. Orconerako kultura industriaren gordailua zabaltzea (Kultura Sailburuordetza)	2022ko ekainak 22	
21. Kultura ondarearen babeserako %1 deialdia indartu (Kultura Ondarearen Zuzendaritza)	2022-2025: 4M€ guztira	
22. Euskadiko Artxibo Historikoan katalogatutako eta digitalizatutako agiri-kopurua (Kultura Ondarearen Zuzendaritza)	Kat: 780.000 Digit: 5,3M 2022	Kat: 825.000 Digit: 5,6M

## Jauzi Digitala

ADIERAZLEA	ABIAPUNTUA	HELMUGA
23. Kultur ondare bezala babestutako elementuen kopurua (Kultura Ondarearen Zuzendaritza)	8	14
24. eLiburutegiaren erabiltzaileen kopurua (Kultura Ondarearen Zuzendaritza)	13.366	16.000
25. Euskarianan katalogatutako objektu digitalen kopurua (Kultura Ondarearen Zuzendaritza)	277.049 2022	450.000
26. Emsime/Museotik-en katalogatutako funtsen kopurua (Kultura Ondarearen Zuzendaritza)	220.000 2022	300.000
27. Eskena Arteen gordailu digitala (Taula) abiaraztea (Kultura Sustapenerako Zuzendaritza)	2023ko abenduan argitaratzea	



8.

**BIBLIOGRAFIA**



## 8.

### BIBLIOGRAFIA

- *Euskal Autonomia Erkidegoko parte-hartze kulturalari buruzko inkesta*, Kulturaren Euskal Behatokia, Eusko Jaurlaritzza, 2019.
- *Ikuspegiak. 2019ko Arteei eta Kultura Industriei buruzko estatistikaren datuen irakurketa analitikoa*, Kulturaren Euskal Behatokia, Eusko Jaurlaritzza, 2022.
- *Ikuspegiak. Sormen-industriei buruzko estatistikaren datuen irakurketa analitikoa (2019)*, Kulturaren Euskal Behatokia, Eusko Jaurlaritzza, 2021.
- *Finantzaketa eta gastu publikoa kulturaren EAEn 2018*, Kulturaren Euskal Behatokia, Eusko Jaurlaritzza, 2020.
- *Artxiboen estatistika 2019*, Kulturaren Euskal Behatokia, Eusko Jaurlaritzza, 2021.
- *Euskadiko Kultura eta Sormen Industrien dimentsio ekonomikoaren azterketa*. Orkestra Lehiakortasunerako Euskal Institutua), 2022.
- *Cuenta Satélite de la Cultura en España. Resultados*. Ministerio de Cultura y Deporte. Gobierno de España, 2021.
- *Anuario SGAE, 2020*.
- *Re/pensar las políticas para la creatividad – plantear la cultura como un bien público global-*, Unesco, 2022
- *The status and working conditions of artists and cultural and creative professionals- Executive summary*, European Expert Network on Culture and Audiovisual (EENCA), 2015
- *Rebuilding Europe. The cultural and creative economy before and after the COVID-19 crisis*, EY, January 2021.
- *Europe's moment: Repair and Prepare for the Next Generation*, European Commission, Brussels, 27.5.2020
- *L'auteur et l'acte de création*, Bruno Racine, Ministère de la Culture, Gouvernement de France, Janvier 2020

